

GRADUKO TITULUAK 2010/11



JAKINTZA-ADARRA:

GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK

Gradu guztiak oraindik egiaztatu gabe daude

Azken aldaketa: 2009/10/27

Vicerrectorado de Alumnado / Ikasleen Errektoreordetza

Servicio de Orientación Universitaria / Ikasleentzako Argibide Zerbitzua

AURKIBIDEA

JAKINTZA-ADARRA: GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK

Ekonomiako Gradua	
- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	5
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	
- Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	11
- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	17
- Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	23
Finantza eta Aseguruetako Gradua	
- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	31
Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua	
- Letren Fakultatea	35
Gizarte Antropologiako Gradua	
- Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	39
Gizarte Hezkuntzako Gradua	
- Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola	43
- Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	47
Gizarte Langintzako Gradua	
- Gasteizko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola	51
Haur Hezkuntzako Gradua	
- Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola	57
- Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola	63
- Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola	69
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	75
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea	81
Kazetaritzako Gradua	
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	87
Kriminologiako Gradua	
- Zuzenbide Fakultatea	93
Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	
- Lan Harremanen Unibertsitate Eskola	99
Lehen Hezkuntzako Gradua	
- Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola	105
- Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola	111
- Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola	117
Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako Gradua	
- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	123
Negoioen Kudeaketako eta Merkatarizako Gradua	
- Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	129

Pedagogiako Gradua	
- Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	135
Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua	
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	141
Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua	
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	147
Soziologiako Gradua	
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	153
Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua	
- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	157
Zuzenbideko Gradua	
- Zuzenbide Fakultatea-Zuzenbide Fakultatea-Bizkaiko Atala	163
ERANSKINA: Unibertsitatean sartzeko probaren fase espezifikoko modalitateko gaietan lortutako kalifikazioak haztatzeko parametroak. 2010/11 ikasturtea	169

OHARRA:
Eskuliburu honetan agertzen diren euskarazko irakasgaien izenak ez dira behin betikoak.

EKONOMIAKO GRADUA

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
www.ekonomia-enpresa-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Ekonomiako Graduaren helburua da ikasleek ekonomian prestakuntza orokorra lortzea, profil profesional desberdina duten jardueretan prestatzeari begira, lortutako gaitasunak arlo pribatuan nahiz publikoan aplikatzeko gaitasuna izan dezaten, bai enpresan, bai ekonomikoki zein sozialki garrantzitsua den beste edozein erakundetan.

Ekonomiako titulazioak, hortaz, ekonomiaren oinarriak eta aplikazioa ezagutuko dituzten profesionalak prestatu nahi ditu, bai eragile ekonomikoen banakako portaera jasotzen duen mikroekonomiaren arloan, bai makroekonomiaren arloan, hau da, maila agregatuan. Bestalde, gradu honi dagokion prestakuntza diziplina anitzekoa da eta bertan elkartzen dira ekonomiaren arloko ezagutzak eta historia, administrazioa eta zuzenbidearen arlokoak; izan ere, errealitate ekonomikoa gizartearen eta historiaren osagai bat da.

Ekonomia errentan, aberastasunean eta ongizatean eragiten duten faktoreen azterketa da eta bere helburua da urriak diren baliabideen esleipena, banaketa eta erabilera ulertu eta aztertzea. Graduatu guztiak oinarrizko fenomeno ekonomikoei aurre egiteko prest egon daitezten, titulazioak hiru arlotan jartzen du enfasia: errealitate ekonomikoaren ezagutza eta errealitate horretan jarduteko tresnak, banakako zein taldekako portaera ekonomikoen logika eta teoriak formulatzeko nahiz diagnosiak egiteko beharrezkoak diren tresna matematiko eta estatistikoen menderatzea.

Ekonomiako Graduaren helburu nagusia da ikasleak ekonomista lanaren alderdi desberdinak betetzeko eta norberarekiko eta gizartearekiko arduraz ekonomistak konpromiso etikoa mantenduz bere gain hartu beharreko eginkizunak betetzeko ezagutuz eta gaitasunez hornitzea. Ekonomiako Gradua bukatzen duten graduatuak autonomia pertsonal eta profesionalez jarduteko gaituta daude. Horrez gain, titulatuak konturatuko da bere prestakuntzarekin jarraitzea eta bere ezagutzak bizitza profesionalean zehar eguneratzea garrantzitsua eta premiazkoa dela.

SARRERAKO PROFILA

Sarrerako profil hau unibertsitatean aurretiaz egon ez diren batxilergoko ikasleentzat pentsatuta dago baina beste curriculum batzuk edukita titulazio hau egin nahi duten ikasleen orientaziorako ere balio du.

Ekonomiako Gradua ondo egin nahi duen batxilergoko edozein ikaslek aljebra, kalkulua, ingelesa eta gehien erabiltzen diren aplikazio informatikoak ezagutu behar ditu. Gainera, honako trebetasun hauek izan behar ditu: mintzaera eta idazkera ona, matematika, estatistika eta zenbaketa-tresnak erabiltzeko erraztasuna, azterketa-, hausnarketa-, sintesi- eta kritika-gaitasuna, ulertzeko eta abstrakziorako erraztasuna, ikasteko interesa eta ikasteko ohitura onak, tokiko, eskualdeko, nazio barruko edo nazioarteko arazo ekonomiko, sozial eta politikoei interesa eta errespetuz taldean lan egiteko gogoia.

Sarrerako profil hau kontuan hartuta, ikastegiak, sailekin lankidetzan, 0 ikastaroak izeneko ikastaroak antolatzen ditu ikasturte akademikoa hasi orduko lehenengo mailan sartu behar duten baina matematika eta informatikako ezagutza nahikorik ez duten ikasleentzako.

Ekonomiako Graduan sartu nahi dutenengandik espero diren gaitasunak honako hauek dira:

1. Bere ingurunean erraztasunez komunikatzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aktiboki parte hartzeko jarrera erakustea.
2. Bigarren hezkuntzan lortutako ezagutzak (matematika, hizkuntzak, gizarte-zientziak, etab.) eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erraztasunez erabiltzea prestakuntzan emaitza onak lortzeari begira.
3. Ideiak aztertu, laburtu eta argudio koherenteak erabiliz iritziak ematea norberaren ezagutzan aurrera egiteko.
4. Ingelesez irakurtzea hasiera-hasieratik eskuragarri dagoen informazio guztira heldu ahal izateko.
5. Ikasteko diziplina, bakarka eta taldeka lan egiteko ahalmena, komunikatzeko erraztasuna, erantzukizuna eta heldutasuna edukitzea.

Gaitasun horiek, Batxilergoa gainditu ondorengo gaitasunetatik datozenak, ez dira derrigorrez sartzeko baldintzat hartu behar baina kontuan hartu behar dira unibertsitatera sartu nahi duen edozein ikasle orientatzerako orduan.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	GUZTIRA
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	48				48
Beste jakintza-adarretako oinarrizko irakasgaiak	12				12
Nahitaezkoak		60	48		108
Gradu-amaierako lana				12	12
Kanpoko praktikak					
Hautazkoak			12	48	60
Guztira	60	60	60	60	240

Kanpoko praktikak: boluntarioak (3. edo 4. maila)

TITULAZIOAREN PROGRAMA

1 MODULUA: 1. mailako oinarrizko irakasgaiak, 60 ECTS kreditu¹

1. lauhileko irakasgaiak

Ekonomiaren Hastapenak I: Mikroekonomiaren Oinarriak.

Matematika I*²

Kontabilitaterako Sarrera

Enpresaren Ekonomia: Sarrera

Zuzenbiderako Sarrera

2. lauhileko irakasgaiak

Ekonomiaren Hastapenak II: Mikroekonomiaren Oinarriak.

Matematika II

Finantza Kontabilitatea

Enpresaren Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza

Ekonomiaren Historia*

2. MODULUA: Ekonomia Analisiaren Oinarriak **2. maila**, 60 ECTS kreditu³

1. lauhileko irakasgaiak

Mikroekonomia*
Makroekonomia*
Espainia Garaikidearen Historia Ekonomikoa
Estatistika eta Datuen Analisia
Nazioarteko Ekonomia

2. lauhileko irakasgaiak

Erdi-mailako Mikroekonomia*
Erdi-mailako Makroekonomia*
Ekonomiari Aplikatutako Estatistika
Ekonomia publikoa: gastua
Garapenaren Ekonomia

3. MODULUA: Ekonomia Aplikatuaren Oinarriak **3. maila**, 48 ECTS kreditu⁴

1. lauhileko irakasgaiak

Ekonomia publikoa: diru-sarrera
Ekonometriarako Sarrera *
Erakundeak eta Ekonomia Erregulazioa
Merkatu Boterea eta Estrategia
Makroekonomia dinamikoa*

2. lauhileko irakasgaiak

Ekonometria aplikatua *
Politika Fiskal eta Monetarioa
Ziurgabetasuna eta kontratuak

¹ Irakasgai hauek guztiak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira

² Izartxoak duten irakasgaiak ingelesez ere emango dira

³ Irakasgai hauek guztiak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira

⁴ Irakasgai hauek guztiak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira

4. MODULUA: Hautazko ibilbideak **3. eta 4. mailak**, 60 ECTS kreditu

Modulu honetan titulazioko gaitasun guztiak garatzen dira. Modulu honetan sartu ahal izateko, gainditurik izan behar dira oinarriko irakasgaien moduluko kreditu guztiak eta 48 nahitaezko kreditu osagarri, *Ekonomia Analisiaren Oinarriak* modulukoak edota *Ekonomia Aplikatuaren Oinarriak* modulukoak. Ikasleek Ekonomiako gradu honetako 60 hautazko kreditu gainditu behar dute; horretarako, modulu honek eskaintzen du:

1. 20 hautazko irakasgai
2. 6 aitorpen-kreditu
3. Kanpoko praktika boluntarioak enpresetan.

Hautazko irakasgaiak dira:

Pertsonen Gaineko Ezarpen Zuzena
Deszentralizazioa eta Euskal Sektore Publikoa
Enpresaren Finantza Ekonomia
Zuzendaritza Estrategikoa: Enpresa Politika
Ekonomia Esperimentala
Nazioarteko Merkataritza
Ingurumen Ekonomia eta Baliabide Naturalak
Ekonomi Hazkundera
Informazioaren Ekonomia
Lan Ekonomia

* Ikasgaien izenak behin behinekoak dira Euskara Zerbitzuak oniritzia eman arte.

Analisi Aldagaiantza
Denborazko Serieen Ereduak Ekonomian
Programazio Matematikoa eta Joko Teoria
Nazioarteko Ekonomia Erakundea
Lurraldearen Antolaketa eta Plangintza
Lurralde Ekonomia
Globalizazioa Ikuspuntu Historikoan
Hiri Ekonomia
Euskararen Arauak eta Erabilera
Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak

5. MODULUA: Gradu amaierako lana **4. maila**, 12 ECTS kreditu

Modulu honetan titulazioko gaitasun guztiak garatzen dira. Modulu honetan matrikulatu ahal izateko, gainditurik izan behar dira oinarrizko irakasgaien modulua eta graduoko beste 108 kreditu (nahitaezkoak edo hautazkoak). Modulu honetan ebaluatua izateko titulazioko oinarrizko, nahitaezko eta hautazko kreditu guztiak gainditurik izan behar dira.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Mugikortasun-programei esker, Fakultateak azken mailetakoko ikasleei beste zenbait unibertsitatetan urtebetez ikasteko 100 bat plaza eskaintzen dizkie.

ERASMUS programak gaur egun Europako 23 unibertsitatetan ikasteko aukera ematen du. Aurtengo ikasturtean gure fakultateko 40 ikasle daude unibertsitate horietan ikasketak egiten. LATINOAMERIKAKO hainbat unibertsitaterekin ere ikasleak trukatzeko programa bat daukagu. Azkenik, SICUE-SENECA programak Espainiako 12 unibertsitatetan 40 bat plaza eskaintzen ditu.

PRAKTIKAK

Praktikak egitea borondatezkoa da Ekonomiako Graduan. Dena den, fakultateak enpresetan praktikak egiteko programa oso eraginkorra du bere ikasleentzat. Azken ikasturtean 700 ikaslek baino gehiagok eta ehunka enpresak parte hartu du programa horretan. Praktika horietan parte hartzen duten ikasleek lan-merkatuan sartzeko balio handiko esperientzia lortzen dute.

LORTUTAKO GAITASUNAK-GRADUATUAREN PROFILA

Prestakuntza-profila:

Ekonomiako graduatua gai da errealitate ekonomikoa aztertu, ulertu eta ondoren ekiteko; eskuratutako tresnak erabiltzeko, arlo pribatuan nahiz publikoan baliabideak modu eraginkor eta iraunkorrean gestionatu ahal izateko; erakundeek jarduera ekonomikoan eta gizartean zer leku betetzen duten ulertzeko; ekonomiaren arlo desberdinetako arazo praktikoak azaldu eta konpontzeko; praktikan arazoak diagnostikatu eta konpontzeko ekonomia-analisiaren printzipioak aplikatu eta ikasitako guztia erabiltzeko; erabakiak hartzerakoan tresna analitikoak erabiltzeko.

Profil pertsonala:

Ekonomia eta enpresarekiko interesa; gizarte- eta politika-gaiekiko interesa; analisi eta sintesirako gaitasuna; ulermenerako eta abstrakziorako erraztasuna; ekonomia-munduarekiko ikuspegi zabala; antolatze eta erabakiak hartzeko gaitasuna; taldean integratzeko erraztasuna; sormena eta bizitasuna izatea.

Profil profesionala:

Ekonomiako graduatu guztiek gaitasuna dute ekonomiaren arlo desberdinetako arazo praktikoak konpontzerakoan ekonomia-analisiaren printzipioak aplikatzeko, bai arlo

pribatuan (enpresetan, finantza- eta aholkularitza-erakundeetan), bai arlo pribatuan, jarduera-eremuari dagokion lurraldea edozein dela ere, tokian tokiko erakundeetan nahiz nazioarteko erakundeetan. Errealitate ekonomikoa aztertu, ulertu eta ondoren ekiteko duten gaitasunari esker, ikerlan eta azterlanak ere egin ditzakete; hala, lanpostuak bete ditzakete hainbat lekutan: azterlan-zerbitzuetan, fundazioetan, goi mailako ikastegietan, ikerketa-institutuetan, nazioko zein nazioarteko erakunde publikoetan, eta abarretan. Halaber, nork bere negozioari ekitea ere irtenbide profesional erakargarria da.

LANERATZEA

Ekonomiako Graduak hainbat lanpostutan aritzeko gaitasuna ematen du:

- Enpresaren sektorean lan egin daiteke, bai multinazionalen, bai Pyme-etan (ikerlan-zerbitzuetan, finantza-erakundeetan eta burtsan, aholkularitzan eta zerga-aholkularitzan, aseguruetan, arlo berrietan), gestio-lanak edo lan teknikoak egiten, erdi-mailako edo goi-mailako ardurazko lanpostuetan. Hainbat lanpostu bete ditzakete, besteak beste, arlo hauetan: enpresen antolakuntza eta zuzendaritza; enpresa-, zerga- eta lan-aholkularitza; finantza-, arrisku-, merkatu eta burtsa-analisia; giza baliabideak, kontu-ikuskaritza, eta abar.
- Administrazio publikoa: nazioartean, estatuan, autonomia erkidegoan nahiz tokian-tokian funtzionario eta erdi-mailako nahiz goi-mailako teknikari izateko aukera ematen du ekonomia, ogasun, industria, teknologia, nazioarteko merkataritza eta beste hainbat arlotan. Halaber, Espainiako Bankurako oposaketak eta karrera diplomatikoa egiteko aukera ematen du.
- Nazioarteko erakundeak: Europako Batasuneko erakundeak, Europako Banku Zentrala, Nazio Batuen sistemako ekonomia-erakundeak [Munduko Bankua, NBE, Nazioarteko Diru Funtza (NDF), Garapenerako Amerika arteko Bankua (GAB)], ELGA, eta abar.
- Beste erakunde batzuk: fundazioak, GKEak, eta abar.
- Irakaskuntza: erdi-mailako eta goi-mailako irakaskuntza.
- Ikerketa: azterlan-zerbitzuak, plangintza-bulegoak, ikerketa-zentro publiko eta pribatuak, unibertsitatea.
- Lanbidean libreki aritzea.

EZARPENAREN KRONOLOGIA

- 1. maila:** 2010/2011
- 2. maila:** 2011/2012
- 3. maila:** 2012/2013
- 4. maila:** 2013/2014

Ekonomiako Gradu berria ikasturtez ikasturte ezarriko da. Hala, 2010/11 ikasturtean Ekonomiako Graduaren lehenengo maila ezarriko da eta, aldi berean, ordeztuko den Ekonomiako lizentziaturaren lehenengo maila desagertu egingo da. Berdin egingo da hurrengo mailekin; hala, 2013/2014 ikasturtean erabat ezarriko da Ekonomiako Gradua, eta erabat desagertuko da Ekonomiako lizentziatura.

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUA

Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

www.enpresa-donostia.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduaren helburua tituludunari ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak ematea da, enpresen eta bestelako erakunde publiko nahiz pribatuen administrazioan eta zuzendaritzan funtzio ugari betetzeko edo beren enpresa-egitasmoak abian jartzeko gai izan daitezen.

SARRERAKO PROFILA

Sartzen diren ikasle berriek:

- ekonomiaren errealitatea, enpresa eta bere gizarte-ingurua ezagutzeko interesa izan beharko dute.
- gaitasun numerikoa izango dute eta hizkuntza matematikoa menderatuko dute.
- irakurtzeko ohitura, eta ulertzeko eta adierazteko gaitasun egokia izango dute, ahoz nahiz idatziz.
- bakarka edo taldeka lana egiteko gaitasuna izango dute, beren denbora zuzen planifikatzeko eta antolatzeke ohituraren bitartez.
- teknologia berriak erabiltzeko joera izango dute eta informazioa egituratzeko, aukeratzeko eta bilatzeko gai izango dira.
- erantzukizuneko erabakiak hartzeko beharrezkoa den heldutasuna eta zentzu ona izango dute.

Sarbide-modalitateei dagokienez, Gizarte Zientzietako batxilergoa edo horri lotutako lanbide-heziketako prestakuntza-moduluak sarbidea egiteko aukera egokienak direla uste da. Beste modalitate batzuetan ikasten dutenek matematikako ezagutzen errefortzua (kasuaren arabera) egiten badute, titulua nahikotasunez jarraitzeko gai izango dira.

IKASKETEN ANTOLAKUNTZA

Mota	1. Maila	2. Maila	3. Maila	4. Maila	Guztira
Adarreko oinarrizko ikasgaiak	48	0			48
Beste adarretako oinarrizko ikasgaiak	12	0			12
Nahitaezkoak	0	60	42	18	120
Kanpoko praktikak					
Gradu-amaierako lana				12	12
Hautazkoak			18	30	48
Guztira	60	60	60	60	240

TITULUAREN PROGRAMA

Nahitaezko Irakasgaiak

1. MAILA	
1. lauhilabetekoan	2. lauhilabetekoan
Kontabilitaterako sarrera	Finantza-kontabilitatea
Enpresaren ekonomia: sarrera	Enpresaren ekonomia: antolakuntza eta zuzendaritza
Matematika I	Matematika II
Ekonomiarako sarrera	Ekonomiarako sarrera II
Zuzenbiderako sarrera	Historia ekonomikoa
2. MAILA	
1. lauhilabetekoan	2. lauhilabetekoan
Datuen analisisa	Estatistika aplikatua
Mikroekonomia	Egitura ekonomikoa
Merkataritza-zuzendaritzarako sarrera	Goi mailako finantza-kontabilitatea
MOF	Finantza-zuzendaritza: finantzaketa
Kostuen kontabilitatea	Merkataritza-zuzendaritza erabakiak
3. MAILA	
1. lauhilabetekoan	2. lauhilabetekoan
Zerga-erregimena	Finkapena
Kontabilitate-analisisa	Zuzendaritza estrategikoa: enpresako hazkundera eta garapena
Zuzendaritza estrategikoa: enpresa-politika	Hautazkoa
Makroekonomia	Hautazkoa
Ekonometria	Hautazkoa
4. MAILA	
1. lauhilabetekoan	2. lauhilabetekoan
Finantza-zuzendaritza: inbertsioak	Hautazkoa
Enpresaren zuzenbidea	Gradu-amaierako lana
Enpresa kudeatzeko informatika-sistemak	
Hautazkoa	
Hautazkoa	

Gradu-amaierako lana Gradu berriaren laugarren mailako nahitaezko irakasgai bat izango da (12 ECTS kreditukoa). Irakasleak baimendutako lana izango da, balioespen-epaimahaiaren edo -batzordearen aurrean aurkeztu beharko dena.

Hautazko Irakasgaiak

Gradu berriaren ikasleek prestakuntza-ibilbide espezializaturen bat aukeratu ahal izango dute (*minor*). Ibilbide horiek tutuluaren oinarritzko hautazko irakasgaien eskaintzak osatuak dira. UPV/EHUn Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak lau *minor* hauek proposatzen ditu:

- Kontabilitatea eta beste informazio-sistema batzuk
- Finantzak
- Merkataritza-zuzendaritza
- Pertsonak eta berrikuntza

Hautazko irakasgaien eskaintza hori osatze aldera, Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskararen Plan Gidariak ezarritakoaren harira, hautazko bi irakasgai euskaraz eskaintzen dira, hizkuntza horretan gaitasun komunikatiboak eta linguistikoak garatzeko ekonomia eta enpresaren arloan.

Kontabilitatea eta beste informazio-sistema batzuk <i>Minor-a</i> (30 ECTS kreditukoa)	
3.	Kontabilitate publikoa
3.	Gestio-kontabilitatea eta barne-kontrola
3.	Kontabilitatearen eta ikuskaritzaren lege-esparrua
4.	Kontuen ikuskaritza
4.	Kontabilitate aurreratua eta fiskalitatea
4.	Enpresarako 2. hizkuntza II (Frantsesa edo Alemana): kontabilitaterako atzerriko hizkuntza
Finantzak <i>Minor-a</i> (30 ECTS kreditukoa)	
3.	Finantza-erakundearen gestioa
3.	Enpresen balioespena
3.	Nazioarteko finantza-sistema
4.	Finantza-merkatuen gestioa
4.	Nazioarteko finantzak
4.	Enpresarako ingeles aurreratua II: finantzarako atzerriko hizkuntza
Merkataritza-zuzendaritza <i>Minor-a</i> (30 ECTS kreditukoa)	
3.	Merkataritza-ikerikuntza
3.	Marketin aurreratua
4.	Sektoreko marketina
4.	Nazioarteko marketina
4.	Kontsumo-zuzenbidea
3.	Enpresarako 2. hizkuntza II (Frantsesa edo Alemana): merkataritza-zuzendaritzarako atzerriko hizkuntza
Pertsonak eta berrikuntza <i>Minor-a</i> (30 ECTS kreditukoa)	
3.	Enpresaren soziologia I: pertsonaleko politikak, funtzioak eta teknikak
3.	Enpresaren zuzenbidea : lan-harremanen zuzenbidea
4.	Enpresaren soziologia II: antolakuntza-aldaketa eta berrikuntza
4.	Gestio-eredu berriak
4.	Berrikuntzako sistemak eta politikak
3.	Enpresarako ingeles aurreratua I: komunikazio-teknikak eta negoziaketa atzerriko hizkuntzan
Euskararen plan gidariaren hautazkoak	
Komunikazioa euskaraz: enpresa-ekonomia eta lan-harremanak	Euskal Filologia
Komunikazioa euskaraz (I): idazteko tailerra	Euskal Filologia

Irakasteko Hizkuntzak: Ele Aniztasuna

Titula osorik ematen da bai euskaraz bai gaztelaniaz. Era berean, tituluaren zenbait irakasgai ingelesez eta frantsesez egin daitezke. Ikasleak irakasgaiak egiteko hizkuntza aukeratu dezake, prestakuntza ele anitza lortzeari begira.

Ikastegiak atzerriko hizkuntzetan adituak diren irakasleak ditu (ingeleza, frantsesa eta alemana); beraz, atzerriko bi hizkuntzatan ikasi daiteke (ikus hautazko irakasgaien laukia).

Eskolak Hizkuntzen Multimedia Laborategi berritua du, hizkuntzen irakaskuntzan ikasleen aniztasunari arreta egiteko aukera eskaintzen duena, beren lan-erritmoa errespetatuz.

MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Ikastegiak gaur egun Erasmus nazioarteko mugikortasun-programaren testuinguruan sinatutako 25 hitzarmen inguru ditu, eta estatuko 4 mugikortasun-programa SICUE-Senecaren barruan. Besteak beste, honako unibertsitate hauekin sinatutako lankidetzahitzarmenak aipatu ditzakegu: Dublin Institute of Technology (Dublín, Irlanda), Gotland University (Gotland, Suedia), University of Applied Sciences (Tampere, Finlandia), Avans University of Applied Sciences (Breda, Herbehereak), Fachhochschule Düsseldorf (Düsseldorf, Alemania), Hochschule Für Wirtschaft Und Recht (Berlin, Alemania) eta Institut des Hautes Etudes Economiques et Commerciales ospetsua (Paris-Bordele-Lyon, Frantzia). Horrez gain, Diploma Bikoitza arautzen duen berariazko hitzarmena du Paueko eta Adurreko Herrialdeetako (Baidon programa) Unibertsitatearekin. Hitzarmen hori EEESra egokitzeko testuinguruan berrituko dira.

Informazio honen zehaztasunak www.enpresa-donostia.ehu web-orrian eskuratu daitezke. Mugikortasun-programa hauetan nahiz beste batzuetan interesa duten ikasleek informazio interesgarria aurkituko dute UPV/EHUren Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetzaren web-orrian (www.relaciones-internacionales.ehu.es).

PRAKTIKAK

Nahitaezko eta borondatezko praktikei buruzko informazioa sartzeko da.

Ikasleen prestakuntza osatzeari begira, kanpoan praktikak egiteko aukera eskaintzen zaie ikasleei enpresetan eta inguruko beste erakunde batzuetan. Praktiken programak aurreko ikasturteetan parte hartu duten ikasleen eta enpresen gogobetetze maila altuaren bermea du, eta, horrez gain, oso eskaintza zabala du, izan ere, praktika asko kudeatzen ditu askotariko lankidetzak-erakundetan.

Praktikak borondatezkoak dira, hartara, horien bidez lortutako kredituak baliozkotu daitezke Gradua lortzeko beharrezkoak diren hautazko kredituen kopuru baliokidearekin.

ESKURATUTAKO GAITASUNAK

- Enpresa edo erakunde bat zuzentzea eta administratzea, lehia eta erakunde gisa duen kokalekua ulertuz eta bere indarguneak eta ahulguneak identifikatuz.
- Enpresa edo erakunde baten edozein arlo funtzionaltan sartzeko jakitea eta bertan emandako kudeaketa-lan oro trebetasunez egiteko gai izatea, inguru anitzetan eta kultura askotako erakundetan lan egiteko trebetasunak izanda.
- Hainbat iturritatik datorren informazioa bilatzeko, identifikatzeko, analizatzeko eta sintetizatzeko gai izatea, enpresa baten egoera eta aurreikusitako bilakaera ebaluatzeko gaitasun kritikoarekin, eta enpresaren arlo etiko, sozial eta ekonomiko nagusien gaineko arrazoibideak egiteko nahiz erabakiak hartzeko gaitasunarekin.
- Eskura dauden baliabideak eraginkortasunez banatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilita dagokion ikerketa eta lan arloan.
- Edozein txosten egitea, ematea eta aurkeztea modu argi eta koherentean, enpresaren barne-egoerei eta alderdiei buruz eta beste enpresa eta merkatu batzuen egoera jakinei buruz. Txostena erabaki egokiak hartzeko lagungarri izango da, eta euskaraz, gaztelaniaz edo zehaztutako atzerriko hizkuntzan egiteko gai izango dira ikasleak.
- Talde-lana egitea, erantzukizunez eta errespetuz, ekimenez eta sormenez, lidergoaz eta komunikatzeko erraztasunez.
- Jakintza eta teknika berriak modu jarraituan eta autonomoa ikastea, etengabe aldatzen eta berritzen ari den arloan.

GRADUDUNAREN PROFILA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua duen pertsonak:

- eremu irekietan elkarrekintzan ari diren sistema konplexu gisa ulertu behar ditu enpresa-erakundeak.
- prestakuntza osotua eta aldakorra izango du, hasiera batean enpresen eta beste erakunde publiko eta pribatuetan kudeaketa-funtzio ugari egiteko edo bere enpresa-proiektua abiarazteko gaitasuna emango diona.
- enpresaren arlo funtzionalei lotutako teknikak eta kontzeptuak erabiliko ditu eta, horien eta erakundearen helburu orokorren artean dauden harremanak ulertuko ditu.
- informazioa kudeatzeko, analizatzeko eta sintetizatzeko gaitasuna izango du, enpresaren erabakiak bideratzeko eta hartzeko.
- ziurgabetasun-egoeratan erabakiak hartzeko gaitasuna izango du eta aukerak eta mehatxuak aurreikusi eta identifikatuko ditu.
- baliabide materialak eta giza baliabideak eraginkortasunez banatzeko, informazioa kudeatzeko, helburuak ezartzeko, lortutako emaitzak ebaluatzeko eta bere ideiak modu egokian komunikatzeko gaitasuna izango du.

Horretarako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua lortzen duen pertsonak, kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik eta dimentsio etiko batetik, enpresaren arlo funtzional guztietan arazoak konpontzeko gaitasun hauek izango ditu:

- pertsonen arteko harremanetarako trebetasunak
- talde-lanerako trebetasunak
- jakintzak enpresa-jarduerara aplikatzeko gaitasuna, ekimena eta sormena.

Hala, ekonomiaren hazkunde iraunkorrean lagunduko du eta gizartearekiko erantzukizunez jokatzeko duen hiritarra izango da.

Unibertsitateko tituludun orori dagokion gaitasun kritikoa eta autokritikoarekin batera, ezaugarri horiek guztiek malgutasuna emango diote gradudunari egoera berrietara egokitzeko eta inguru anitzetan zein dinamikoetan lana egiteko.

LAN-MUNDURA SARTZEA

Ekonomia eta zuzenbideko tituluen jarduera-tasa %96 da; UPV/EHUren unibertsitate-tituluen batez bestekoaren antzekoa.

Ekonomiako eta zuzenbideko jakintza arloko gradudunen enplegu-tasa %+88 da. Ehuneko hori batez besteko enplegu tasaren gainetik dago, eta soilik osasuneko eta teknikako tituluen azpitik. Enplegu-tasa, halaber, %2,5 hobetu da 2003an, 1998. urteko datua aintzat hartuta.

Hain zuzen ere, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziadunen enplegu mailak hauek dira: %91 (gizonak) eta %94 (emakumeak), bere jakintza arloaren batez bestekoaren gainetik, eta, jakina, baita unibertsitateko tituluen batez bestekoaren gainetik ere.

Laburbilduz, UPV/EHUren barruan tituludun gehien dituen titulua izateaz gainera (bakarkako titulu gisa gaur egun EAZL da graduatu gehien dituen titulua), titulu honen datu objektiboek erakusten dute bere jarduera eta enplegu maila gainerako tituluen batez besteko maila berean edo horren gainetik dagoela.

EZARTZEKO KRONOLOGIA

1. Maila: 2010/11

2. Maila: 2011/12

3. Maila: 2012/13

4. Maila: 2010/11

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUA

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea

www.ekonomia-enpresa-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduaren helburu nagusia da hemengo nahiz kanpoko enpresa-erakunde publiko zein pribatuetako zuzendaritza karguetan egoteko eta gestio-, aholkularitza- eta ebaluazio-lanak egiteko gaitasuna izango duten profesionalak prestatzea.

Graduatuak prestakuntza osoa eta erabilera askokoa izango du; hala, bere enpresa sortzeko ahalmena eta erakunde bateko edozein eginkizun-arlotan —besteak beste, produkzio, giza baliabide, finantziario, administrazio, merkaturatze eta kontabilitatearen arloan— besteren kontura lanean aritzeko gaitasuna izango du. Graduatuak jakingo du enpresaren helburu nagusiekin bat etorriko den eginkizun-arlo horien guztien ohiko garapena nola antolatu; halaber, jakingo du aukerak identifikatu eta horiei aurrea hartzen, baliabideak esleitzen, informazioa antolatu eta interpretatzen, langileak hautatu eta motibatzen, egoera zalantzarrietan erabakiak hartzen, ezarritako helburuak lortzen eta emaitzak ebaluatzen.

Bestalde, gradu horri dagokion prestakuntza diziplina anitzekoa da, eta bertan elkartzen dira ekonomiaren eta enpresaren arloko ezagutzak, eta historia, soziologia eta zuzenbidearen arlokoak; izan ere, enpresa eta erakundeak errealitate ekonomiko zehatz bat duen merkaturan aritzen dira, eta errealitate ekonomiko hori gizartearen eta historiaren beste osagai bat baino ez da. Azkenik, ez da ahaztu behar graduatuak erabakiak hartzeko baliagarria den informazioa lortu eta interpretatzeko beharrezkoak diren zenbait tresna matematiko-estatistiko ezagutu eta ongi erabiltzen jakin behar duela.

SARTZEKO PROFILA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua ondo egin nahi duen batxilergoko edozein ikaslek aljebra, kalkulua, ingelesa eta gehien erabiltzen diren aplikazio informatikoak ezagutu behar ditu. Gainera, honako trebetasun hauek izan behar ditu: mintzaera eta idazkera ona, matematika, estatistika eta zenbaketa-tresnak erabiltzeko erraztasuna, azterketa-, hausnarketa-, sintesi- eta kritika-gaitasuna, ulertzeko eta abstrakziorako erraztasuna, ikasteko interesa eta ikasteko ohitura onak, tokiko, eskualdeko, nazio barruko edo nazioarteko arazo ekonomiko, sozial eta politikoei interesa eta errespetuz taldean lan egiteko gogoia.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan sartu nahi dutenengandik espero diren gaitasunak honako hauek dira:

- Bere ingurunean erraztasunez komunikatzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aktiboki parte hartzeko jarrera erakustea.
- Bigarren hezkuntzan lortutako ezagutzak (matematika, hizkuntzak, gizarte-zientziak, etab.) eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erraztasunez erabiltzea prestakuntzan emaitza onak lortzeari begira.
- Ideiak aztertu, laburtu eta argudio koherenteak erabiliz iritziak ematea norberaren ezagutzan aurrera egiteko.
- Ingelesez irakurtzea hasiera-hasieratik eskuragarri dagoen informazio guztira heldu ahal izateko.
- Ikasteko diziplina, bakarka eta taldeka lan egiteko ahalmena, komunikatzeko erraztasuna, erantzukizuna eta heldutasuna edukitzea.

Gaitasun horiek, Batxilergoa gainditu ondorengo gaitasunetatik datozenak, ez dira derrigorrez sartzeko baldintzat hartu behar, baina kontuan hartu behar dira unibertsitatara sartu nahi duten edozein ikasle orientatzerako orduan.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Mota:	1.	2.	3.	4.	OSOA
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	48				48
Beste jakintza-adarretako oinarrizko irakasgaiak	12				12
Nahitaezkoak		60	42	18	120
Gradu amaierako lana				12	12
Kanpoko praktikak					
Hautazkoak			18	30	48
Totala	60	60	60	60	240

Kanpoko praktikak: boluntarioak (3. edo 4. maila)

Oinarrizko eta nahitaezko irakasgai guztiak gaztelaniaz eta euskaraz ematen dira.

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Irakaskuntza bost modulutan antolaturik dago. Lehenengo hiru moduluak seina kreditu izango dituzten irakasgaiak osaturik daude; laugarren moduluak, berriz, hautazko irakasgaiak, enpresako praktikek eta aitorpen-kredituek osatzen dute. Azkenik, bosgarren moduluak Gradu Amaierako Lanari dagokio.

Hala, graduko ikasketen plangintza honela zehazturik dago:

1. moduluak. OINARRIZKO IRAKASGAIK: lehenengo mailako 10 irakasgai, guztiak oinarrizkoak eta nahitaezkoak.

2. moduluak. ENPRESA OINARRIAK: enpresaren arloko funtsezko eta nahitaezko 9 irakasgai, *Finantzak eta Aseguruak, Marketina eta Merkatu Ikerketa eta Fiskalitatea eta Administrazio Publikoa* graduekin partekatutakoak, bigarren eta hirugarren mailako lehenengo lauhilekoetan emango direnak.

3. moduluak. ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN AURRERATZEA: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako 11 irakasgai espezifiko, nahitaezkoak, bigarren, hirugarren eta laugarren mailatan emango direnak.

4. moduluak. ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO HAUTAZKO IBILBIDEAK. Sei espezialitate hartzen ditu:

- Zuzendaritza Orokorra eta Giza Baliabideen Zuzendaritza;
- Enpresa Berrikuntza
- Kontabilitate Gestioa eta Finantza Arloko Informazioa
- Merkatal Zuzendaritza
- Fiskalitatea
- Finantza Zuzendaritza

Horiez gain, hautazko irakasgai osagarriak, enpresa-praktikak eta aitorpen-kredituak hartzen ditu.

5. modulua. GRADU AMAIERAKO LANA: Gaitasunen ebaluazio orokorreko 12 kreditu emango dira Gradu Amaierako Lanaren bidez.

	Irakasgaiak	ECTS	Moduluak
1.	Ekonomiaren Hastapenak I: Mikroekonomiaren Oinarriak.	6	Oinarrizko Irakasgaiak
	-Matematika I	6	
	Kontabilitaterako Sarrera	6	
	Enpresaren Ekonomia: Sarrera	6	
	Zuzenbiderako Sarrera	6	
	Ekonomiaren Hastapenak II: Makroekonomiaren Oinarriak.	6	
	Matematika II	6	
	Finantza Kontabilitatea	6	
	Enpresaren Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza	6	
	Ekonomiaren Historia	6	
	2.	Kostuen Kontabilitatea	
Merkatal Zuzendaritza: Sarrera		6	
Estatistika eta Datuen Analisia		6	
Finantza Eragiketen Matematika		6	
Mikroekonomia		6	
Goi Mailako Finantza Kontabilitatea		6	EAZn aurreratzea
Merkatal Zuzendaritza: Politikak		6	
Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa		6	
Enpresari Aplikaturako Estatistika		6	
Ekonomi Egitura		6	
3.	Kontabilitate Analisia	6	Enpresa Oinarriak
	Makroekonomia	6	
	Enpresaren Erregimen Fiskala	6	
	Zuzendaritza Estrategikoa: Enpresa Politika	6	
	Kontabilitate Egoeren Finkapena	6	
	Zuzendaritza Estrategikoa: Enpresaren Hazkundera eta Garapena	6	EAZn aurreratzea
	Ekonometria	6	
	HAUTAZKOA	6	
	HAUTAZKOA	6	
	HAUTAZKOA	6	
4.	HAUTAZKOA	6	Especialitateak
	HAUTAZKOA	6	
	Enpresa Zuzenbidea	6	
	Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak.	6	
	Enpresa Gestiorako Sistema Informatikoak	6	
	HAUTAZKOA (edo praktikak)	18	
	Gradu Amaierako Lana	12	

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

UPV/EHUren mugikortasun-programei esker, Fakultateak azken mailetako ikasleei beste zenbait unibertsitatetan urtebetez ikasteko 100 bat plaza eskaintzen dizkie.

ERASMUS programak gaur egun Europako 23 unibertsitatetan ikasteko aukera ematen du. Aurtengo ikasturtean gure fakultateko 40 ikasle daude unibertsitate horietan ikasketak egiten. LATINOAMERIKAKO hainbat unibertsitaterekin ere ikasleak trukatzeko programa bat daukagu. Azkenik, SICUE-SENECA programak Espainiako 12 unibertsitatetan 40 bat plaza eskaintzen ditu.

PRAKTIKAK

Praktikak egitea borondatezkoa da EAZko graduari. Dena den, fakultateak enpresetan praktikak egiteko programa oso eraginkorra du bere ikasleentzat. Praktika horietan parte hartzen duten ikasleek lan-merkatuan sartzeko balio handiko esperientzia lortzen dute, gaitasun praktikoak eta lan-esperientzia irabazten baitituzte.

Orain arte kanpoko praktikak burutzeko Fakultateak egin duen eskaintza ikasleen eskaerari erantzuteko adinakoa izan da, eta etorkizunean ere berdin egiten saiatuko da.

Praktiken programa batez ere azken mailako ikasleentzat da. Ikasleak gehienez 18 kreditu lortu ahal izango ditu praktikak egiteagatik.

LORTUTAKO GAITASUNAK

Titulazio honen helburua da gure ikasleak prestatzea, beren lanbidean jarduteko ahalmena emango dieten gaitasunak lor ditzaten. EAZko gradurako gaitasun hauek ezarri dira:

- Lortutako ezagutzak enpresen administrazio eta zuzendaritzarekin zerikusirik duen edozein lan-arlotan aplikatzea.
- Lortutako datuetan oinarriturik iritzi arrazoituak emateko gaitasuna izatea.
- Iturri desberdinak dituen informazioa bilatu, identifikatu, aztertu eta laburtzea enpresaren egoera eta hark izan dezakeen bilakaera baloratzeko gaitasun kritikoarekin; arrazoitutako iritziak ematea eta ekonomia, enpresa, gizartea eta etikarekin zerikusia duten gai garrantzitsuei buruzko erabakiak hartzea.
- Erabakiak behar bezala hartzea erraztuko duten enpresa barruko gai eta egoerei eta beste enpresa eta merkatuetako egoera jakinei buruzko txosten argi eta koherenteak prestatu, egin eta aurkeztea jende adituari nahiz aditua ez denari.
- Autonomia-maila handia lortu ahal izateko ikasteko gaitasunak garatzea, bai ondorengo ikasketei ekin ahal izateko, bai etengabeko aldaketa eta berrikuntzen mende dagoen arlo batean autoikaskuntzarako ahalmena izateko.
- Enpresa edo erakunde bat zuzendu eta antolatzea, haren kokapen lehiakorra eta erakunde-kokapena ulertu eta haren sendotasunak eta ahultasunak identifikatuz.
- Enpresa edo erakunde baten funtzio-arloetako edozeinetan integratzen jakitea eta enpresa barruan ematen zaion edozein gestio-lan erraztasunez egitea, ingurune desberdinetan eta kultura anitzeko erakundeetan lan egiteko gaitasunak izanda.
- Eskura dauden baliabideak eraginkortasunez esleitzea, informazio- eta komunikazio-teknologiak ikasketetan eta inguru profesionalean erabiliz.
- Idatziz nahiz ahoz komunikatzeko erraztasuna izatea.
- Talde-lanean aritzeko gaitasuna izatea, arduraz eta errespetuz, inizatiba eta lidergoa erakutsiz.
- Pentsamendu analitikorako eta hausnarketa kritikorako gaitasuna izatea.
- Sormena, berrikuntza eta jarrera ekintzailea garatzeko gaitasuna izatea.
- Atzerriko hizkuntza batean (batez ere ingelesez, frantsesez edo alemanez) komunikatzeko gaitasuna izatea.

GRADUATUAREN PROFILA- LANERATZEA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan graduatu diren guztiek gaitasuna dute nork bere enpresa sortzeko edo beste enpresa bateko partaide izanik bertako edozein eginkizun-arlotan kualifikazio eta ardura handiko karguetan lanean aritzeko. Ekonomiaren eta enpresen egoera ezagutu, aztertu, ulertu eta ondoren ekiteko duten gaitasunari esker, arlo pribatuan (enpresa, erakunde, finantza edo aholkularitzan) nahiz arlo publikoan (administrazio, udal, ospitale eta abarretan) jarduteko ahalmena dute, bai autonomia erkidegoan, bai estatuan, bai Europan... Halaber, beren ezagutza teoriko-praktikoei esker beste lan-irteera batzuk dituzte; besteak beste, goi mailako ikastegietan, ikerketa-erakundeetan eta abarretan aritu daitezke irakaskuntzan eta ikerkuntzan.

EZARPENAREN KRONOLOGIA

1. maila: 2010/2011

2. maila: 2011/2012

3. maila: 2012/2013

4. maila: 2013/2014

EAZko gradu berria ikasturtez ikasturte ezarriko da. Hala, 2010/11 ikasturtean EAZko graduaren lehenengo maila ezarriko da eta, aldi berean, ordeztuko den EAZko lizentziaturaren lehenengo maila desagertu egingo da. Berdin egingo da hurrengo mailekin; hala, 2013/2014 ikasturtean erabat ezarriko da EAZko gradua, eta erabat desagertuko da EAZko lizentziatura.

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUA

Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola
www.empresariales-vitoria.ehu.es

Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak titulazio bakarra eskaintzen du: Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzako gradua. Gradu horrek hiru espezializazio ditu: Marketina, Finantzak eta Enpresaren Gizarte Gestioa.

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzako graduatuak informazioa gestionatu, aztertu eta laburbiltzeko gaitasuna izango du, eta horrek enpresarekin lotutako erabakiak bideratu eta hartzeko aukera emango dio. Pertsonetik harremanak, taldean lan egiteko gaitasuna, sormena, aurrea hartzeko trebetasuna eta ezagutzak enpresan aplikatzeko gaitasuna dira enpresaren funtzionamendu-arloetako arazoei konponbidea emateko ahalmena emango dioten gaitasunak. Guzti hori, kalitateari begira eta betiere, ikuspegi etiko baten barruan. Horrez gain, titulatuak prestakuntza izango du ekonomia-arloan eta enpresarekin lotuta dagoen zuzenbidearen arloan, kontabilitate- eta zerga-administrazioaren esparruko eta giza baliabideen arloko diziplinak menperatuko ditu eta finantza-, merkataritza- eta antolakuntza-arloetan zuzendari bati dagozkion erantzukizunak bere gain hartzeko gaituta egongo da. Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzako graduatuaren beste trebetasun batzuk izango dira gestio-informatikako baliabideak erabiltzen jakitea eta euren ama hizkuntzan eta atzerriko hizkuntza baten ahozko eta idatzizko komunikazioa menperatzea. Horretarako, egun indarrean dauden trukerako programek, zenbait irakasgai ingelesez egin ahal izateak edo gradu-amaierako lana osorik nahiz zati baten egiteko aukerak, ikasleen prestakuntza eleanitza izatea ahalbidetzen dute eta tituluaren kalitatea hobetu egiten da gero eta globalizatuago dauden ingurune ekonomikoetan asko baloratzen diren hizkuntzei esker.

Informazio- eta komunikazio-teknologiei (IKT) dagokienez, ikasleak informazio- eta komunikazio-teknologia mota desberdinak erabiltzen ikasi beharko du. Ildo horretatik, zenbait irakasgai gainditzeko IKT espezifikoak menperatzeaz gain (hala nola, enpresa-simulazioko programak edo enpresako datu-baseen sistemak), ikasleak bestelako zeharkako baliabide eta gaitasunak erabili beharko ditu titulazioan zehar. Horretarako, ikastegiak, informatikako praktikak egin ahal izateko bi informatika-gela izateaz gain, informatika-gela irekia dauka, eta ikastegiko ikasle guztiak sar daitezke bertara.

Ezaugarri guzti horiek, gaitasun kritiko eta autokritikoarekin batera, malgutasun handia ematen diete graduatuei eta malgutasun horrek egoera berrietara moldatzea eta ingurune desberdinetan eta kultur anitzeko erakundeetan lan egitea ahalbidetzen die.

Horrez gain, ikasleak, ikastegiko irakasle baten tutoretzapean, lan original bat diseinatu, egin eta aurkeztu beharko du. Lan hori azterketa tekniko bat edo ikerketa-proiektu bat izango da, eta ikasleak bertan aplikatuko ditu aurretiaz lortutako ezagutza eta gaitasunak.

SARRERAKO PROFILA

Unibertsitateko ikasle berriek errealitate ekonomikoa, enpresa eta horren gizarte-inguruneagatiko interesa izan behar dute. Halaber, zenbakiekin trebeak izan behar dira eta hizkuntza matematikoa aski menperatu behar dute. Irakurtzeko ohitura eta ahozko zein idatzizko ulermen eta adierazpen egokia izango dituzte. Banaka nahiz taldeka lan egiteko gai izango dira, euren denbora modu egokian antolatu eta planifikatuz. Teknologia berriak erabiltzeko prest egongo dira eta informazioa bilatu, aukeratu eta egituratzeko gai izango dira. Horrez gain, erabakiak arduraz hartzeko beharrezko heldutasuna eta sen ona izango dute.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduak 240 ECTS kreditu ditu, lau mailatan berdin banatuta daudenak. Maila bakoitzeko edukien araberako banaketa honako hau da:

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Totala
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	48				48
Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizko irakasgaiak	12				12
Nahitaezko irakasgaiak		60	42	18	120
Hautazko irakasgaiak			18	30	48
Gradu-amaierako lana				12	12
Maila bakoitzean, guztira	60	60	60	60	240

LEHENENGO MAILAKO ENBORREKO IRAKASGAIK

- Kontabilitaterako Sarrera.
- Enpresaren Ekonomia: Hastapenak.
- Matematika I.
- Ekonomiaren Hastapenak I: Mikroekonomiaren Oinarriak.
- Zuzenbidearen Hastapenak. Finantza Kontabilitatea.
- Enpresaren Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza.
- Matematika II
- Ekonomiaren Hastapenak II Makroekonomiaren Oinarriak.
- Historia Ekonomikoa.

BIGARREN MAILAKO ENBORREKO IRAKASGAIK

- Estatistika eta Datuen Analisia.
- Mikroekonomia.
- Merkatal Zuzendaritza: Hastapenak.
- Finantza Eragiketen Matematika
- Kostuen Kontabilitatea.
- Enpresari Aplikaturako Estatistika.
- Egitura Ekonomikoa.
- Goi Mailako Finantza Kontabilitatea.
- Finantza Zuzendaritza: Finantziarioa.
- Merkatal Zuzendaritza: Politikak.

HIRUGARREN MAILAKO ENBORREKO IRAKASGAIK

- Enpresaren Erregimen Fiskala.
- Kontabilitate Analisia.
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika.
- Makroekonomia.
- Ekonometria.
- Kontabilitate Egoeren Finkapena.
- Zuzendaritza Estrategikoa: Enpresa Hazkundera eta Garapena.

LAUGARREN MAILAKO ENBORREKO IRAKASGAIK

- Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak.
- Enpresaren Zuzenbidea.
- Enpresa Gestiorako Sistema Informatikoak.

GRADU AMAIERAKO LANA

Ikasleak lau lan-motaren artean aukeratu ahalko du:

- Negozio-plana
- Aholkularitza-lana
- Ikerketa-lana
- Enpresetan praktikak egin ondorengo lana

HAUTAZKO EDUKIAK: MARKETINGEKO MINORRA

- Merkataritza Komunikazioa.
- Merkataritza Ikerketa.
- Nazioarteko Marketinga.
- Enpresa Simulazioa Marketingean.
- Banaketa eta Salmenten Zuzendaritza.

HAUTAZKO EDUKIAK: FINANTZAKO MINORRA

- Finantza Merkatuen Gestioa: Errenta Finkoa.
- Finantza Merkatuen Gestioa: Errenta Finkoa: Errenta Aldakorra eta Eratorriak Enpresen - Balioespena.
- Nazioarteko Finantza Gestioa.
- Merkataritza Zuzendaritza: Finantza Erakundeen Gestioa.

HAUTAZKO EDUKIAK: ENPRESAREN GIZARTE GESTIOKO MINORRA

Gizarte Ekonomiaren Eta Enpresaren Gizarte Erantzukizuna: Sarrera
Enpresa Eta Garapen Jasangarria
Enpresaren Gizarte Dimentsioaren Gestioa.
Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren Gestioa. Gizarte Erantzukizunaren Lurralde Gestioa.

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzako graduaren prestakuntza-programak 30 nahitaezko irakasgai ditu, bakoitza 6 ECTS kreditukoa, gradu-amaierako 12 ECTS kredituko lan bat eta 48 hautazko kreditu. Azken horietatik 30 ECTS espezialitate edo minor berekoak badira, graduatuak aipamen espezifikoak izango du bere graduatu-tituluan.

ESPEZIALITATEAK

Gradu hau egiten duten ikasleek minor izena hartzen duten prestakuntza-lerroetakoren baten espezializatzeko aukera izango dute. Ildo horretatik, Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak (UPV/EHU) hiru espezialitate proposatu ditu: marketinga, finantzak eta enpresaren gizarte-gestioa.

Marketingeko minorra

Marketinga eta enpresaren merkataritza-gestioa enplegu-emaleek eta ikasleek asko eskatzen duten espezializazio-ildo da. Minor honek marketingarekin lotutako edukiak biltzen ditu, hala nola, merkataritza-ikerketa, banaketa, salmenten gestioa eta administrazioa, nazioarteko publizitatea edo marketinga, guztiak ere merkataritza-zuzendaritzako eginkizunekin lotutako gaitasunak garatzeari begira orientazioa emango dutenak.

Finantzako minorra

Minor honek enpresaren eta finantza-ekonomiaren arteko loturan jartzen du enfasia: merkatuak, finantza-aktiboak eta finantza-erakundeak. Ikasleak finantza-baliabideak modu egokian gestionatzeko gaitasun espezifikoak garatuko ditu: finantziarioa lortzeko zein irizpide erabili, non lortu, zenbat, nola inbertitu, inbertsioak nola gauzatu, horiek nola hierarkizatu, interes-tasaren arriskua kontrolatu, kanbio-tasarena, kredituarena...etab. Azken finean, finantzaren ikuspegitik enpresaren eraginkortasuna hobetzeko tresnak erabiltzen jakingo du.

Enpresaren Gizarte Gestioko minorra

Enpresaren gizarte-erantzukizunarekin zerikusirik duten gaiak —hala nola, gizarte-erantzukizun korporatiboak, jasangarritasunak, ingurumen-orekak, berdintasun eta integrazioak, etab.— gaur egun pizten duen jakin-mina ase nahi du minor honek. Foro, erakunde eta ospe handiko atzerriko unibertsitate askotan ahaleginak egiten dira enpresek beren inguruan eragiten dituzten ondorioak hobetzeko. Gure inguruan, ordea, gai honen inguruko prestakuntza espezifikoa nahiko eskasa da.

ELEANIZTASUNA

Euskara

Nahitaezko irakasgai guztiak gazteleraz eta euskaraz emango dira. Horrez gain, Euskararen Plan Gidariak ahozko eta idatzizko trebetasunarekin lotutako bi hautazko irakasgai eskaintzen ditu:

EUSKARAZKO KOMUNIKAZIOA: EKONOMIA, ENPRESA ETA LAN HARREMANAK. EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERA

Atzerriko hizkuntza

Hirugarren hizkuntza batean (normalean ingelesa) komunikatzeko gaitasunarekin lotutako titulazioak ematen dituen trebetasunei dagokienez, hizkuntzaren jakintza-maila egiaztatzeko hiru bide egongo dira: (1) Erasmus Programa, (2) gradu-amaierako lana osorik edo zati baten atzerriko hizkuntza baten aurkeztea eta (3) kreditu-kopuru jakin bat atzerriko hizkuntzan egitea.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Eskolak ikasleei UPV/EHUz kanpoko ikastegietan, Espainia-koetan nahiz atzerrikoetan, euren prestakuntza osatzeko aukera desberdinak ematen dizkie. Ildo horretatik, besteak beste, honako mugikortasun-programak azpimarratu daitezke:

- Erasmus programa. Unibertsitateko ikasketak lauhileko batez edo ikasturte batez atzerriko unibertsitate baten (Alemania, Finlandia, Italia, Frantzia, Hungaria) egiteko aukera ematen du.
- Sicue-Séneca programa. Unibertsitateko ikasketak lauhileko batez edo ikasturte batez Espainia-ko unibertsitate batean egiteko aukera ematen du.
- UPV/EHU-AL programa. Programa horrek unibertsitateko ikasketen zati bat Latinoamerikako unibertsitate baten egiteko aukera ematen du. Gaur egun hitzarmenak ditugu Argentina, Bolivia, Brasil, Txile eta Ekuadorreko unibertsitateekin trukeak egiteko.

PRAKTIKAK

Osagarri honek Enpresa Antolakuntza eta Zuzendaritzako ikasleentzat komenigarria den prestakuntza praktikoa sendotzen du.

Praktika hauek ez dira nahitaezkoak. Alabaina, enpresetan praktikak egitea oso gomendagarria da. Aipatzekoa da praktikak egiten dituzten ikasleetako asko praktika horiek egin dituzten enpresetan kontratatzen dituztela.

Eskolarekin praktika-programan lankidetzan diharduten entitate eta erakundeetako batzuk honako hauek dira:

Caja Vital Kutxa	Test media	Caja Burgos
Euskadiko Kutxa	TDM	Caja Rural de Navarra
Arabako Foru Aldundia	Corsan Corvian	Ipar Kutxa
Decathlon	Telyco	Bankinter
Gamesa	Renta4	Eroski
Pulisor	Vodafone	Corredurías de seguros
Euskotécnica	Banco Guipuzcoano	Caja de Navarra

LORTUTAKO GAITASUNAK

Ikasleak titulazioan zehar garatuko dituzten **gaitasun orokorrak** honako hauek dira:

- Enpresa edo erakunde bat zuzendu eta antolatzea, haren kokapen lehiakorra eta erakunde-kokapena ulertu eta haren sendotasunak eta ahultasunak identifikatuz.
- Enpresa edo erakunde baten funtzio-arloetako edozeinetan integratzen jakitea eta enpresa barruan ematen zaion edozein gestio-lan erraztasunez egitea, ingurune desberdinetan eta kultura anitzeko erakundeetan lan egiteko gaitasunak izanda.
- Iturri desberdinak dituen informazioa bilatu, identifikatu, aztertu eta laburtzea, enpresaren egoera eta hark izan dezakeen bilakaera baloratzeko gaitasun kritikoarekin, arrazoitutako iritziak ematea eta ekonomia, enpresa, gizartea eta etikarekin zerikusia duten gai garrantzitsuei buruzko erabakiak hartzea.
- Eskura dauden baliabideak eraginkortasunez esleitzea, informazio- eta komunikazio-teknologiak ikasketetan eta inguru profesionalean erabiliz.
- Erabakiak behar bezala hartzea erraztuko duten enpresa barruko gai eta egoerei eta beste enpresa eta merkatuetako egoera jakinei buruzko txosten argi eta koherenteak prestatu, egin eta aurkeztea gaztelaniaz, euskaraz edo adierazten diren atzerriko hizkuntzetan.
- Etengabe eta bakarka aldatuz eta berrituz doan esparru bateko ezagutza eta teknika berriak ikastea.

Aipatutako sei gaitasun orokor horiek titulazioko modulu eta eduki desberdinetan garatuko dira. Horiez gain, **eduki eta modulu bakoitzerako gaitasun espezifikoak** ere definitu dira.

GRADUATUAREN PROFILA

Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzako gradua lortzen duen pertsonak enpresa-erakundeak ingurune irekietan elkarri eragiten dioten sistema konplexu moduan ikusiko ditu. Graduatuak prestakuntza osoa eta erabilera askokoa izango du, enpresetan eta bestelako erakunde publiko eta pribatuetan gestio-lanekin zerikusia duten hainbat eginkizun betetzeko edo bere enpresa-proiektua abian jartzeko gaitasunak emango dizkiona. Titulatuak enpresaren arlo desberdinetan erabiltzen diren kontzeptu eta teknikak erabiliko ditu eta horien eta antolakuntzaren helburu orokorren artean dauden harremanak zeintzuk diren ulertuko du. Informazioa gestionatu, aztertu eta laburtzeko gaitasunak izango ditu, enpresa-erabakiak bideratu eta hartzeko ahalmena emango diona. Ziurgabetasun-egoeretan erabakiak hartu eta aukerak eta mehatxuak identifikatu eta horiei aurre hartzeko gai izango da. Horrez gain, gai izango da baliabide materialak eta giza baliabideak eraginkortasunez esleitzeko, informazioa gestionatzeko, helburuak ezartzeko, lortutako emaitzak ebaluatzeko eta bere ideiak behar bezala komunikatzeko. Pertsonetikiko harremanak, taldean lan egiteko gaitasuna, sormena, aurrea hartzeko trebetasuna eta ezagutzak enpresan aplikatzeko gaitasuna dira enpresaren funtzionamendu-arloetako arazoei konponbidea emateko ahalmena ematen dioten gaitasunak. Guzti hori, kalitateari eta etengabeko hobekuntzari begira eta betiere, ikuspegi etiko baten barruan. Horrela ekonomiaren hazkunde jasangarriari lagunduko dio eta gizartearekiko erantzukizuna erakusten duen hiritar bat bezala portatuko da.

Ezaugarri guzti horiek, gaitasun kritiko eta autokritikoarekin batera, malgutasun handia ematen diote graduatuari eta malgutasun horrek egoera berrietara moldatzea eta ingurune desberdin eta dinamikoetan lan egitea ahalbidetzen diote. Ildo horretatik, Ekonomisten Euskal Elkargoak ziurtatu du titulazio-proposamen honek indarrean dagoen araudi profesionalak zehaztutako baldintzak betetzen dituela, edukiei, egiturari eta garatu beharreko gaitasun eta trebetasunei dagokienez. Horregatik guztiagatik, titulazio honetan sartzen diren ikasleek, kasuan kasuko araudi profesional eta elkargo-araudia betez ekonomista moduan jarduteko Estatutu Profesionalak zehazten dituen gutxieneko prestakuntza-baldintzak izango dituzte.

LANERATZEA

Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak proposatu duen Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzako gradua gizartearen eta enpresen eskakizunekin bat dator, titulazio-proposamena bermatzen duten kanpoko hainbat erakundek (Arabako Merkataritza Ganbera, Ekonomisten Euskal Elkargoa, SEA, Caja Vital Kutxa eta zenbait erakunde publiko) egindako txostenek erakusten duten bezala.

UPV/EHUrentzat argitaratu den laneratzeari buruzko azken ikerketaren arabera (EGAILAN):

- Titulazio ekonomiko-juridikoen jarduera-tasa %96 da.
 - Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzan lizentziatuen okupazio-tasa %91 da gizonentzat eta %94 emakumeentzat. Tasa hori unibertsitateko titulazioen batez besteko tasa baino altuagoa da.
 - Halaber, 2003ko promozioan enplegua lortu duten titulatuak honako titulazioetakoak izan dira: (1) Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritza (750 inguru) eta (2) Enpresa Zientziak (580 inguru).
 - Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzako lizentziatuen **langabezia-tasa** %8 da gizonentzat eta %5 emakumeentzat. Kopuru horrek langabezia gutxien duten titulazioen artean jartzen du aipatutako lizentziatura.

Hitz batean, errealitateak baieztatu egiten digu bai enplegu-emalleen, bai etorkizuneko ikasleen artean Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzako graduek duen harrera ona.

EZARPENAREN KRONOLOGIA

Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritzako gradua 2010-11 ikasturtean hasiko da ezartzen, eta mailaz mailako ezarpen-sistema izango da.

EAZ graduaren maila	2010-2011	2011-12	2012-13
1.	✓	✓	✓
2.		✓	✓
3.			✓
4.			✓
Diplomatura EAZ gradura egokitzeko ikasturtea	✓	✓	✓

FINANTZA ETA ASEGURUETAKO GRADUA

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
www.ekonomia-enpresa-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Finantza eta Aseguruetao Graduaren helburu nagusia da ikasleak prestatzea aseguru eta finantzen arloko lanak eta funtzioak bete ditzaketen profesional jantziak izateko. Graduatua gai izango da zeregin horiek betetzeko herri mailan, estatu mailan nahiz nazioartean.

Ikasleari prestakuntza osoa emango zaio arlo horietan. Horretarako, diziplina arteko ikuspegia emango zaie ikasketei, arlo hauek aplikatzen diren eremuetatik ere edanez, hots, ekonomia eta enpresa-ikasketetatik. Beraz, ikasleak bere tituluaren oinarritzko gaitasunak eta gaitasun espezifikokoak eskuratzeaz gain, zeharkako gaitasunak ere bereganatuko ditu.

Graduatua gai izan behar da merkatuen finantza eta aktuariotza-arloak hobetzen, garatzen eta ondo funtzionatzen laguntzeko. Gai izan behar da baliabideak esleitzeko, graduoko gaiei buruzko edozelako informazioa antolatzeke, pertsonak aukeratu eta motibatzeke, aholkua emateko bai adituei eta bai adituak ez direnei graduari lotutako gaitetan, erabakiak hartzeke, ezarritako helburuak betetzeko eta emaitzak ebaluatzeke.

Ikastaldian barrena ikasleak antolatzeke eta erabakiak hartzeke gaitasun handia eskuratu beharko du. Maila indibidualean haren kualitateen artean nabarmenduko dira: aktiboa izatea, ekimen handikoa, oso lehiakorra, sormen handikoa eta produktu berrien diseinatzaile trebea.

Ikasleei prestakuntza akademiko sendoa emango zaie. Horretarako, ikasketak zehazterakoan alde batetik helburu orokor batzuk ezarri ditugu, graduaren ikuspegi orokorra gogoan izanda, baina horretaz gain ikuspegi espezializatuagoa ere eman diogu, aktuariotza eta finantza arlotan, hartara ikasleek behar den espezializazioa izan dezaten Europaren mugikortasun-eskariak asetzeari begira.

SARTZEKO PROFILA

Finantza eta Aseguruetao Gradua ondo egin nahi duen Batxilergoko edozein ikasleak oinarritzko ezagutzak izan behar ditu Aljebraz, Kalkuluaz, ingelesaz eta gehien erabiltzen diren aplikazio informatikoez. Gainera, honako trebetasun hauek izan behar ditu: mintzaera eta idazkera ona, matematika, estatistika eta zenbaketa-tresnak erabiltzeke gaitasuna eta erraztasuna, azterketa-, hausnarketa-, sintesi- eta kritika-gaitasuna, ulertzeke eta abstrakziorako erraztasuna, ikasteko interesa eta ikasteko ohitura onak, tokiko, eskualdeko, nazio barruko eta nazioarteko arazo ekonomiko, sozial eta politikoei buruzko interesa eta errespetuz taldean lan egiteke gogoia.

Finantza eta Aseguruetao Graduan sartu nahi dutenengandik espero diren gaitasunak honako hauek dira:

- Bere ingurunean erraztasunez komunikatzea eta irakaskuntza-ikasuntza prozesuan aktiboki parte hartzeke jarrera erakustea.
- Bigarren Hezkuntzan lortutako ezagutzak (Matematika, hizkuntzak, Gizarte Zientziak etab.) eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erraztasunez erabiltzea prestakuntzan emaitza onak lortzeari begira.
- Ideiak aztertu, laburtu eta argudio koherenteak erabiliz iritziak ematea norberaren ezagutzan aurrera egiteke.
- Ingelesez irakurtzea hasiera-hasieratik eskuragarri dagoen informazio guztira heldu ahal izateke.
- Ikasteko diziplina, bakarka eta taldeka lan egiteke ahalmena, komunikatzeke erraztasuna, erantzukizuna eta heldutasuna edukitzea.

Gaitasun horiek, Batxilergoa gainditu ondorengo gaitasunetatik datozenak, ez dira derrigorrez sartzeko baldintzat hartu behar, baina kontuan hartu behar dira unibertsitatera sartu nahi duen edozein ikasle orientatzerako orduan.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Mota	1.a	2.a	3.a	4.a	GUZTIRA
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	48				48
Beste jakintza-adarretako oinarrizko irakasgaiak	12				12
Nahitaezkoak		60	42	18	120
Gradu amaierako lana				12	12
Kanpoko praktikak*					
Hautazkoak			18	30	48
Guztira	60	60	60	60	240

*Kanpoko praktikak: borondatezkoak dira eta 4. mailan egiten dira

Oinarrizko eta nahitaezko irakasgai guztiak gaztelaniaz eta euskaraz ematen dira.

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Irakaskuntza bost modulutan antolaturik dago. Lehenengo hiru moduluak seina kreditu izango dituzten nahitaezko irakasgaiak osaturik daude; laugarren moduluak, berriz, hautazko irakasgaiak, enpresako praktikek eta aitopene-kredituek osatzen dute. Azkenik, bosgarren moduluak Gradu Amaierako Lanari dagokio. Hala, graduako ikasketen plangintza honela zehazturik dago:

	Irakasgaiak	ECTS	Moduluak
1.a	Ekonomiaren Hastapenak I: Makroekonomiaren Oinarriak	6	Oinarrizko Irakasgaiak
	Matematika I	6	
	Kontabilitaterako Sarrera	6	
	Enpresaren Ekonomia: Sarrera	6	
	Zuzenbiderako Sarrera	6	
	Ekonomiaren Hastapenak II: Makroekonomiaren Oinarriak.	6	
	Matematika II	6	
	Finantza Kontabilitatea	6	
	Enpresaren Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza	6	
	Ekonomiaren Historia	6	
2.a	Kostuen Kontabilitatea	6	Enpresa Analisisirako Tresnak
	Merkataritza Zuzendaritza: Sarrera	6	
	Estatistika eta Datuen Analisia	6	
	Finantza Eragiketen Matematika	6	
	Mikroekonomia	6	
	Biometria Aktuariala	6	Finantza eta Aseguruaren Analisisirako Oinarriak
	Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa	6	
	Estatistika Aktuariala: Erregresioa	6	
	Finantza Matematika: Banku eta Burtsa Eragiketak	6	
Aseguruaren Teoria Orokorra	6		
3.a	Kontabilitate Analisia	6	Enpresa Analisisirako Tresnak
	Makroekonomia	6	
	Erregimen Fiskala	6	
	Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika	6	Finantza eta Aseguruaren Analisisirako Oinarriak
	Matematika Aktuariala: Bizitza	6	
	Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak.	6	
	Matematika Aktuariala: Sarrera	6	Espezialitateak
	HAUTAZKOA	6	
	HAUTAZKOA	6	
4.a	HAUTAZKOA	6	Finantza eta Aseguruaren Analisisirako Oinarriak
	HAUTAZKOA	6	
	Banku eta Burtsa Aseguruaren Zuzenbidea	6	
	Gizarte Segurantzaren Ekonomia eta Teknika	6	
	Finantza Matematika: Goi Mailako Analisia	6	
	HAUTAZKOA (edo praktikak)	18	
	Gradu Amaierako Lana	12	

Gradu guztiak oraindik egiaztatu gabe daude

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

UPV/EHUren mugikortasun-programei esker, fakultateak azken mailetakoko ikasleei beste zenbait unibertsitatetan urtebetez ikasteko 100 bat plaza eskaintzen dizkie.

ERASMUS programak gaur egun Europako 23 unibertsitatetan ikasteko aukera ematen du. Aurtengo ikasturtean gure fakultateko 40 ikasle daude unibertsitate horietan ikasketak egiten. LATINOAMERIKAKo hainbat unibertsitaterekin ere ikasleak trukatzeko programa bat daukagu. Azkenik, SICUE-SENECA programak Espainiako 12 unibertsitatetan 40 bat plaza eskaintzen ditu.

PRAKTIKAK

Praktikak egitea borondatezkoa da Finantza eta Aseguruetakoko Graduan. Dena den, fakultateak enpresetan praktikak egiteko programa oso eraginkorra du bere ikasleentzat. Praktika horietan parte hartzen duten ikasleek lan-merkatuan sartzeko balio handiko esperientzia lortzen dute, gaitasun praktikoak eta lan-esperientzia irabazten baitituzte.

Orain arte kanpoko praktikak burutzeko fakultateak egin duen eskaintza ikasleen eskaerari erantzuteko adinakoa izan da, eta etorkizunean ere berdina egiten saiatuko da.

Praktiken programa batez ere azken mailako ikasleentzat da. Ikasleak gehienez 18 kreditu lortu ahal izango ditu praktikak egiteagatik.

GRADUAN ESKURATZEN DIREN GAITASUNAK

Titulazio honen helburua da gure ikasleak prestatzea beren lanbidean jarduteko behar diren gaitasunak lor ditzaten. Finantza eta Aseguruetakoko Graduan gaitasun hauek eskuratuko dituzte:

- Ikasleak gai izatea graduan eskuratutako ezagutzak ulertzeko eta ezagutza horiek finantza eta aseguruarekin zerikusia duen edozein arlotan erabiltzeko.
- Ikasleak gai izatea informazio eta datu errealetan oinarritutako iritzi eta txosten arrazoituak emateko.
- Ikasleak gai izatea finantza eta aseguruaren arloko eragiketak bildu, aztertu eta interpretatzeko, betiere etikaz jokatzuz.
- Ikasleak gai izatea finantza eta aseguruaren arlo guztietan modu egokian eta sendotasunez komunikatzeko, informazioa, ideiak, arazoak eta irtenbideak adieraziz .
- Ikasleak gai izatea erabakiak hartzeko finantza eta aseguru-eragiketei buruzko erabakiak hartzearen inguruan.
- Ikasleak gai izatea finantza eta aseguru-merkatuen ikerketak eta analisiak egiteko.
- Ikasleak gai izatea bezeroari eta merkatuari aholkuak eta argibideak emateko.
- Ikasleak gai izatea finantza- edota aseguru-estrategiak eta politikak gauzatzeko.
- Ikasleak gai izatea finantza- edota aseguru-produktu berriak diseinatzeko.
- Ikasleak gai izatea finantza- edota aseguru-produktu berriak diseinatzeko.
- Ikasleak gai izatea enpresako finantza-sailaren erabakiak enpresako beste sail batzuen erabakiekin koordinatzeko.
- Ikasleak gai izatea finantza eta aseguru-erakundearen estaldura kontrolatzeko.
- Ikasleak gai izatea idatziz nahiz ahoz komunikatzeko erraztasuna.
- Ikasleak gai izatea talde-lanean aritzeko, arduraz eta errespetuz, inizatiba eta lidergoa erakutsiz.
- Ikasleek gaitasuna izatea pentsamendu analitikorako eta hausnarketa kritikorako.
- Ikasleak gai izatea sormena, berrikuntza eta jarrera ekintzailea garatzeko.
- Ikasleak gai izatea atzerriko hizkuntza batean (batez ere ingelesez, frantsesez edo alemanez) komunikatzeko.

GRADUATUAREN PROFILA – LANERATZE MAILA

Gure graduatu guztiak gai izan behar dira finantza eta aktuariotzaren arloko arrisku-eragiketetan bizitzan suerta dakizkiekeen egoerei aurre egiteko.

Arrisku-egoeretan erabakiak har ditzaketen adituak dira, bai enpresa publikoetan eta bai pribatuetan. Gai izan behar dira enpresen kaudimena kontrolatzeko, uneoro Europar Batasunak ezarritako mugen barruan egon dadin (ikus Kaudimena II). Edozein finantza edo aktuariotza-eragiketak dakarren arrisku maila aztertu, ebaluatu eta horren arabera aholkua emateko gai izan behar da, eragiketa diseinatzen denetik burutzen den arte.

Europako herrialdeetako legeriak eta gureak eskusibotasuna ematen diote aktuarioaren lanbideari, bai eta eginkizun garrantzitsuak ere aseguruaren eta gizarte-aurreikuspenaren arloan, tartean ziurtagiriak egitea, ondorio publikoekin, aseguru-etxeen eta gizarte-aurreikuspenetarako tresnen kaudimenaz.

Aktuarioen erantzukizun profesionalak Espainian honako legeek arautzen dituzte: azaroaren 8ko 30/95 Legeak, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Gainbegiratzeari buruzkoak eta azaroaren 20ko 2486/98 EDko Arautegiak, lege hori garatu zuenak; era berean, Aseguruaren eta Pentsio Fondon Zuzendaritza Nagusiak emandako zirkularrek eta erabakiek ere. Arau horiek guztiek aktuarioen eskumenak zehazten dituzte, bai aseguru orokorren arlokoak eta bai bizitza-aseguruaren arlokoak ere (www.dgsfpmineco.es).

Horrela, Arautegiko 29.1. eta 77.1. artikuluetan xedatzen da aseguru-etxeen oinarri teknikoak eta aurreikuspenak aseguru-etako aktuario batek egin eta kalkulatu behar dituela (www.actuarios.org).

Pentsio-planen dagokienez, azaroaren 29ko 1/2002 legegintzako EDan ere (Pentsio Plan eta Fondoak Arautzeko Legearen Testu Bategina eta haren arautegi bidezko garapena onartu zuen dekretuan, alegia) lantzen da gai hau. Otsailaren 20ko 304/2004 EDan (legea garatu zuen dekretuan) aurreikuspen kolektiboen arloan aktuarioek daukaten erantzukizun profesionala azaltzen da, beste lanbide batzuenekin batera. Esaten da hari dagokiola pentsio-planen berrikuspena egitea finantza eta aktuariotzaren ikuspegitik, haien kaudimenari ere erreparatuz (www.dgsfpmineco.es).

Horrek guztiak erakusten du aktuarioaren lanak gizartearentzat daukan interesa, lege, arautegi eta xedapenetan islatzen dena.

EZARPENAREN KRONOLOGIA

- 1. maila:** 2010/11;
- 2. maila:** 2011/12;
- 3. maila:** 2012/13;
- 4. maila:** 2013/14

GEOGRAFIKO ETA LURRALDE ANTOLAKUNTZAKO GRADUA

Letren Fakultatea
www.letrak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Ikasketa hauen helburua da geografiaren eta lurralde-antolakuntzaren arloko gaien eduki nagusien inguruko prestakuntza orokorra eta osoa ematea eta arlo horretako oinarri epistemologikoak eta ikerketa-metodoak garatzea. Geografiako graduak ematen duen prestakuntzak honako hauek ahalbidetzen ditu:

- Graduatuak gai izatea ezagutza teoriko, metodologiko eta instrumentalak analisi integratuan, espazio-prozesu eta arazoaren interpretazioan eta lurralde-diagnosietan.
- Graduatuak gai izatea lurraldeen aniztasuna eta konplexutasuna interpretatzeko, baita ingurumen-fenomenoen eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-fenomenoen arteko loturak ere.
- Graduatuak gai izatea lurraldean eta bere gestioan lan egin eta esku hartzeko, prestakuntza geografikoaren alderdi esperimentalak eta aplikatua indartuz.
- Graduatuak laneko tekniken ezagutzarekin lotutako gaitasun espezifikoak edukitzea, bereziki informazio geografiko eta kartografikoa lortu, landu eta adierazteko, baita landa-lanarekin lotutakoak ere.

SARRERAKO PROFILA

Geografia eta Lurralde Antolakuntzako ikasleek geografia orokorreko oinarrizko ezagutzak eta ezagutza instrumentalak izateaz gain, antzeko gaiak ere ezagutu behar dituzte.

Horrez gain, bereziki interesgarria da honako gaitasun hauek izatea: arrazoiketa eta abstrakzioarako gaitasuna, ikerketarako eta datuen antolaketarako inizatiba eta dohaina, orientatzeko gaitasuna eta azterketarako eta sintesirako trebetasuna.

Ezinbestekoa da Geografia eta Lurralde Antolakuntzan sartzen diren ikasleek jakingura izatea, kezka intelektualak edukitzea eta lurralde-, kultura- eta gizarte-aniztasuna ezagutzeko interesa izatea. Horrez gain, ikasleek mintzaera eta idazkera zuzena izan behar dute eta irakurtzea gustatu behar zaie. Halaber erabiltzaile-mailako informatika-ezagutzak izan behar dituzte.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Totala
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	18	18	-	-	36
Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizko irakasgaiak	18	6	-	-	24
Nahitaezko irakasgaiak	24	36	30	36	126
Hautazko irakasgaiak	-	-	30	18	48
Gradu-amaierako lana	-	-	-	6	6
Maila bakoitzean, guztira	60	60	60	60	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Geografia eta Lurralde Antolakuntzako gradua geografia eta antolakuntzako edukien inguruan ardatzuta dago. Egin behar diren oinarrizko eta nahitaezko irakasgaiak honako hauek dira:

Lehenengo maila

Geografia Ekonomikoa
Europako Geografia (*)
Egungo Munduaren Geografia (*)
Geomorfologia
Oinarrizko Kartografia
Estatistika
Arteen Hizkuntzaren Hastapenak (*)
Arte-estiloen Historia (*)
Munduaren Historia Ekonomikoa (*)
Mintzaera eta Idazkera I (*)

Bigarren maila

Baserri-Geografia
Espainiako Geografia
Populazioaren Geografia
Biogeografia
Kartografia Tematikoa
Klimatologia
Egungo Mundua (*)
Mundu Garaikidearen Oinarriak (*)
Espainiako Historia Ekonomikoa (*)
Idea Filosofikoen Historia (*)

Hirugarren maila

Hiri-Geografia
Euskal Herriko Geografia
Gizarte-ikerketarako Metodoak eta Teknikak
Hiri-Antolamendua
Geografi Informaziorako Sistemak

Laugarren maila

Ingurumen-eraginaren Balioespena
Lurralde-antolakuntzarako Tresnak
Lurralde-antolakuntza
Lurralde-antolakuntza, Administrazioa eta Ingurumen-legeria
Medio Fisikoaren Plangintza

Hirugarren eta laugarren mailan ikasleek hautazko irakasgai eta borondatezko praktiken bitartez gainditu beharreko 48 kreditu izango dituzte.

Hautazko irakasgaiak:

Ura eta Plangintza
Paisaiaren Análisisa eta Balioespena
Espazio Emankorrak
Fotointerpretazioa eta Teledetekzioa
Geologia
Geografia Informaziorako Sistemen Hedapena
Landa-eremuen eta Natura-guneen Análisisa eta Gestioa
Kartografia eta Arriskuen Ebaluazioa
Ingurumen-Hezkuntza eta Gizarte-praktikak
Ondarearen Gestioa eta Legegintza (*)
Elikadura-sistemaren Soziologia
Euskal Herriaren Historiaurrea
Euskal Herriaren Antzinaroko Historia (*)
Euskal Herriaren Erdi Aroko Historia (*)
Euskal Herriaren Historia Garaikidea
Euskal Herriaren Historia Ekonomikoa
Euskal Herriaren Aro Berriko Historia
Ingeles Teknikoa (*)
Historia, Arte eta Geografiako Terminologia (*)

(*) Euskarazko eskaintza

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

SICUE, EIP-ERASMUS, UPV/EHU-AL ETA BESTE NORAKO BATZUK programen barruan egiten diren mugikortasun-ekintzen helburu nagusia da ikasleek aukera izan dezatela euren titulazioari dagozkion gaitasun orokor eta zehatzak lortzeko, Espainiako, Europako, Latinoamerikako eta/edo munduko beste herrialde batzuetako unibertsitateetako ikasle eta irakasleekin bizi diren artean.

Mugikortasun-programak UPV/EHUko araudi orokorrak arautuko ditu eta Letren Fakultateko Mugikortasuneko Dekanordetzak koordinatuko ditu.

PRAKTIKAK

Kanpoko praktikak borondatezkoak dira eta horien helburua da lortutako gaitasunak esparru profesional zehatz baten aplikatzea.

Ikasleek egiten dituzten kanpoko praktikak hautazko 12 ECTS krediturekin baliozkotu ahalko dira gehienez. Kanpoko praktikak UPV/EHUko araudi orokorrak arautuko ditu eta Letren Fakultateko Praktiken Dekanordetzak koordinatuko ditu.

LORTUTAKO GAITASUNAK

- Lurraldea ezagutu, ulertu eta interpretatzea eta medio fisikoa gizartearen eta gizakien esferarekin erlazionatzea.
- Toki, eskualde eta kokalekuen aniztasuna azaltzea eta espazio-erlazioak eta prozesuak ulertzea.
- Fenomenoak lurralde-eskala desberdinetan erlazionatzea.
- Informazio geografikoa lurraldearen deskribapen, analisi, interpretazio eta antolakuntzarako erabiltzea.
- Informazioa kartografikoki adieraztea eta informazio estatistikoa sortu eta interpretatzea.
- Lurralde-antolakuntza eta gestiorako proposamenak egitea, baita zerbitzuen eta jardueren kokapenerako proposamenak ere.
- Ezagutza geografikoak azaldu eta transmititzea eta arazo hauek dimentsio anitzetan ulertzea, ahoz nahiz idatziz modu egokian komunikatuz.
- Graduan lortutako ezagutza espezifikoa hurbileko arlo eta diziplinekin erlazionatu eta haiek diziplina horietan aplikatzea, bakarka nahiz taldean lan egiteko.
- Ikerketaren emaitzak aztertu eta hedatzeko IKTak erabiltzea eta etengabe ikasi eta eguneratzea.

GRADUATU PROFILA

Titulu honek geografiaren eta lurralde-antolakuntzaren arloko gaien eduki nagusien inguruko prestakuntza orokorra eta osoa bermatzen du, bai eta arlo horretako oinarri epistemologikoen eta ikerketa-metodoen garapena ere. Geografiako graduak ematen duen prestakuntzak honako hauek ahalbidetzen ditu:

- Graduatuek gai izatea ezagutza teoriko, metodologiko eta instrumentalak analisi integratuan, espazio-prozesu eta arazoan interpretazioan eta lurralde-diagnosietan aplikatzeko.
- Graduatuek gai izatea lurraldeen aniztasuna eta konplexutasuna interpretatzeko, baita ingurumen-fenomenoen eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-fenomenoen arteko loturak ere.
- Graduatuek gai izatea lurraldean eta bere gestioan lan egin eta esku hartzeko, prestakuntza geografikoaren alderdi esperimentalak eta aplikatua indartuz.
- Graduatuek laneko tekniken ezagutzarekin lotutako gaitasun espezifikoa edukitzea, bereziki informazio geografikoa eta kartografikoa lortu, landu eta adierazteko, baita landa-lanarekin lotutakoak ere.

LANERATZEA

- Geografi Informaziorako Sistemetan (SIG) eta teledetekzioan aditua
- Irakaskuntza eta ikerketa
- Kartografia
- Parke naturalen gestioa, ingurumen-hezkuntza, 21 Agendako teknikariak, ekoaudizioa
- Ingurumen-kalitateko sistemak ezartzeko teknikariak
- Ingurumen-eragina ebaluatzeko proiektorearen aholkularitza
- Hiri-politikak diseinatzeko hiriko eta metropoliko azterketen aholkularitza, hiri- eta lurralde-plangintzako bulegoetako teknikariak, hirigintzako udal-teknikariak, mugikortasun, garraio eta logistikako teknikariak
- Politika eta zerbitzu publikoen programazio, gestio eta ebaluazioko teknikariak
- Meteorologia Zerbitzuko eta INMko teknikariak, Konfederazio Hidrografikoko teknikariak
- Naturako arriskuen prebentzioko eta babes zibileko teknikaria
- Geomarketineko gestoria eta aholkularitza
- Proiekzio demografikoetan adituak, tokiko garapenerako agentziak.
- Garapen turistikorako sustatzaileak, ondare kultural eta historikoaren gestoria.
- Nazioarteko erakundeekin lotutako geopolitikan adituak

EZARPEN KRONOLOGIA

Lehenengo maila: 2010-2011

Bigarren maila: 2011-2012

Hirugarren maila: 2012-2013

Laugarren maila: 2013-2014

GIZARTE ANTROPOLOGIAKO GRADUA

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
www.filosofia-hezkuntza-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA (PRESTAKUNTZA PROGRAMAREN HELBURUAK)

Gizarte Antropologia Gizarte Zientzien diziplina bat da, kulturen aniztasuna ikertzen duena, hau da, giza esperientziaren aniztasuna denboran eta espazioan.

Antropologiak gaur egungo gizarte gertaera ugaritan sakontzen du, hala nola: desberdintasun sozio-ekonomikoak; etnien identitateak; klaseko, generoko, erlijio eta adineko identitateak; immigrazioak eta gizarte-politikak; kultura herrikoia eta tradizionalaren adierazpen konplexuak; eta, aldaketa soziokulturaletan sortutako goeren ondorioak.

Gizarte Antropologia Graduaren helburua ikasleei beharrezkoak diren tresnak ematea da, kultura-aldakortasuna eta gizarte-bizitzaren konplexutasuna ikertu ahal izateko.

Berariazko helburuetako bat da ikasleei gaitasuna ematea eskuratutako jakintzak erabili ditzaten, bestelakoak diren gizartean eta kulturen arteko harremanak ikertzeko eta ulertzeko, eta baita gaur egungo gaiak aztertze ere. Horretarako, ikasleek etnografiako landa-lanak egin, eta hainbat jardura eremu nahiz testuingurutan esku hartuko dute.

Ikasketen planak prestakuntza teoriko, metodologiko eta tekniko trinkoa eskaintzen du eta biharko profesionalei diziplina honen garapen berrienei aurre egiteko beharrezkoak zein nahitaezkoak diren gaitasunak eta jakintzak ematen dizkie.

SARTZEKO PROFILA

Gradua egokia da gizarte-errealitatea eta bere prozesuak ezagutu nahi dituen ikaslearentzat eta gizarte-errealitate horretan ageri den aniztasun eta konplexutasunaren aurrean bereziki sentibera denarentzat. Jarrera kritikoa duten pertsona bizi, ireki eta sortzaileak dira ikasketa hauek egiteko aiposenak; alegia, gizartean esku hartzeko gogoak dituztenak, egoera nahiz espazio anitzak behatzeko prest daudenak eta beste pertsona batzuekin komunikatzeko gai direnak.

IKASKETEN ANTOLAKUNTZA

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Adarreko oinarrizko irakasgaiak	36				36
Beste adar batzuetako irakasgaiak	24				24
Nahitaezkoak		60	60		120
Kanpo-praktikak				18	18
Gradu Amaierako Lana				12	12
Hautazkoak				30	30
Guztira	60	60	60	60	240

TITULUAREN PROGRAMA

Gizarte Antropologia Gradua honako printzipio hauen arabera diseinatu da: diziplinartekotasuna, koordinazio horizontala eta bertikala, ikasketen eta lan-munduaren arteko lotura, eta prestakuntzaren sekuentzia koherentea.

Lau urteetan emango diren ikasgai edo irakasgai guztiek 6 ECTS kredituen irakaskuntza-karga dute eta modulutan biltzen dira. Modulu orokorrak honako hauek dira:

- Historia
- Filosofia
- Estetika
- Soziologia

Antropologiako diziplinaren modulu espezifikoak, berriz, hauek dira:

- Gizarte Antropologiaren Teoria eta Historia
- Gizarte Antropologiaren Gai Multzoak
- Antropologiako Ikerkuntzako Teknikak, Metodoak eta Epistemologia
- Gizarte Antropologia arloan lana egiteko prestakuntza
- Gradu Amaierako Lana

Horrez gain, euskarako moduluak prestakuntza egokia bermatuko du euskararen araei, erabilera orokorrari eta Giza eta Gizarte Zientzien berriazko erabilerari dagokienez.

Nahitaezko eta hautazko irakasgai guztiak, (azken hauek txandaka), euskaraz eta gaztelaniaz egin ahal izango dira.

Beste hizkuntza batzuk, hala nola ingelesa edo frantsesa, prestakuntzan emango dira, hainbat irakasgai hizkuntza horietan egin ahal izango direlako.

Gizarte Antropologia Graduaren lehen maila eta Filosofia Graduarena berak dira. Ikasturte honetan modulu orokorrei dagozkien irakasgaiak emango dira.

Prestakuntzaren antolakuntza ikasgai edo irakasgaien arabera:

Lehen maila	1. lauhilabetekoa	2. lauhilabetekoa
	Pentsamenduaren Historia I	Pentsamenduaren Historia II
	Antropologiarako Sarrera I	Antropologiarako Sarrera II
	Filosofiarako Sarrera I	Filosofiarako Sarrera II
	Soziologia	Antropologiako Oinarrizko Testuak
	Filosofiako Oinarrizko Testuak	Etika
Bigarren maila	1. lauhilabetekoa	2. lauhilabetekoa
	Antropologia Politikoa	Senidetasunaren Antropologia
	Gizarte Antropologiaren Historia	Antropologia Ekonomikoa
	Metodo eta Teknika Kualitatiboak I	Metodo eta Teknika Kualitatiboak II
	Biztanleria eta Demografia	Antropologia Sinbolikoa
	Erritoak eta Sinismenak	Ikuspegi Feminista Gizarte Antropologian
Hirugarren maila	1. lauhilabetekoa	2. lauhilabetekoa
	Euskal Kultura I	Euskal Kultura II
	Kultura Politika eta Kudeaketa	Kulturarteko Hezkuntza
	Zientziaren Filosofia I	Zientziaren Filosofia II
	Metodo eta Teknika Kuantitatiboak I	Antropologiarako Iturri Dokumentalak
	Genero Sistema: Kulturarteko Ikuspegia	Gizarte Teoria eta Egitura
Laugarren maila	1. lauhilabetekoa	2. lauhilabetekoa
	Kanpo-praktikak	Gradu Amaierako Lana
	Hautazko irakasgaiak	Hautazko irakasgaiak
	Antropologia eta Hizkuntza	Antropologia Bisuala
	Euskararen Arauak eta Erabilera	Komunikazioa euskaraz: Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak
	Museoak, Kultura Ondorea eta Artea	Gorputza, Osasuna eta Gaixotasuna
		Estetika Garaiakidea
		Filosofia eta Literatura
		Espazioaren Antropologia
		Mugikortasuna eta Migrazioa

MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Antropologiako ikasketak Espainiako unibertsitateetan, Europako herrialde gehienetan, Amerikako unibertsitate askotan eta munduko beste hainbat lekutan ematen dira.

Filosofia eta Hezkuntzaren Zientziak Fakultateak, Gizarte Antropologia Graduaren ikasketak egiteko sarbidea ematen duenak, UPV/EHUK bultzatutako mugikortasun-programa hauetan parte hartzen du: Sicue-Séneca, Erasmus, Latinoamerika eta beste norako batzuk.

Programei, norakoei, araudiari eta abarrei buruzko informazioa hemen kontsulatu daiteke: <http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/es/>

PRAKTIKAK

Practicuma (edo kanpo-praktikak) nahitaezkoa izango da Gizarte Antropologia Graduaren ikasle guztientzat. Antropologiaren aplikazio praktikoaren lehen pausoa da, ikasleei enpresetan, erakunde publikoetan eta gizarte- eta kultura-elkarte edo erakundeetan egoteko aukera ematen baitaie. Practicumak 18 kreditu ditu eta 4. mailako lehen lauhilabetekoan egin behar da.

Practicumak lanbiderako atea zabaltzen du, unibertsitatearen eta lan-munduaren arteko lotura egiten du, eta, horrez gain, harremanetan jartzen ditu teoria eta praktika. Practicumak antropologien ohiko eginkizunak egiteko aukera ematen du: hainbat arazori buruzko diagnostikoa eta/edo ikerkuntza; hainbat jarduera eremutako programen plangintza, aholkularitza, kudeaketa eta ebaluazioa; baliabideen dinamizazioa (kulturalak, museoetakoak, etab.); bitartekaritza, berrikuntza eta prestakuntza gizarte-ingurune anitzetan.

Horiek egiteko Fakultateak lankidetzak-akordioak ditu elkarte, erakunde eta enprekin. Beren esku-hartze eremu nagusiak honako hauek dira: ikerkuntza eta aholkularitza, museoen eta kulturaren kudeaketa, arreta sozio-sanitarioa, kulturarteko bitartekaritza, garapenerako lankidetzak, aukera-berdintasunari eta hizkuntza normalizazioari lotutako arloen dinamizazioa.

ESKURATUTAKO GAITASUNAK

Gizarte Antropologia Graduaren ikasketa amaitu ondoren, ikasleak honako gaitasun hauek izango ditu:

- Mundu garaikidearen gizarteko eta kulturako aniztasunari buruz hainbat arlotan dauden teoriak ezagutuko ditu, esate baterako: ekonomia eta ekologia, gizarte-antolakuntza eta senidetasuna, sistema politiko eta juridikoak, erritoak, erlijioa eta sistema sinbolikoak.
- Giza erakundeak aztertzeko eta azaltzeko gai izango da kultura-eraketa zabalenen barruan, ikerketa-xedea den edozein gairen aurrean ikuspegi holistikoa aplikatuta.
- Gizarte aniztasunaren berri eman ahal izango du, gizarteko, geografiako eta historiako testuinguruetan, antropologiaren ekarpenei eta beren analisi ikuspegiei balioa emanez.
- Oinarri teorikoa, metodologikoak eta teknikoak aplikatuko ditu antropologiako lanetan, jarduera-esparrua edozein dela ere.
- Antropologiako ikerketak egin ahal izango ditu, hainbat teknika eta dokumentu-iturriren bidez eginiko landa-lanean oinarrituta.
- Eskuratutako jakintzak komunikatzeko eta praktikara eramateko gai izango da, esku-hartze politiken diseinuan, gizarte-arazoen konponketan, eta, oro har, kultura anitzeko testuinguruetan pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko zuzenduriko jardueretan.

GRADUDUNAREN PROFILA

Graduduna gizarte-errealitatea aztertzen aditua izango da ikuspegi akademiko-zientifikotik nahiz profesionaletik. Gizartearen gertakariak eta prozesuak interpretatzeko gaitasuna izango du, ikuspegi konparatibo eta holistiko batean oinarrituta. Era berean, gizarte-aniztasunaren sorreran eragiten duten faktoreekiko sentibera izango da. Ereku teoriko eta praktikoa menderatuko ditu eta tokian tokiko ikasketei buruzko informazioa beste kultura arlo batzuetakoarekin konbinatzeko gai izango da.

Bere ezaguerak hainbat arlotan profesionalki aritzeko aukera emango diote, esate baterako, kulturarteko harremanetan, tokian tokiko garapenean eta nazioarteko lankidetzan, kultura-ondasunetan eta kultura-kudeaketan, ikerkuntzan eta irakaskuntzan, ikerkuntza aplikatua eta zerbitzu pertsonal, sanitario eta sozialen Hori guztia aurrera eramateko, gradudunak etnografiaren gaineko idazketan eta ulermenean prestakuntza izango du eta trebeziak bereganatuko ditu jakintza komunikatzeko, gizartean esku hartzeko eta antropologiako gaietan etengabe hobetzeko.

LAN-MUNDUAN SARTZEA

Gizarte Antropologia irtenbide profesional interesgarriak dituen diziplina da. Horien artean mundu garaikidearen eremu garrantzitsuak nabarmentzen dira, hala nola kultura askotarikotasuna, ezagutzaren gizartea, hezkuntza, osasuna, gutxiengoak eta gizarte bazterkeria, eta, oro har, Gizarte Antropologiako prestakuntza jaso duten profesionalen premia duten eta izango duten gaiak.

Gizarte Antropologian lizentziadunak dituen laneko aukerak kontuan hartuz, UPV/EHU ezarriko den graduaren edukiak diseinatzean hiru profil profesional aukeratu dira; hain zuzen, honako lan-eremu hauekin identifikatzen direnak:

- **Gizarte-aniztasuna eta kulturarteko harremanak:** kultura-aniztasunaren gaineko aholkularitza, kulturarteko bitartekaritza, gizarte-intereseko gaien gaineko aholkularitza eta prestakuntza –generoa eta desberdintasuna, kultura askotarikotasuna, migrazioak, giza eskubideak,...
- **Ikerkuntza aplikatua: aholkularitza, administrazio publikoa eta kultura-kudeaketa:** museoen eta kultura-ondarearen kudeaketa eta dinamizazioa, tokian tokiko eta komunitateko garapena, kultura-sustapena eta kultura-kudeaketa, aholkularitza giza baliabideetan, gizarteko eta osasuneko baliabideetan, enpresaren arloan...
- **Irakaskuntza, ikerkuntza eta ezagutzaren hedapena:** trebatzaileen prestakuntza, kultura aniztasunaren gaineko prestakuntza, lankidetzak komunikabideetan, parte-hartzea sentsibilizazio-kanpainetan ,...

EZARPEN-KRONOLOGIA

2010/11 ikasturtea: **1. maila**
2011/12 ikasturtea: **2. maila**
2012/13 ikasturtea: **3. maila**
2013/14 ikasturtea: **4. maila**

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola
www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es

IKASKETEN DESKRIPZIOA

- Bai espiritu kritikoa bai errealitate sozialaren eta hezitzailearen ulermena eta analisirako gaitasuna garatzea, guzti hau juizio kritikoan oinarritutako esku-hartze profesionalak bermatzeko, beti ere gizartearen transformazioa helmuga izanik.
- Garapen soziokulturala, soziolaborala, instituzionala eta komunitarioa bultzatu, errealitate profesionalarekin lankidetzan.
- Gizarte eta asoziatibo egituraren sorrera eta sendotzea laguntzea, beste agente eta agentzia sozialekin lankidetzan.
- Profesio anitzeko ekipoetan lan egitea, jarduera profesionalaren hobekuntza bermatuko dituzten ezagutzak eta esperientziak konpartitzen, norberaren eta besteen lanaren aurrean errespetu jarrera erakutsiz.
- Aurrerapen zientifikoekiko, errealitate profesional sozio-hezitzailetik sortzen diren proposamenekiko eta mugimendu sozialekiko eta hezitzaileekiko, formakuntza iraunkorraren jarrera mantentzea.
- Ikerkuntza sozio-hezitzailetik ateratako ideiak analizatu eta zalantzan jarri, baita ere informazio eta komunikazio bideak era kritikoan erabiltzea, betiere esku-hartze sozio-hezitzaileak diren prozesuak, ikerkuntza eta lankidetzak lana bermatzeko asmoarekin, eta horrela aldakorrek diren testuinguru soziokulturalei erantzuna egokia emateko

SARRERAKO PERFLA

- sentikortasun soziala,
- elkarrekintza enpatikoa eta gaitasun komunikatibo batzuk,
- lankidetzak lana eta parte hartzearekiko interesa,
- gizatalde ezberdinarekin lanarekiko motibazioa,
- pentsaera analitikoa eta sortzailea gertaera sozialen aurrean, ikuspuntu kritikoa mantenduz.

IKASKETEN EGITURA

MOTAK	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Adarreko oinarrizko irakasgaiak	18	24			42
Beste adar batzuetako irakasgaiak	12	6			18
Nahitaezkoak	30	30	36		96
Kanpo-praktikak			12	30	42
Gradu Amaierako Lana				12	12
Hautazkoak			12	18	30
Guztira	60	60	60	60	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA*

Titulazioaren materia guztiak euskaraz eta gaztelera ematen dira, espezialitateak edo minorrak salbu, bat euskaraz soilik eskaintzen da eta bestea gaztelera:

- MINOR: GIZARTERATZEA (euskara)
- MINOR: GIZARTE DINAMIZAZIOA ETA LAN KOMUNITARIOA (gaztelera)

LEHENENGO MAILA	
<p><i>MODULU 1 Lehen lauhilekoa</i></p> <p>HEZKUNTZAREN TESTUINGURUAK</p> <p><u>Moduluaren Diziplinarteko Jarduera</u> Irakasleek proposatutako hezkuntza-testuinguru errealar buruzko txosten deskriptiboa, justifikatua eta idatzia egitea (eskola bat, gizarte hezkuntzako instituzio bat, hezkuntza-errealitate bat)</p>	<p><i>MODULU 2 Bigarren lauhilekoa</i></p> <p>HEZKUNTZA LANBIDEAK</p> <p><u>Moduluaren Diziplinarteko Jarduera</u> Egoera/arazo errealei buruzko txosten analitiko egitea, zeinetara ikasleriak erantzun argumentatua, eta taldeka sortua, eman behar duen. Kasuak eta egoerak hezkuntzaren funtza profesionalari lotuta egon behar dira, baita dilema etiko edo kompetentzia profesionalekin ere erlazionatuta eta gai hauei buruz erantzun posibleak ematera animatuko zaito.</p>
1. Hezkuntzaren Soziologia	1. Pedagogia: Teoria eta hezkuntza erakundeak
2. Hezkuntzaren Historia	2. Giza eskubideak eta gizarte politikak
3. Garapen Psikologia	3. Hezkuntza legedia eta nazioarteko ikuspuntua
4. Estatistika Hezkuntzan	4. Identitatea eta garapen profesionala
5. Hezkuntza, hizkuntza, kultura eta dibertsitatea	5. Komunikazioa eta hezkuntza harremana

BIGARREN MAILA	
<p><i>MODULU 3 Lehen lauhilekoa</i></p> <p>HEZKUNTZA PROZESUEN FUNTSATZEA</p> <p><u>Moduluaren Diziplinarteko Jarduera</u> Errealitateko hezkuntza prozesu bat deskribatu, analizatu eta ahoz aurkeztu, zeinek, batez ere modulu honetan emandako hezkuntza-argumentazioan oinarritua, izango den.</p>	<p><i>MODULU 4 Bigarren lauhilekoa</i></p> <p>PROGRAMA SOZIO-HEZITZAILEEN PLANIFIKAZIOA, KUDEAKETA ETA EBALUAKETA</p> <p><u>Moduluaren Diziplinarteko Jarduera</u> Esku-hartze sozio-hezitzailea den programa bat lantzea</p>
1. Didaktika orokorra	1. Ikerkuntza sozio-hezitzailea
2. Hezkuntza eta gizarte orientazioa	2. Esku-hartzearen planifikazioa
3. Hezkuntza Psikologia	3. Programa eta zerbitzu sozio-hezitzaileen ebaluaketa
4. Prozesuen, zerbitzuen eta hezkuntza erakundeen antolaketa eta kudeaketa	4. Esku-hartze orokorrean baita bazterte egoeratan ere proposamen metodologiko orokorrak
5. Gizarte barneratze eta bazterte prozesuak	5. Informazio eta komunikazioko teknologiak gizarte hezkuntzan

HIRUGARREN MAILA	
<p><i>MODULU 5 Lehen lauhilekoa</i></p> <p>GIZARTE DINAMIZAZIOA ETA IKUSPEGI KOMUNITARIOA</p> <p><u>Moduluaren Diziplinarteko Jarduera</u> Ikuspegi komunitarioa jarraituz praktikak egiten dituzten instituzioaren proiektu edo programa analizatu. Jarduera honekin esku-hartze programen hezkuntza-zentzuak argitzea, esplizituki komunitatea eta iraunkortasun dimentsioen adierazleak barne egonik.</p>	<p><i>MODULU 6 Bigarren lauhilekoa</i></p> <p>ESKU-HARTZE SOZIO HEZITZAILEAK</p> <p><u>Moduluaren Diziplinarteko Jarduera</u> Modulu honetan lan egiten diren edozein eremuetan esku-hartze sozio-hezitzaile erreala den kasu baten azterketa batetik abiatuta txosten idatzia aurkeztea. Azterketak prozesuan zehar hartutako erabakien analisisa eta balorazioa jaso behar ditu, baita hobekuntza aukerak era argumentatu batean proposatu.</p>
1. Garapen Komunitarioa	1. Esku-hartze giza-hezitzailea familian, haurtzaroan, nerabe-arogan eta gazte-arogan
2. Gizarte eta kultur animazioa	2. Eragozpeneko testuingurutan esku-hartze giza-hezitzailea
3. Garapen iraunkorrerako Hezkuntza	3. Esku-hartze giza-hezitzailea helduen, adineko eta mendeko pertsoekin.
4. Practicum I (12 kreditu)	BI IKASGAI AUKERAKOAK

LAUGARREN MAILA	
MODULU 7: GARAPEN PROFESIONALA ETA PRAKTIKA SOZIO-HEZITZAILEA	
<i>Lehen lauhilekoa</i>	<i>Bigarren lauhilekoa</i>
1. Practicum II (12 kreditu)	1. Gradu amaierarako proiektua (12 kreditu)
HIRU IKASGAI AUKERAKOAK	2. Practicum III (18 kreditu)

* "Ikasgaien izenak behin behinekoak dira Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak oniritzia eman arte"

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak Gizarte Hezkuntzako ikasleentzat hurrengo mugikortasun programak eskaintzen du:

SICUE

Universitat Autònoma de Barcelona
Universitat de Girona
Universidad de Granada
Universitat Illes Balears
Universidade de Santiago de Compostela
Universidad De Valladolid

ERASMUS

Libera Università Maria Ss Assunta (Italia)

UPV-EHU/AL

U. Nacional de la Plata (Argentina)
U. Privada Santa Cruz de la Sierra (Bolivia)
U. Pontificia Catolica De Chile (Chile)
U. Adolfo Ibáñez (Chile)
U. Pacífico(Chile)
Pontificia U. Católica de Valparaíso (Chile)
U. Valparaiso (Chile)
U. Nacional Autónoma de México (UNAM)
U. De Puerto Rico
U. De Montevideo (Uruguay)

BESTEAK

U. Estatal Boise (Idaho)
San Diego State University (California)
Universidad Ateneo De Manila (Filipinas)
Aldersgate Collage (Filipinas)
Universidad Estatal Nueva Vizcaya (Filipinas)

KANPOKO PRAKTIKAK (PRACTICUM)

Kanpoko praktiketako hiru ikasgaiak hurrengo helmuga daukate: behaketaren, analisiaren eta egoera profesional tutorizatueta parte hartzearen bidez ikasleagoa hezitzea, bai praktikak betetzen dituen entitatearen ikuspuntutik, bai unibertsitateko irakasle tutorearen ikuspuntutik.

- **PRACTICUM I.** Ikasgaiaren helburua da eremu sozio-hezitzailearen ezagutzea: populazioa, programa(k), tresna profesionalak, behaketa partehartzailearen bidez. Irakasleen, irakasleen eta profesionalen artean lankidetzara eskatzen duten lan saioen bidez antolatzen da, bai testuinguru hezitzaile posibleak, bai gizarte hezitzaileak garatzen dituzten funtzioak ezagutzeko
- **PRACTICUM II.** Practicum I-eko izaera antzekoa du, nahiz eta, esku-hartze eremu ezberdin batean garatu behar. Honen arrazoia hurbilketa lortzea da gizarte hezkuntzan dauden eremuen, testuinguruaren eta entitatearen aniztasunera. Halaber, laugarren mailako ikaslearen heldutasun handiagoak esperientzi bien arteko antzekotasunak eta desberdintasuna ezartzea errazten du.
- **PRACTICUM III.** Ikasgai honetan profesional munduan murgiltze handiagoa lortzen da, bai diseinuan sakontzen, bai programa/proiektu sozio-hezitzaileak martxan jartzen eta ebaluatzen, baita fase guztietan lan horrek eskatzen duena, bai diseinuan, bai tresna metodologikoen erabileran ere.

TITULAZIOAREN KONPETENTZIA OROKORRAK (laburtuta)

- Oinarri teorikoak ezagutu eta ulertu
- Diseinatu, garatu eta ebaluatu
- Testuinguruak sortu
- Dinamizatu, antolatu eta kudeatu
- Esku-hartze sozio-hezitzailea garatu
- Analisirako eta ebaluaketarako gaitasunak
- Prozesuak diseinatu eta garatu
- Ahoz adierazpena garatu
- Dokumentuak idatzi
- Formakuntza iraunkorrerako jarrera positiboa

GRADUDUNAREN PROFILA

Gizartearen eta hezkuntzaren profesionala, zeinek garapen pertsonala, soziala eta komunitarioa bultzatzen duten prozesu sozio-hezitzaileak sortzen esku-hartzen duen; maila indibidual eta taldekako mailan, planak, programak eta proiektu sozio-hezitzaileak diseinatu eta kudeatzen; bere profesioari dagozkion tresnez abiatuta, duen asmoa da pertsonen, taldeen, kolektiboen eta komunitatearen bizi baldintzak hobekuntza lortzea, zailtasun eta desabantaila sozial handiagoko egoerei arreta handiagoa ipiniz.

INTSERZIO LABORALA

Gizaker enpresak (2008) lanbideari buruz egindako txostenaren arabera gizarte hezitzaileen lan sarrerak azkeneko bost urtetan nabarmen handitu egin direla azpimarratu nahi dugu.

EZARTZE KRONOLOGIA

- **1. MAILA:** 2010/11
- **2. MAILA:** 2011/12
- **3. eta 4. MAILA:** 2012/13. Batera ezarriko dira, beraz aurreko urtetan diplomatura lortu dituzten ikasleek gradua egiteko aukera dauka ikasturte honetan, nahi izanez gero.

Gizarte Hezkuntzako oraingo diplomaturatik gradura pasatzeko adaptazio taula egin da.

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Gizarte Hezkuntza Graduak tituluaren proposamenak helburu bikoitza planteatzen du: lehenengoa, ikasleari prestakuntza teorikoa eta praktikoa ematea da gizarte eta hezkuntzako gertaera osorik ikasteko aukera izan dezan, eta, aldi berean, gizarte eta hezkuntzako esku-hartze prozesuen eta sistemen garapena, antolakuntza eta analisia egin ahal izateko printzipioak ezagutu ditzan. Bigarren helburua, berriz, ikasleari prestakuntza praktikoa eta balioaniztuna ematea da, bere jardura eremuetan profesionalki hedatzeko aukera emango diona.

SARTZEKO PROFILA

Gizarte Hezkuntzako profesionalak, hezkuntza ez-formalaren arloan, pertsona helduen eta hirugarren adinekoen prestakuntzan, sozialki zaugarriak diren pertsonen gizarteratzean eta animazio sozio-kulturalean lana egiten duenez, ikasleak, besteak beste, honako ezaugarri hauek izango ditu:

- gizarte eta hezkuntzako esku-hartze ez-formalekiko sentikortasun nabarmena
- hainbat talderekin eta hainbat esparrutan lana egiteko motibazioa
- pertsonen arteko erlaziorako gaitasun egokia, komunikatzeari eta jendearekiko enpatiari dagokienez
- pentsamendu analitiko eta sortzailea, eta jarrera kritikoa gizarte-gertaeren aurrean
- parte-hartze, lankidetzeta eta talde-lanerako interesa

IKASKETEN ANTOLAMENDUA

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Adarreko oinarrizko irakasgaiak	18	24			42
Beste adar batzuetako irakasgaiak	12	6			18
Nahitaezkoak	30	30	36		96
Kanpo-praktikak			12	30	42
Gradu Amaierako Lana				12	12
Hautazkoak			12	18	30
Guztira	60	60	60	60	240

TITULUAREN PROGRAMA

Ikasketen plana zazpi modulutan egituratzen da. Lehendabiziko hiru urteetan lauhilabeteka banatzen dira eta laugarren mailan urte osoko modulua egiten da. Lehen hiru moduluak eta Pedagogia tituluarenak komunak dira (90 kreditu). Irakasgaiak 6 ECTS kreditukoak dira, Practicumean eta Gradu Amaierako Lanean izan ezik. Irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira.

Ikasturte	Lauhil.	Modulua	Irakasgaia
1	1	Hezkuntzaren testuingurua	1. Hezkuntzaren Soziologia 2. Hezkuntzaren Historia 3. Garapenaren Psikologia 4. Estatistika Hezkuntzan 5. Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aniztasun
1	2	Hezkuntza-lanbideak	1. Pedagogia: Hezkuntza Teoriak eta Erakund 2. Giza Eskubideak eta Gizarte Politikak 3. Hezkuntzako Legedia eta Nazioarteko Ikuspegia 4. Lanbide Identitatea eta Garapena 5. HezkuntzaKomunikazioa eta Erlazioa
2	1	Hezkuntza-prozesuen oinarriak	1. Didaktika Orokorra 2. Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa 3. Hezkuntzaren Psikologia 4. Prozesuen Antolakuntza eta Kudeaketa 5. Bazterketa eta Inklusio Prozesuak
2	2	Gizarte eta hezkuntzako programen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa	1. Gizarte eta Hezkuntza Ikerketa 2. Esku-hartzearen Plangintza 3. Gizarte eta Hezkuntzako Programen Ebalua 4. Esku-hartzeko Proposamen Metodologiko Orokorrak Bazterketa Egoeretan 5. Informazioaren Teknologia eta Komunikazio Gizarte Hezkuntzan
3	1	Dinamizazio soziala eta komunitateko ikuspegia	1. Komunitate Garapena 2. Gizarte eta Kultura Dinamizazioa 3. Giza Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza 4. Practicuma (12 ECTS kreditu) 5.- Hautazkoa: <i>Euskararen Arauak eta Erabiler</i>
3	2	Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeak	1. Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Familia Haurtzaroan, Nerabezaroan eta Gaztaroan 2. Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Testuinguru Kaltetuetan 3. Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzea Pertson Helduekin, Adinekoekin eta Menpeko Pertsonen 4.- Hautazko bi irakasgai: - <i>Kulturarteko Hezkuntza (*)</i> - <i>Hezkuntza eta Hizkuntza Aniztasuna</i> - <i>Familia Orientazioa</i> - <i>Bizitza Aktiborako Trantsizioa</i> - <i>Komunikazioa Euskaraz: Hezkuntza Gizarte Arloak(*)</i>
4	1	Garapen profesionala eta gizarte eta hezkuntzako jarduera	1.- Practicuma (12 ECTS kreditu) 2.- Hautazko hiru irakasgai: - <i>Taldeen Dinamika Gizarte eta Hezkuntza Jardueran</i> - <i>Ikerkuntza Proiektua</i> - <i>Lanbidearen eta Enpleguaren Garapener Orientazioa</i> - <i>Ikuspegi Soziolinguistikoak Gizarte Esku-hartzean</i>
4	2	Garapen profesionala eta gizarte eta hezkuntzako jarduera	1.- Practicum (18 ECTS kreditu) 2.- Gradu Amaierako Lana (12 ECTS kreditu)

MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Gizarte Antolakuntzako ikasketak Espainiako unibertsitateetan, Europako herrialde gehienetan eta Amerikako hainbat unibertsitateetan ematen dira.

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Gizarte Hezkuntza Graduko ikasketak emango dituenak, UPV/EHUK bultzatutako mugikortasun-programetan parte hartzen du: SICUE-SÉNECA, ERASMUS, LATINOAMARIKA ETA BESTE NORAKO BATZUK. Programei, norakoei, araudiei eta abarrei buruzko informazioa helbide honetan kontsulta daiteke:

<http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/es/>

PRAKTIKAK

Practicumak lanean sartzeko prozesua errazten du, ikasleari esku-hartze eremu batean edo erakunde batean egoteko aukera emanez. 42 kreditu ditu; 12 hirugarren mailan egiten dira eta gainerako 30ak laugarren mailan.

Practicumak lanean sartzeko prozesua errazten du, unibertsitatearen eta lan-arloaren arteko lotura egiten du eta teoria eta praktika uztartzen ditu. Practicumean gizarte-hezitzaileen eginkizun profesionalak garatzen dira, hau da: diagnostikoa, plangintza, esku-hartzea, ebaluazioa, berrikuntza, ikerkuntza eta prestakuntza.

Praktikak egiteko, Filosofia eta Gizarte Zientzien Fakultateak 300 lankidetzeta-hitzarmen baino gehiago sinatu ditu, besteak beste, honako esku-hartze eremu hauetan: gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea haurrekin eta/edo nerabeekin babes-sistemetan (harrera-etxebizitzak, etxe babestuak, ...); justiziako esku-hartzea (epaitegiak); esparru soziokulturalak eta aisialdiko dinamizazioa (aisialdiko elkarteak, ludotekak, informazio-zerbitzuak,...); esku-hartzea prestakuntza etengabea; esku-hartzea bazterkeriako egoeretan (jantoki sozialak, oinezkoen harrera, kartzelak,...); droga-mendekotasuna (birgaitzeko zentroak, hainbat patologia dituzten pertsonentzako zerbitzua,...); adineko pertsonak (eguneko zentroak, etxeak, elkarteak, egoitzak,...); ezinduak (tailerrak, hezkuntza bereziko zentroak, elkarteak, fundazioak,...); komunitateko esku-hartzea (hiritarren proiektuak, bizilagunen elkarteak, komunitateko garapen-planak, immigranteentzako informazioa eta aholkularitza, mena); eta, ingurumen-hezkuntza, osasunerako hezkuntza eta garapenerako lankidetzeta (hainbat herrialdetan eginiko proiektuak).

ESKURATUTAKO GAITASUNAK

- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen eta bere lan-esparruen oinarri teorikoak (psikologikoak, soziologikoak eta pedagogikoak) ezagutzea eta ulertzea, eta, baita, prozesu horien oinarrian dauden legeak eta gizarteko, kulturako eta hezkuntzako politikak ere.
- Hautemandako premiei erantzuteko gizarte eta hezkuntzako programak, proiektuak eta planak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, arreta berezia eskainiz arriskuko eta/edo bazterkeriako egoeran dauden taldeei eta profesionalen laguntza eta trebakuntzako premiei.
- Hezkuntza-harremanak eta gizarte-sareak ezartzeko aukera emango duten testuinguruak sortzea, pertsonaren, taldearen eta komunitatearen garapena sustatuz.
- Taldeak, baliabideak, zerbitzuak eta erakundeak dinamizatzea, antolatzea eta kudeatzea, hautemandako arazoak eta zailtasunak konpontzeko estrategia eta teknika egokienak sortuz eta erabiliz.
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea garatzea, etikaren eta lanbidearen deontologiarekiko errespetuaren ikuspegitik.

- Gizarte-errealitatea eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartze inguruak analizatzea eta ebaluatzea, laneko gaiet buruzko hausnarketetan oinarrituko diren iritziak eman ahal izateko.
- Gizarte eta hezkuntzako jarduerari lotutako ikerkuntza eta berrikuntzako prozesuak diseinatzea eta garatzea, gizarte eta hezkuntzako arazoak konpontzeari begira.
- Gizarte eta hezkuntzako gaiet buruzko ideiak, argudioak, arazoak eta konponbideak ahoz adierazteko gai izatea, askotariko entzuleen aurrean.
- Laneko dokumentuak idazteko gai izatea, hainbat testuingururi buruzkoak eta askotariko irakurleei egokituak.
- Etengabeko prestakuntzarako jarrera ona izatea, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzean eta laneko garapenean hobetzen laguntzeko.

GRADUDUNAREN PROFILA

Gizarte Hezkuntzako graduduna gizarte eta hezkuntzako gaietan aditua izango da. Bere esku-hartzearen bidez, gizarte eta hezkuntzako aldaketa-prozesuak sortuko dira, pertsonen, gizartearen eta komunitatearen garapena sustatzeko. Horretarako, gizarte eta hezkuntzako programak, proiektuak eta planak diseinatu eta kudeatuko ditu, norbanako eta taldeentzat. Bere lanbideari dagozkion tresnak erabilita, pertsonen, taldeen eta komunitatearen bizitza-baldintzak hobetzeko asmoz jardungo du, zailtasunak eta desabantailak nagusi diren gizarte-egoeretan.

LAN-MUNDUAN SARTZEA

Gizarte-hezitzaileen enplegu maila nabarmena da, eta horrek agerian uzten du; alde batetik, profesional hauek gizarte eta hezkuntzako jardueran duten garrantzia, eta, bestetik, gizartearen eremu garrantzitsuetan duten balioa. Era berean, sektorearen normalizazioak Gizarte Hezkuntzaren finkapena ekarri du, bai gizartean bai laneko esparruan. Lan-munduan sartzeko bide ugari zabaldu dira, laneko sektore honek esku-hartze eremuetan duen indarra agerian utziz:

- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea haur eta nerabeekin, babes-sistemetatik
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea nerabeekin, gazteen justizia-arloan
- Esku-hartzea eremu sozio-kulturaletan eta aisialdiaren dinamizazioa
- Gizarte eta laneko esku-hartzea
- Esku-hartzea pertsona helduen etengabeko prestakuntzan
- Esku-hartzea gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsona helduekin
- Esku-hartzea droga-mendekotasunaren arloan
- Esku-hartzea adineko pertsonekin
- Esku-hartzea ezindu psikiko, fisiko eta sentsorialekin.
- Komunitateko esku-hartzea (baliabideak eta zerbitzuak).
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea ingurumeneko hezkuntzan
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea osasunerako hezkuntzan

EZARPEN-KRONOLOGIA

- 1. maila:** 2010/11
- 2. maila:** 2011/12
- 3. maila:** 2012/13
- 4. maila:** 2013/14

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Titulazioak gizarte langilea izateko gaitzen du, eta bide ematen du:

- Pertsona, familia, talde, erakunde eta elkarteen testuinguru sozial eta instituzionaletan esku hartzeko.
- Gizarterako politika, zerbitzu eta ekimenak burutu eta ebaluatzen parte hartzeko.
- Ahalduz bitartez eta gizakiaren nahiz gizartearen eskubideak bermatuz herritar aktiboak laguntza emateko.
- Gizarteko arazoak saihesten esku hartzeko.

Hori guztia beste profesional batzuekin batera pertsonak, familiak, taldeak erakundeak eta elkarteak gizarteratzen laguntzeko, gizarte kohesionatua eratzeko, eta bizi-kalitatea nahiz ongizate soziala garatzeko.

Prestakuntza bideratua dago gizarteko egitura eta prozesuak, aldaketa sozialak eta giza jokabidea ezin hobeto ezagutuko dituzten profesionalak esku-hartze sozialerako hezteko; hala, beren lanbideko eginkizunak garatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak lortu ahalko dituzte. Eginkizun horiek dira: informazioa eta orientazioa, prebentzioa, laguntza, plangintza, irakaskuntza, sustapen soziala eta gizarteratzea, bitartekotza, gainbegiraketa, ebaluazioa, gerentzia, ikerketa eta koordinazioa.

SARRERAKO PROFILA

Gizarte-langintzako Gradua ikasi behar duenak:

- Gizartearekiko sentsibilitate nabarmena izan behar du.
- Talde sozialen arazoekiko ardura agertu behar du.
- Gizartearen egitura eta prozesuak nahiz gizakiaren jokaera ezagutu eta ulertzeko bidea emango dion zentzu kritiko eta analitikoak izan behar du.
- Pertsonenganako errespetua agertu behar du, eta eskubide sozialak izan behar ditu ardatz.
- Komunikaziorako eta harremanetarako trebetasuna izan behar du.
- Enpatiarako gaitasuna agertu behar du.
- Besteekin batera esku-hartzeko aukerak lantzeko bidea emango duten erantzun sortzaileak proposatu behar ditu.
- Diziplina anitzeko lanerako prest egon behar du.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Totala
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	30	24			54
Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizko irakasgaiak	6				6
Nahitaezko irakasgaiak	24	36	36	6	102
Hautazko irakasgaiak			24	12	36
Kanpoko Praktiak				32	32
Gradu-amaierako lana				10	10
Maila bakoitzean, guztira	60	60	60	60	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Ikasketa Plana 6 modulutan dago egituratua:

- A modulua: “Gizarte-langintza: bere oinarriak, metodologia, teoriak eta teknikak”
- B modulua: “Gizarte-langintzaren Testuinguru Instituzionala”
- C modulua: “Gizarte-langintzari dagozkion prozesuak eta arazoak”
- D modulua, “Gizarte-langintzarako lege- eta antolakuntza-tresnak”
- E modulua: “Gradu amaierako praktikak eta lana”
- F modulua, “Hautazko modulua” hiru gaietan banatua: Euskara eta bi minorrak:
 - “Gatazkak: esku-hartzea eta eraldatzea” minorra: gatazkak erregulatu, gestionatu eta eraldatzen esku-hartzeko tresnak ematen dituen prestakuntza.
 - “Komunitatearen sustapena” minorra. Prestakuntza honen ardatza da komunitatea, eta bertan nahiz bertatik burutzen den ekintza soziala.

UPV/EHUren Gizarte-langintzako Unibertsitate Eskolak titulazio-eskaintza elebiduna proposatzen du, ikasgai guztiak euskaraz zein gazteleraz emanez.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Ikastegiak UPV/EHUK eskaintzen dituen ikasleentzako hainbat mugikortasun-programa bultzatzen ditu:

- SICUE/SENECA programa: *Espainiako unibertsitateetako ikastegien arteko truke-programa.*
- ERASMUS programa: *ikasleen mugikortasunerako Europako programa.*
- UPV/EHU-AL programa (Latinoamerika): Hego Amerika eta Erdialdeko Amerikako unibertsitateetako ikasleekin egiten den mugikortasun-programa.
- Beste Norako Batzuk: Ipar Amerika, Afrika, Asia eta Ozeaniako unibertsitateetako ikasleekin egiten den mugikortasun-programa.
- Garapenerako Lankidetzak-Praktiak

PRAKTIKAK

Practicuma garrantzizkoa da ikasketa planaren barruan; izan ere, practicum hori ohikoa izan da gizarte langileen prestakuntzan oro har, baita UPV/EHUren Gizarte-langintzako Unibertsitate Eskolan ere, zehazkiago esateko. Ikasketa planeko praktikak nahitaezkoak dira, gaitasun profesionalak garatzen dituzte, eta ikasleak bere lanbiderako (Gizarte-langintzaren alorreko esku-hartze nahiz ikerketarako) oinarritzakoak diren ezagutza eta gaitasunak lortzen dituela bermatzen dute.

Ikasturte guztietan dago ikasgai praktiko bat, eta horrek apurka-apurka lanbidera hurbilduz joateko aukera ematen du (lehenengo ikasturtean errealitate sozialei heltzen zaie; bigarren ikasturtean, berriz, baliabide sozialei; eta hirugarrenean, profil profesionalari). Hurbiltze horri amaiera emateko, laugarren ikasturtean kanpoko praktikak burutu eta horien hezkuntza-gainbegiraketa egiten da.

Kanpoko praktikak-practicuma (32 ECTS dituen) Gizarte-langintzaren arloko zerbitzuak ematen dituzten erakunde publiko zein pribatuetan egiten da. Practicumak nahitaez izan behar du erakunde horietako gizarte langileen tutoretza profesionala; bestalde, aldi berean practicumaren gainbegiraketa egiten da "hezkuntza-gainbegiraketa eta etika profesionala" deritzon ikasgaiaren bidez, baita kanpoko praktikek iraun bitartean orientazioa, segimendua eta laguntza eskaintzen dituen irakasle baten bidez ere.

LORTUTAKO GAITASUNAK

Hauek dira Gizarte-langintzako graduatuek lortuko dituzten gaitasun orokorrak:

- Gizarteko gertakari, errealitate eta arazoak ezagutzeko, ulertzeko eta horien gaineko hausnarketa kritikoa egiteko gaitasuna (...).
- Besteen behar eta egoerak haiekin batera landu eta baloratzeko gaitasuna, harreman profesionala bera esku-hartzearen ardatz izanik.
- Gizarte-langintzaren oinarri, metodologia, eredu eta tekniken gaineko ezagutzak lortu eta horiek aplikatzeko gaitasuna, (...).
- Pertsonen herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharren gaineko kontzientzia izaten laguntzeko aukera ematen duten trebetasunak garatzeko gaitasuna, (...).
- Proiektu, programa, plan eta politika sozialak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko gaitasuna (...).
- Arrisku-egoerak saihestu eta kudeatzeko eta egoera gatazkatsuak erregulatzeko aukera emango dioten harremanetarako trebetasuna, lidergoa eta sormena garatzeko gaitasuna.
- Erakundeen erantzukizun soziala eta etika profesionala bultzatzeko gaitasuna, (...).
- Esku-hartze profesionalaren oinarritzako tresna izango diren baliabide sozialak eta haien lege-markoa ezagutzea, (...).
- Praktika profesionalak ematen duen informazioa aztertu eta sistematizatzeko gaitasuna (...).
- Jardun profesionalerako trebetasunak garatzeko gaitasuna, (...).

GRADUATUAREN PROFILA

Kontuan izanik Gizarte-Langintzako Gradua duenak zer nolako gaitasun orokorrak dituen, graduatuaren profilak erakusten digun profesionalak...

- gizarteko gertakari, errealitate eta arazo desberdinak sakonki ezagutuko ditu;
- egoerak/arazoak aztertu eta horien diagnosia egiteko gaitasuna izango du, baita pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartzea planifikatu, burutu eta ebaluatzekoa ere;
- pertsonekin batera haien beharrak eta egoerak baloratzeko eta horien gainean lan egiteko beharrezkoak diren trebetasun profesionalak izango ditu;
- arrisku-egoerak saihestu eta kudeatzeko gaitasuna izango du, baita gatazka- eta krisi-egoerak erregulatzekoa ere;
- pertsonen herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharren gaineko kontzientzia izaten laguntzeko trebetasuna azalduko du;
- baliabide sozialak ezagutuko ditu;
- erakunde publikoak, gizarte-eremuko erakundeak eta enpresak antolatzen, kudeatzeko, zuzentzeko eta koordinatzeko eginkizunak burutzeko gaitasuna izango du;
- erakundeen erantzukizun soziala bultzatu eta etika profesionala bermatzeko gaitasuna izango du, kalitate-irizpideak eta ikuskapen profesionalerako protokoloak ezarriz;
- proiektu, programa, plan eta politika sozialak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko gaitasuna izango du;

Azkenik, aipatu behar da ikerketa gizarte-langintzaren eginkizunetako bat dela; hala, estrategia profesionalak berri eta hobetzeaz gain, aurrerapausoak ematen dira diziplinaren garapen zientifikoan.

LANERATZEA

Gizarte-langintzako titulazioaren kasuan, azken urteetan gutxi gorabehera egonkorrak izan dira bai enplegu-tasa, bai enplegu-kalitatearen adierazleak. Azken ikerketen arabera, ikasitako arloan lan egiten dutenen kopuruak gora egin du, eta hobetu egin dira soldadak. Dirudenez, gizarte-langintzako ikasketak gradu bihurtzeak joera hori indartu eta bultzatuko du.

Gizarte-langintzako Unibertsitate Eskolak garrantzia ematen dio ikasleak laneratzeari; hala, gai horri buruzko ikastaro bat eta informazioa emateko hitzaldiak antolatzen ditu urtero, bertara bilduz Arabako Gizarte Langileen Elkargo Ofizialeko ordezkariak. Bestalde, UPV/EHUK Enplegu Gunea du Arabako kanpusean.

EZARPENAREN KRONOLOGIA

Titulazioa 2010/11 ikasturtean hasiko da ezartzen, apurka-apurka. Ikasturte horretan bertan gradua lortu nahi duten Gizarte-langintzako diplomatuei prestakuntza osagarria eskainiko zaie. Titulua ezartzeko kronograma.

1^o ikasturtea: 2010/11

2. ikasturtea: 2011/12

3. ikasturtea: 2012/13

4. ikasturtea: 2010/11 (prestakuntza osagarria).

UPV/EHUko GIZARTE-LANGINTZAKO GRADUA (240 ECTS)							
Arloa: Gizarte eta Lege zientziak							
MODULUAK	ECTS	GAIK	ECTS	IKASGAIK	ECTS	LAUH ²	
A. GIZARTE-LANGINTZA: BERE OINARRIAK, METODOLOGIA, TEORIAK ETA TEKNIKAK	54	A1. Gizarte-langintzaren oinarriak	6	Gizarte-langintzaren oinarriak eta metodologia	6	1	
		A3. Gizarte-langintzaren gaitasun sozial eta komunikatiboak	6	Gizarte-langintzaren gaitasun sozial eta komunikatiboak	6	2	
		A2. Gizarte-langintzaren metodoak, ereduak eta teknikak	30	Esku-hartzerako teknikak gizarte-langintzan	6	6	3
				Banakako Familiako Gizarte-langintza	6	6	3
				Taldeko Gizarte-langintza	6	6	4
				Komunitateko Gizarte-langintza	6	6	5
				Gizarte proiektuen diseinua eta ebaluazioa	6	6	6
		A4. Gizarte-langintzako ikerketa, diagnostika eta ebaluazioa	12	Gizarte Ikerketarako metodologia kuantitatiboa	6	6	3
				Gizarte Ikerketarako metodologia kualitatiboa	6	6	5
B. GIZARTE-LANGINTZAREN TESTUINGURU INSTITUZIONALA	24	B1. Gizarte zerbitzuak	18	Gizarte Zerbitzuen Oinarriak	6	2	
				G.Z. Komunitarioak	6	3	
				G. Z. Espezializatuak	6	5	
B2. Gizarte-politikak eta gizarte-langintza	6	Gizarte-Politika	6	6	6		
C. GIZARTE-LANGINTZAK ESKU-HARTZEN DUEN PROZESU ETA ARAZOAK	36	C1. Giza garapena	24	Filosofia eta Gizarte-langintza	6	2	
				Antropologia eta Gizarte-langintza	6	1	
				Gizarte-langintzarako Psikologia	6	1	
				Gizarte-langintzarako Psikologia Soziala	6	4	
		C2. Egitura, desberdintasuna eta gizarte bazterketa	12	Soziologia eta Gizarte-langintza	6	1	
				Gizarte egitura eta estratifikazioa	6	4	
D. GIZARTE-LANGINTZARAKO LEGE ETA ANTOLAMENDU TRESNAK	24	D1. Zuzenbidea, herritartasuna eta gizarte-langintza	12	Herritartasuna eta Administrazio publikoa	6	2	
				Justizia-administrazioa eta gizarte-langintza	6	3	
		D2. Erakundeen kudeaketa	12	Gizarte-langintzarako Ekonomia	6	2	
				Gizarte Ongizate Erakundeen kudeaketa eta antolaketa	6	4	
E. PRAKTIKAK ETA GRADU AMAIERAKO LANA	66	E1. Praktiak	56	Errealitate sozialen behatokia	6	1	
				Baliabide sozialen behatokia	6	4	
				Jardute profesionalera hurbilpena	6	6	
				Kanpoko praktikak: Practicuma	32	7-8	
				Hezkuntza gainbegiraketa eta etika profesionala	6	7-8	
		E2. Gradu amaierako lana	10	Gradu amaierako lana	10	7-8	

² **1.ikasturtea:** 1. eta 2. lauhilabeteak

2.ikasturtea: 3. eta 4. lauhilabeteak

3.ikasturtea: 5. eta 6. lauhilabeteak

4.ikasturtea: 7. eta 8. lauhilabeteak

Gradu guztiak oraindik egiaztatu gabe daude

MODULUAK	ECTS	GAIAK	ECTS	IKASGAIAK	ECTS	LAUHIL.	
F. HAUTAZKOA	36	MINOR 1: Gatazkak:esku-hartzea eta eraldatzea.	30	Bake kultura	4,5	5	
				Gatazken teoria eta analisisa	4,5	5	
				Gatazken eraldaketarako gaitasunak	4,5	5	
				Gatazken eraldaketarako metodo eta teknikak	6	6	
				Emakumeen kontrako indarkeria: Prebentzioa eta esku-hartzea	4,5	6	
				Bitartekaritza eta Gizarte-langintza	6	7	
		MINOR 2: Komunitatearen sustapena	30	Bazterketa eta gizarteratzerako tresnak eta prozesuak	4,5	5	
				Parte-hartze soziala eta komunitate-garapena	4,5	5	
				Genero berdintasuna	4,5	5	
				Babes juridikoa ahuldade egoeretan	4,5	6	
				Komunitate-prebentzioa	6	6	
		Euskera	12		Gizarte eta kultur animazioa	6	7
					Euskara araua eta erabilera	6	6
					Komunikazioa euskaraz: giza eta gizarte zientziak	6	7

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Tituluko ikasketen plangintzan ECI/3854/2007 Agindua erabili da. Horrela, plana aipatutako aginduko moduluen arabera egituratzen da:

- Oinarrizko prestakuntzako modulua: 100 ECTS kreditu
- Modulu didaktikoa eta disziplinazkoa: 60 ECTS kreditu
- Practicum modulua: eskola-praktikak eta gradu amaierako lana barne hartzen ditu: 50 ECTS.

Prestakuntza Hautazkotasun modulua deritzonarekin osatzen da, 30 ECTS kreditu dituen; guztira, 240 ECTS kreditu dira. Gainera, azken modulu horretan honako hauek ere badaude: Erljioaren fenomenologia (6 kreditu) eta Euskara teknika (12 kreditu).

Hasierako prestakuntza planak modu nabarmenean lagundu beharko du ezagutza eskuratzen, trebetasunak garatzen eta pertsonen jarrerak egokitzen, irakasle bezala jarduten dutenean ikasketa autonomoaren eta kooperatiboaren bitartekari bezala arituko direnak.

- Barne koherentzia erraztuko duen ikasketen **EGITURA**: ikasgai guztiek partekatuko dute ECTS kreditu bat edo kreditu erdi seihileko bereko ikasgaiekin. Horrela, irakasleek elkargoan eta lankidetzan garatu beharko dute diziplina arteko proiektu bat. Proiektu horien helburua, landutako edukiak hobeto integratzea da, eta egindako ikasketei esangura handiagoa ematea.
- **PRACTICUMAK** garrantzia handia du prestakuntza-proposamenaren artikulazioan. Hiru egotaldi luze diseinatu dira Lehen Hezkuntzako zentroetan, bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturteetan egiteko.
- **GRADU AMAIERAKO LANA** aukera ona izango da eskuratutako ezagutza teorikoa eta praktikoa erabiltzeko, proiektuetan islatuko dena.
- **MINORRAK ESPEZIALIZAZIO BEZALA**: Bilboko Irakasleen Eskolan, titulazio horretako ikasleek honako minor hauek egin ahal izango dituzte: Atzerriko Hizkuntza, Musika Hezkuntza, Hizkuntzaren Aniztasuna Eskolan, Curriculum eta Baliabideak, eta Berrikuntza Haur Hezkuntzan. Minorrak eskuratzeko ikasgai multzoa zazpigarren eta/edo zortzigarren seihilekoetan eskainiko da.
- **HIZKUNTZAK GRADUAREN DISEINUAN**: Irakasleen prestakuntzako EHUko hiru eskolek duten helburua da hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 gaitasun-maila eskuratzea, erkidegoko bi hizkuntza ofizialean; B1 maila berriz, Europako hizkuntzaren batean mintzaira-maila bezala. Bilboko eskolan, ikasketen eskaintzaren arabera, ikaslea euskaraz edo gaztelaniaz matrikulatu daiteke lehenengo zikloan. Hirugarren ikasturtetik aurrera, ikasleak kredituen %25, gutxienez, egin beharko du euskaraz. Ikasle guztiek eskuratu behar izango dute B2 maila bigarren ikasturtea amaitzerakoan. Halaber, ikasketetan kredituen %80 euskaraz egiten dituzten ikasleek, gradua amaitzerakoan euskal hizkuntzako C1 lortzeko aukera izango dute.
- **GENERO ETA BERDINTASUN IKUSPEGIA IKASKETA PLANEAN**: Genero eta berdintasun ikuspegia modu koordinatuan landuko da ikasketa-plan honetako moduluetan.

IKASKETEN ANTOLAKETA

	kredituak 1.ikasturtea	kredituak 2.ikasturtea	kredituak 3.ikasturtea	kredituak 4.ikasturtea	GUZTIRA
Oinarrizko formakuntza	42	18			60
Derrigorrezkoak	18	34	48		100
Hautazkoak				30	30
Kanpoko Praktikak		8	12	18	38
Gradu amaierako lana				12	12
Kredituak guztira	60	60	60	60	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

DERRIGORREZKO IRAKASGAIK

(Irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira)

1. IKASTURTEA

- Arte plastikoak eta ikuste-kultura haur-hezkuntzan I
- Komunikazio-gaitasunaren garapena – euskara eta gaztelania – haur-hezkuntzan I
- Musika-adierazpenaren garapena I
- Garapen psikomotorra I
- Didaktika orokorra
- Irakaskuntza-funtzioa
- Hezkuntzaren psikologia
- Garapenaren psikologia eskola-adinean
- Hezkuntzaren soziologia
- Hezkuntzaren teoria eta historia

2. IKASTURTEA

- Eskola inklusiboaren oinarriak
- Gizarte- eta kultura-ingurunearen ezagutza
- Komunikazio-gaitasunaren garapena –euskara eta gaztelania – haur-hezkuntzan II
- Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan
- Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak haur hezkuntzan testuinguru eleanizetan
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak haur-hezkuntzan
- Ikastetxearen antolakuntza
- Haurtzaroren psikologia
- Practicum I

3. IKASTURTEA

- Arte plastikoak eta ikuste-kultura haur-hezkuntzan II
- Musika-adierazpenaren garapena II
- Garapen psikomotorra II
- Hizkuntzaren eta literaturaren didaktika
- Hizkuntzaren didaktika eta atzerriko hizkuntza
- Zientzia esperimentalak haur hezkuntzako ikasgelan
- Pentsamendu matematikoa eta bere didaktika
- Practicum II

4. IKASTURTEA

- **Hautazkoak: 30 kreditu (Aipamena)**
- **Practicum III**
- **Gradu Amaierako Proiektua**

HAUR HEZKUNTZA GRADUKO AIPAMENAK

* CASTELLANO

** EUSKARAZ

*** FRANTSES

**** INGELES

1- Haur Hezkuntzako eskolaren berrikuntza

- Hizkuntzak eta Berrikuntza Haur Eskolako gelan**
- Zientzien eta Matematikaren Irakaskuntzarako Joera Berriak**
- Giza Ezagutzarako Proiektuak eta Berrikuntzak
- Artearen eta Ikus-Kulturaren Ekarpinak Berrikuntzarako**
- Haur Hezkuntzako Lehen Ziklora Bideratutako Estrategia eta Teknika Psikomotoreak**

2- Atzerriko Hizkuntza ****

- Komunikazio-Gaitasuna Ingelesean****
- Komunikazio-Gaitasunaren Garapena Ingelesean****
- 2. Atzerriko Hizkuntza: Frantsesa***
- Atzerriko Hizkuntzaren Didaktika: Ingelesa****
- Ingelesa Haur eta Lehen Hezkuntzako Gelarako ****

3- Musika Hezkuntza**

- Entzumen Hezkuntza**
- Ahots Hezkuntza Eta Kantua**
- Erritmoa, Mugimendua eta Dantza**
- Musika Tresnetarako Heziketa**
- Hizkuntzen Arteko Interakzioa. Ikus-Entzunezko Kultura. Azterketa Genero Ikuspegitik**

4- Curriculuma eta Baliabideak

- Zientzien Irakaskuntzarako Baliabide, Tresna Eta Ekintzak**
- Matematika Tailerra**
- Irakasteko Baliabideen Gaineko Ikerketa**
- Curriculuma eta Baliabide Didaktikoak Giza Zientzietan*
- Hizkuntza eta Literatura. Ikasteko eta Irakasteko Baliabideak*

5- Hizkuntzaren Aniztasuna Eskolan

- Hizkuntza Estandarra eta Aldaerak Eskolan**
- Hizkuntza eta Gizartea Euskal Herrian**
- Hizkuntzen Didaktikarako Ikuspegi Berriak**
- Ikastetxeko Hizkuntza-Proiektua*
- Ikasle Etorrientzako Bigarren Hizkuntzaren Didaktika*

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Bilboko Irakasleen Eskolak hurrengo mugikortasun programak eskaintzen ditu:

SICUE

Universitat Autònoma de Barcelona

Univesitat de Barcelona

Universidad Autónoma de Madrid

Universitat de Girona

Universidad de Granada

Universitat Illes Balears

Universidad de la Laguna

Universitat Rovira I Virgili

Universidade de Santiago de Compostela

Universidad De Valladolid

ERASMUS

Hanze Univesity Groningen (Nederland)
Libera Università Maria Ss Assunta (Italia)

UPV/EHU – América Latina

Hanze Univesity Groningen (Nederland)
Libera Università Maria Ss Assunta (Italia)
U. Privada Santa Cruz de la Sierra (Bolivia)
U. Del Estado de Santa Catarina (Brasil)
U. Pontificia Católica De Chile (Chile)
U. Adolfo Ibáñez (Chile)
U. Pacífico(Chile)
Pontificia U. Católica de Valparaíso (Chile)
U. Tecnológica Equinoccial de Quito (Ecuador)
Instituto Tecnológico de Sonora (ITSON) (Mexico)
U. De Montevideo (Uruguay)

BESTE BATZUK

U. Estatal Boise (Idaho)
San Diego State University (California)
Universidad Ateneo De Manila (Filipinas)
Aldersgate Collage (Filipinas)
Universidad Estatal Nueva Vizcaya (Filipinas)

PRAKTIKAK

Haur Hezkuntzako Gradu tituluko practicumean ikasleek euren garapen profesionalari hasiera ematen diote, baldintza errealetan; oinarrizko zutabea da euren prestakuntzan. Practicumaren bitartez, ikasleak gelaren konplexutasunaren eta kudeaketaren ezagutza zuzena eskuratzea lortu nahi da, eta, horrez gain, ikasitako eduki teorikoak gelako eta ikastetxeko errealitatearekin lotzea, horiei zentzua emanaz.

Praktiken egotaldiak hezkuntza zentro baten egiten dira, hiru ikasturtetan: Practicum I 2. ikasturtean, Practicum II 3. ikasturtean, eta Practicum III 4. ikasturtean. Esperientzia horiek guztiak eta horiei buruzko hausnarketa amaierako memoria batean agertu behar dira.

PRAKTIKETAKO IKASLEEN MUGIKORTASUNA

Zentroak esparru akordio bat sinatuta dauka Lenguaje Activities Internacional-ekin (LAI), OAPEE-k deitutako PAP programen babesean. Bertan, Bilboko Irakasleen Eskolako ikasleek Irlandan egiten dituzten praktikak arautzen dituzten jarraibideak ezarri dira.

Bestalde, MEC-ekin egindako lankidetzak akordioak terminoak ezartzen ditu ikasleek Londreseko Instituto Español Cañada Blanch institutuan egingo dituzten praktiketarako.

Lankidetzak programetako praktikak EHUK eta programak burutzen dituzten GKEek sinatutako akordioak arautzen ditu.

LORTUTAKO GAITASUNAK eta GRADUATU PROFILA

Haur Hezkuntzan lan egingo duten maisu-maistrek gelan egiten duten lanari dagozkion curriculum diseinuetan agertzen diren arloak ezagutu eta jakin beharko dituzte. Horrela, korrespondentzia egokia ezarri beharko dute edukien izaera- eta konplexutasun-mailaren eta ikasleen garapen-mailaren artean; betiere, umeei modu autonomoan ikastea sustatzeko ahalegina egin beharko dute. Horretarako, honako hauek egin beharko ditu:

- Esperientziaren eremu desberdinetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutu eta ulertu, ezagutzaren arlo desberdinetako azterketetan, eta horietan oinarrituz burututako esperientziarik arrakastatsuenetan oinarrituz.
- Euren lankideekin taldean lan egin, jarduera profesionala hobetu dezaketen jakintza eta esperientziak partekatuz, eta, betiere, norberaren eta gainontzekoen lanarekiko errespetua agertuz.
- Dagokien taldean jarduteko eta berau kudeatzeko testuinguru soziala modu kritikoa aztertzeko gai izan. Horretarako, dauden aspektu interaktiboak ezagutu beharko dituzte, eta testuinguru horien kalitatea mantentzen duten estrategiak diseinatu. Zentzu horretan, betiere ikuspegi errealista batetik abiatuz, maisu-maistra izango direnek ardurak eta erabakiak hartu behar izango dituzte; horrela, prest agertu behar dira euren jarduera berrikusteko, eta prozesuan sor daitezkeen zailtasunak erlatibizatu eta gainditzeko, horiek hobetzeko neurriak hartuz.
- Hezkuntza-ikerketako ikuskerak aztertu eta zalantzan jarri. Halaber, informazio-bideak eta komunikabideak modu kritikoa erabili, gizarteko eta kulturako testuinguru aldakorrei egokitzapen eta erantzun egokia emateko ikasketa, ikerketa eta lankidetzalana sustatzeko asmoz.
- Koordinazio funtzioa izan, familiekin bilduz eta sarean lan eginez hezkuntza komunitateko eta inguruko beste kide batzuekin; halaber, diziplina anitzeko izaera duten esku-hartzeak sustatu, haurren ahalmen guztiak ahalik eta gehien garatzeko.

LANERATZEA

2007ko EGAILAN txostenaren arabera, laneratzeko prozesuan, Haur Hezkuntzako maisu-maistra tituluak gorako indizea dauka, 2005ean %83a izan zen, 2006an %86,8koa eta 2007an %89,8ra heldu zen.

Haur Hezkuntzako titulazio dunak lan merkatuan guttiz ondo integratzen dira, EHUko titulazioen artean gehien.

Haur Hezkuntza titulazioa enplegu tasa handia dutenen artean dago kokatuta; 68 titulazio artean 34. lekuan dago enplegu tasaren rankingean, %92ko tasara heldu delarik. Ikasketak amaituta 10 hilabete behar izan dira lehenengo lanean aritzeko.

EZARPEN KRONOLOGIA

1. ikaturtea: 2010/11

2. ikasturtea: 2011/2012

3. eta 4. ikasturteak: 2012/2013. Ikasturte biak era berean zabalduko dira, horrela nahi duten diplomatuak gradura egokitzeko aukera izan dezaten. Horretarako, ikasgaien taula prestatu da, oraingo diplomaturetatik gradu berrietara pasatzea ahalbideratuko duena.

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola

www.irakasleen-ue-donostia.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA (%10 gaztelaniaz)

Haur Hezkuntzako curriculum diseinuetako arloak menperatzeko behar diren ezaguerak sakonki ezagutu, bere izaera eta bere zailtasun maila 0-6 urteko ikasleriaren prozesu kognitiboen garapen mailarekin erlazionatuz, eta haur hezkuntzako ikasleriaren gaitasun guztien ikaskuntza bultzatuko dituzten irakaskuntza/ikaskuntza prozesuak:

- Haurren esparru fisiko, intelektuala, afektiboa eta sozialaren garapen integrala eta orekatua.
- Garapen afektiboa, gorputzaren kontrolerako mugimenduak eta ohiturak, komunikazioa eta hizkuntzaren adierazpenak, bizikidetzeta eta gizarte erlazioen oinarritzko jarraibideak, zentzumen-hezkuntzaren bitartez ingurune fisiko eta sozialaren ezaugarrien aurkikuntza.
- Norberaren irudi positiboa eta orekatua eraiki eta gero eta autonomia pertsonal handiagoa izan.

Halaber oinarritzko kompetentzien garapena bultzatu nahi dira: Norbanaka eta taldean Arduraz eta autonomiaz bizi, Ikasten eta pentsatzen ikasi, Hizkuntza ofizialetan, eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean hitz egin, elkarrekin bizi, pertsona gisa garatu eta, egin eta ekin.

SARRERAKO PROFILA

Pertsona heldua eta orekatua, berritzailea, erantzulea, aurkitzeko bokazioa eta jakinmina, 0-6 urteko haurren ezaugarriak sakontzeko eta analizatzeko gogoia, egungo kultur eta hizkuntzen aniztasunerako sentikortasuna eta jarrera positiboa, pertsonarteko komunikaziorako, maisu eta maistren hezkuntza eta gizarte jardueretako, eta, 0-6 urteko haurrekin hezkuntza jardueretako arlo guztien edukien eta estrategia metodologikoen ezaguerarako.

IKASKETEN ANTOLAKETA

		Kredituak						Guztira
		Oinarritzko Prestakuntza	Beste adar batzuetako irakasgaiak	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu Amaierako Lana	Practicum	
Ikastaroak	1º	42	0	18	0	0	0	60
	2º	18	0	34	0	0	8	60
	3º	0	0	48	0	0	12	60
	4º	0	0	0	30	12	18	60
	Guztira	60	0	100	30	12	38	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Derrigorrezko Irakasgaiak:

- Arte Plastikoak eta Ikuste-Kultura Haur-Hezkuntzan I eta II
- Musika-Adierazpenaren Garapena I eta II
- Garapen Psikomotorra I eta II
- Gizarte eta Kultura ingurunearen ezagutza
- Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan
- Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika

- Komunikazio Gaitasunen garapena – Euskara eta Gaztelania – Haur Hezkuntzan I eta II
- Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Haur Hezkuntzan Testuinguru eleanitzetan
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
- Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza
- Hezkuntzaren Psikologia
- Garapenaren Psikologia Eskola Adinean
- Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan
- Hautzaroaren Psikologia
- Didaktika Orokorra
- Irakaskuntza-Funtzioa
- Hezkuntzaren Teoria eta Hezkuntza
- Ikastetxearen antolakuntza
- Eskola Inklusiboaren oinarriak
- Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Haur Hezkuntzan
- Hezkuntzaren Soziologia (*)
- Practicum I, II eta III
- Gradu Amaierako Proiektua.

(*) Eleaniztasun plana –ingelera- 2009/10 ikasturtetik aurrera

Hautazko irakasgaiak edo minorra edo mentzioa:

- HAUR HEZIKETAKO TAILERRAK. Haur heziketako geletan irakaskuntzan jarduteko hainbat curriculum eta estrategia metodologikoak sakonduko dira: Giza inguruan esperimendazio tailerra, Gorputz, musika eta plastika adierazpenerako baliabide tailerra, Ahozko adierazpenerako baliabide tailerra, Adierazpen eta errepresentazio matematikorako baliabide tailerra eta Haur Heziketarako Zientzia Tailerrak.
- HEZIKETA BEREZIA. Haur Heziketan hezkuntza premia bereziei erantzuteko konpetentziez hornitu nahi dira irakasleak. Irakasgaien gaiak hezkuntza premiei buruzkoak izango dira, hezkuntza premiei eman beharreko erantzunak, eta baita premiak dituzten ikasleekin jarduteko baliabideak.
- ATZERRIKO HIZKUNTZA (*) Haur heziketako etorkizuneko irakasleei ingeleraren irakaskuntzari era egokian erantzuteko beharrezkoak diren konpetentziez hornitzea da bere helburua: Ingeleraren konpetentzia komunikatiboak I y II., Ingeleraren didaktika I y II eta ingelera. Ingelera maila behar da, Erreferentziako europear B2 maila komuna. Titulu ofizialaren bitartez ziurtatu beharko da (Hizkuntza Eskola ofiziala, University of Cambridge ESOL examinations...) edo maila finkatzeko froga bereziak erabiliz.
- EUSKARA, IRAKASKUNTZA TRESNA. Haur heziketako etorkizuneko irakasleei euskararen irakaskuntzari era egokian erantzuteko konpetentziez hornitzea da bere helburua: Irakurzaletasunerako gonbitea , Hizkuntza eta teknologia: baliabideak, Haur eta gazte literatura, Ahozko Euskal Literatura eta Eskola testuen tailerra.

Ikasleriak erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan Erreferentziako europear C1 maila komuna lortu beharko du eta Ingelerarentzat Erreferentziako europear B2 maila komuna lortu beharko du. Horretarako ikasle bakoitzak 24 kreditu gaztelaniaz egin beharko ditu ezaguera arlo ezberdinetako irakasgaiak eginez (ibilbide formatzailearen %10).

(*) Eleaniztasuna

Gradu amaierarako lana

Lortutako ezaguera teorikoa eta praktikoa erabili beharko da eta problemen ebazpenaren bitartez ezaguera berriak sortu beharko dira: Eskolako prozesuen hobekuntzara bideratutako proiektuen diseinurako informazio baliagarria hautatzeko, analizatzeko eta sintetizatzeko, eta argumentazioan, epai akademiko eta profesionalen igorpenean, erabakien hartzean, eta, bai taldeka bai bakarka, hezkuntza arazoan ebazpenean hausnarketak burutzerakoan autonomia erakusteko.

Proiektuek hezkuntza proposamenak eta proposamen didaktikoak (gida didaktikoak, irteera didaktikoak,...), eskola inguruneak eta eskola kanpoko landa ikerketak, gure inguruneak proiektu berritzaileen azterketa deskriptiboak, bibliografian oinarritutako lan monografikoak, material didaktiko berritzaileak, irakaskuntzarako baliabideen inbentarioen elaborazioa, eta, material didaktikoen analisia eta didaktikoa (multimedia materialak adibidez) elaboratzea erraztu behar dute.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

- Erasmus (Università degli Studi di Urbino (Italia), Universidade do Porto (Portugal), Arteveldehogeschool Gent (Bélgica), Universidade de Aveiro (Portugal), Inst. Superior de Ciências Educativas – Lisboa, Manchester Metropolitan University eta Copenhagen University College of Teacher Education
- Sicue-Séneca (Granadako unibertsitatea (Melilla), Sevillako Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Rovira i Virgili unibertsitatea(Tarragona), La Lagunako unibertsitatea (Tenerife) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Hegoamerika

PRAKTIKAK

Titulazio berrien practicumak jardura profesionalerako beharrezko trebeziak, ezaguerak, kompetentziak eta praktikak lortzeko aukera ezin hobea eskaintzen die ikasleei, halaber egindako ikasketei buruzko hausnarketak egiteko aukera aproposa da. Ikaskuntza iturria, esanguratasuna eta kontrastearen aukera suposatzen du.

Practicum-a haur heziketako hiru ziklotan garatuko da, graduan zehar, hiru blokeetan deskonposatuko delarik (Practicum I, Practicum II eta Practicum III)

Bigarren ikasturtetik aurrera egin beharko da, EAEko eskola testuinguruen aniztasunaren arabera segida gorakorra jarraituz eta espezifikotasuna kurtsoz kurtso handiagotzen delarik. Espezifikotasun handiena mentzioko praktikak suposatuko dute 4. ikasturtean.

Intentsiboak izan daitezke edo eskola eta unibertsitate garaiek tartekatzen daitezke, hausnarketa eta akzioa elkarren artean tartekatzen eta elikatzen direlarik.

LORTUTAKO GAITASUNAK

- Haur Heziketako arlo curricularrak ezagutu, elkarren arteko diziplinarteko erlazioa, ebaluazio irizpideak eta irakaskuntza/ikaskuntza prozeduren inguruko ezagutzen gorputza.
- Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak diseinatu, planifikatu eta ebaluatu, bai bakarka, bai beste irakasle eta beste profesionalen artean.
- Kultura aniztasuna eta hizkuntza aniztasuna testuinguruetan hizkuntzen ikaskuntza era eraginkorrean burutu.
- Irakurketa bultzatu eta irizpideak jarraituz eskola curriculumaren edukien arlo zientifiko eta kulturalen testuen iruzkin kritikoa bultzatu.
- Aniztasun testuinguruetan ikaskuntza guneak erregulatu eta diseinatu, eta baita, generoen berdintasuna eta bizikidetzaren formazioaren baloreen baitan giza eskubideen errespetua kontutan hartuko dituztenak.
- Gelan eta gelatik kanpo bizikidetzeta bultzatu, diziplina arazoak ebatzi eta arazoek bake ebazpenaren alde egin. Ikasleen esfortzua, jarraitasuna eta diziplina pertsonala estimulatu eta baloratu.
- Haur Heziketako ikastetxeen antolamendua ezagutu eta bere funtzionamenduan dauden akzioak ezagutu. Ikasle eta familien tutore eta orientazio funtzioak burutu, ikasleen hezkuntza premia bereziak kontutan izanik. Irakaskuntzaren funtzioak garatzerakoan aldaketa zientifikoak, pedagogikoak eta gizarte mailakoak bizitza osoan zehar aldatuz eta hobetuz joan behar dutela barneratu.
- Hezkuntza komunitatea eta giza inguruaren sektore ezberdinekin kolaboratu. Irakaskuntza funtzioaren dimentsio hezitzailea barneratu eta bizikidetzeta aktiborako hezkuntza demokratikoa bultzatu.
- Jakintzei buruz, baloreei buruz eta giza erakunde publiko eta pribatuei buruz erlazio kritikoa eta autonomia mantendu.
- Norbanako ardurak eta ardura kolektiboak etorkizun iraunkorra lortzeko baloratu.
- Irakaskuntza jarduerak berritzeko eta hobetzeko gelako praktikei buruz hausnarketak burutu. Ikaskuntza autonomo eta talde mailarekiko ikaskuntzetarako trebeziak eta ohiturak lortu, eta ikasleen artean erabili.
- Komunikazio eta informazio teknologiak ezagutu eta geletan aplikatu. Ikaskuntzak eragingo dituzten, bizikidetzarako prestatuko dituzten eta kulturaren aberastasuna adieraziko dituzten ikus entzunezko informazio aproposak bereizi.
- Hezkuntzaren funtzioa, bere aukerak eta mugak egungo gizartean ulertu, eta baita eskoletan eta bertan aritzen diren profesionalen funtsezko gaitasunak ulertu. Kalitatea hobetzeko ereduak ezagutu ikastetxeetan aplikatzeko.
- Euskara eta gaztelania menperatu, eta gutxienez atzerriko hizkuntza europearra, eleanitz hezkuntza testuinguruan aritzeko egokia eta zuzena den ekoizpena eta ulermena frogatuz, hizkuntza eta kultura aniztasun jarrerak garatuz.
- Arauen onarpenaz eta besteekiko errespetuaz taldean hausnartu. Bizi kide eta lan pertsonala zein ingurumen naturalarekiko, gizarte mailarekiko eta kulturalarekiko arauen errespetua bultzatzen duten gaitasun sozialak garatu. . Ikasle bakoitzaren autonomia eta berezitasuna bultzatu haurtzaroko emozio, sentimentu eta baloreen hezkuntzaren eragile gisa.
- Haurtzaroko mintzairaren bilakaera ezagutu, disfuntzio posibleak identifikatu eta bere bilakaera egokia bermatu. Kultur aniztasunaren eta hizkuntzen aniztasunaren testuinguruetan hizkuntzen ikaskuntza egoerak eraginkortasunez landu.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren hezkuntza ondorioak ezagutu eta, bereiziki, telebistarena haurtzarokoan. Informazioaren eta komunikazioaren bide anitzak kritikoki erabili, informazio iturrietara sartzeko eta komunikazioa eta ikaskuntza jarduerak laguntzeko.

GRADUATU PROFILA (IRTEERAKO PROFILA)

Bost ardatzen inguruan egituratzen da:

- Esperientzia alor ezberdinetara aplikatutako ezaguera pedagogikoak ezagutu eta ulertu, ezaguera arlo ezberdinetatik datozen ikerketetan eta horietatik abiatuz egindako esperientzia arrakastatsuetan oinarrituz.
- Lankideekin ekiptoan lana egin, jarduera profesionalaren hobekuntza ahal bideratzen duen ezaguerak eta esperientziak konpartituz, norberaren lanarekiko eta besteen lanarekiko errespetuzko jarrera erakutsiz.
- Dagokien taldean aritzeko eta kudeatzeko testuinguru soziala kritikoki analizatu, testuinguru horien kalitatea mantentzen duten estrategietan parte hartzen duten eta diseinatzen duten alderdi interaktiboak ezagutuz. Bide honetan, benetako ikuspegitik abiatuz, etorkizuneko irakasleak ardurak izan eta erabakiak hartu beharko ditu, norberaren jokaera errebisatzeko prest egonik, eta prozesuan sor daitezkeen zailtasun posibleak erlatibizatzen eta gaituzteko, eta hobekuntzarako bideratutako neurriak hartzeko.
- Hezkuntza ikerketatik lortutako kontzepzioak analizatu eta kuestionatu, informazio eta komunikazio bideak kritikoki erabili, testuinguru aldakorretan egokitze eta erantzun eraginkorraren eskaintza ahal bideratuko duen ikaskuntza, ikerketa eta lan kooperatiboa errazteko.
- Koordinazio funtzioetan aritu, familiarekin bilerak eginez eta zein gizarte zein hezkuntza komunitatearekin sarean lanean arituz, 0-6 urteko ikasleen ahalmen guztiak ahalik eta gehien garatzeko diziplina arteko parte hartzea bultzatuz.

LANERATZEA

Laneratzea ikastetxe publiko zein pribatuko euskara-ingelera-gaztelania hizkuntza profila duen Haur Heziketako irakaslea da. Mentzioaren edo hautazkoaren aukeraketak laneratzean eragina izan dezake (profil zehatzagoa).

Euskarazko profila duen Haur Heziketako irakaslearen laneratzea UPV/EHU-arena baino hobea da. %90ekoa da eta urtez urte hobetzen joan da. Enplegu tasa handia da eta lanean diharduten profesionalen erretiroaren handitzeak langabezia gutxiagotuko du eta lehen lana aurkitzeko denbora murriztuko du.

EZARPEN KRONOLOGIA

2010/11 ikasturtean ezartzen hasiko da, urtez urte ezartzen jarraituko duelarik: 2011/12an 2. ikasturtea, 2012/13an 3. ikasturtea eta 2013/14an 4. ikasturtea.

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola
www.irakasleen-ue-gasteiz.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Maisu-maistrek haur hezkuntzako etapan lan egiteko jasotzen dute prestakuntza. Etapa hau ez da derrigorrezkoa da eta 0 urtetatik 6 urtetara luzatzen da. Bere xedea ikasleen garapen pertsonala nahiz soziala bultzatzea da ikasgai mota guztietako (artistikoak, zientifikoak, linguistikoak, matematikoak, psikomotoreak nahiz teknologia berrien ikaskuntza) irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen bitartez. Parentesian aipatutako ikasgaiak direla, prozesu kognitiboak direla, edota lehen hezkuntzaren edukien ikaskuntza errazten duten estrategia metodologikoak direla, Gasteizko Irakasleen UEn prestakuntzak nahi du irakasleek inguru hurbileko nahiz nazioartekoa ikerkuntza ezagutzea.

SARRERAKO PROFILA

Titulazioa hauek ikasten hasiko diren pertsonak honako ezaugarri hauek izan behar lituzkete:

- heziketa premiak ezagutzeko eta hauei erantzuna emateko interesa
- gogoeta egiteko eta taldeka lan egiteko gaitasuna
- enpatia eta elkarreraginerako gaitasuna
- jarduerak eta baliabideak antolatze dohaina
- aho, keinu eta gorputz adierazpenerako erraztasuna

IKASKETEN ANTOLAKETA

	Kredituak 1.ikasurtea	Kredituak 2.ikasurtea	Kredituak 3.ikasurtea	Kredituak 4.ikasurtea	GUZTIRA
Oinarrizko formakuntza	42	18			60
Derrigorrezkoak	18	34	48		100
Hautazkoak				30	
Kanpoko Praktikak		8	12	18	38
Gradu Amaierako Lana				12	
GUZTIRA	60	60	60	60	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA3

1. mailako modulu eta irakasgaiak	ECTS kredituak	Lauhilekoa (C) Urte osokoa (A)	Nahitaezkoa (OB) Hautazkoa (OP)	Hizkuntza (CEO)
Komunikatzeko Gaitasunaren Garapena – Gaztelera eta Euskara–Haur Hezkuntza I	6	C	OB	
Didaktika Orokorra	6	C	OB	
Irakaskuntza Funtzioa	6	C	OB	
Musika Adierazpenaren Garapena I	6	C	OB	
Arte Plastikoak eta Ikus Kultura Haur Hezkuntza I	6	C	OB	
Hezkuntzaren Psikologia	6	C	OB	
Garapenaren Psikologia	6	C	OB	
Garapen Psikomotorea I	6	C	OB	
Hezkuntzaren Soziologia	6	C	OB	
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	6	C	OB	

2. mailako modulu eta irakasgaiak	ECTS kredituak	Lauhilekoa (C) Urte osokoa (A)	Nahitaezkoa (OB) Hautazkoa (OP)	Hizkuntza (CEO)
Giza eta Kultur Inguruaren Ezagutza	6	C	OB	
Eskola Barne-hartzailearen Oinarriak. Heziketa Berezia	6	C	OB	
Garapenaren eta Ikaskuntzaren Trabak	6	C	OB	
Komunikatzeko Gaitasunaren Garapena – Gaztelera eta Euskara – Haur Hezkuntza II	6	C	OB	
Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Inguru Eleaniztunetan	6	C	OB	
Ikastetxearen Antolamendua	9	A	OB	
Practicum I	9	A	OB	
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak Haur Hezkuntza	6	C	OB	
Hautzaroaren Psikologia	6	C	OB	

³ Minor delakoei dagozkienak izan ezik, ikasgai guztiak euskaraz nahiz gaztelerez emango dira.

3. mailako modulu eta irakasgaiak	ECTS kredituak	Lauhilekoa (C) Urte osokoa (A)	Nahitaezkoa (OB) Hautazkoa (OP)	Hizkuntza (CEO)
Arte Plastikoak eta Ikus Kultura Haur Hezkuntzan II	6	C	OB	
Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika	6	C	OB	
Practicum II	11	A	OB	
Atzerriko Hezkuntza eta bere Didaktika	9	A	OB	
Musika Adierazpenaren Garapena II	6	C	OB	
Garapen Psikomotorea II	6	A	OB	
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika	9	A	OB	
Natur Zientziak Haur Hezkuntzako Gelan	7	C	OB	
4. mailako modulu eta irakasgaiak	ECTS kredituak	Lauhilekoa (C) Urte osokoa (A)	Nahitaezkoa (OB) Hautazkoa (OP)	Hizkuntza (CEO)
Practicum III	18	A	OB	
Gradu Amaierako Lana	12	A	OB	

MINOR etaosatzen duten irakasgaiak	Kredituak
Adierazpena eta komunikazioa Dramatizazioaren bitartez Har Hezkuntzan	30
1. Hizkuntza Plastikoa eta Ikus Hizkuntza	6
2. Musika Hizkuntza	6
3. Gorputz Hizkuntza	6
4. Adierazpena eta Hitzezko Komunikaziorako Trebetasunak	6
5. Teknologia Berriak Adierazpenerako Bide gisa	6

MINOR etaosatzen duten irakasgaiak	Kredituak
Hizkuntzen Trataera Integratua	30
1. Hizkuntzen Irakaskuntzaren Oinarri Teorikoak I: Linguistikatik eta Soziolinguistikatik hurbiltzea	6
2. Hizkuntzen Irakaskuntzaren Oinarri Teorikoak II: Soziolinguistikatik hurbiltzea	6
3. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua: Heziketa Eleaniztuna dela eta, Zenbait Ereduren Anlisi Kritikoa. Estamentu Guztien Inplikazioa. Kudeaketa eta Koordinazioa	6
4. Zenbait Hizkuntzen Zeharkako Ikasketa. Hizkuntzen Arteko Anlisa eta Gogoeta	6
5. Hizkuntzen Curriculum Integratua Lantzeko Oinarriak. Proposamen Didaktiko Integratuen Plangintza	6

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Gasteizko Irakasleen UEk UPV-EHUren Mugikortasun Programetan parte hartzen du Nazioarteko Errektoreordetzaren bitartez. UEko Nazioarteko Harremanetarako Zuzendariordeak ikastetxeko ikasleen mugikortasuna planifikatzen eta kudeatzen du

- SICUE/SENECA
- ERASMUS
- UPV-EHU/LATINOAMERIKA
- BESTERIK

PRAKTIKAK

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Administrazioak eta UPV-EHUK egindako hitzarmenaren bidez horretarako aitorpena jaso duten Haur Hezkuntzako ikastetxeetan egiten da Practicuma.

Halaber, praktikak egiteko hitzarmena dago ondoko erakundeekin:

- Gasteizko Udalaren Hezkuntza Saila
- Euskadiko EIEF-FERE
- PARTAIDeko ikastolak
- Aipatutako sareez kanpo dauden Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak
- Consorcio de Escuelas Infantiles / Haur Eskolen Partzuergoa
- Manuel Iradier Erakundea
- Ekilore Munduan

Praktika aldian ikasleak ikastetxeetan bertaratu behar dira. Bere tutoretzaren ardura da unibertsitateko irakasleena ez ezik, baita horretarako akreditazioa duten Haur Hezkuntzako irakasleena ere.

Ikasleek hiru egonaldi egingo dituzte haur hezkuntzako ikastetxeetan, bigarren, hirugarren eta laugarren mailetan zehar. Egonaldiak aberasteko asmoz, zenbait hitzaldi, mintegi, banako tutoretza... antolatuko dira.

Ikasleek jarduera osagarri hauek nahiz ikastetxeko egonaldietan izandako esperientzia azaldu beharko dituzte txosten batean.

LORTUTAKO GAITASUNAK

Titulazioaren gaitasun orokor gisa, honako hauek aipatuko ditugu:

- Esperientzia eremuetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
- Ikaslagunekin taldeka lan egitea, ezagutzak nahiz esperientziak partekatuz eta, norberaren lana dela, besteena dela, betiere begirunea erakutsiz.
- Inguru sozialaren analisi kritikoa egitea, esleitu zaien ikasleen taldea kudeatzeko.
- Hezkuntza ikerketatik sortutako ikuspegiak eta proposamenak kritikoki aztertzea eta zalantzan jartzea; halaber, komunikabideen erabilera kritiko egitea, beti ikaskuntza, ikerketa eta lan kooperatiboak errazteko asmoz..
- Koordinazio funtzioa betetzea, familiekin elkartzuz eta sarean lan eginez, bai hezkuntza komunitateko, baita inguru sozialeko beste kide batzuekin ere.

GRADUATU PROFILA

Haur Hezkuntzan (0-6 urte bitarteko ikasleak) maisu-maistra moduan lan egiteko gaitasuna ematen du ondoko inguruetan:

- Ikastetxe publikoak, kontzertatuak eta pribatuak
- Ama-haur ospitaleak
- Haurrentzako arreta zerbitzua duten presondegiak
- Haurrentzako eta adin txikikoentzako erakunde publikoak.
- Haurrentzako GKEak (Gobernuz kanpoko erakundeak)
- Akademiak
- Eskola jantokiak
- Ludotekak
- Udalekuak
- Liburutegiak

Halako inguruetan bete beharreko funtzioak ondokoak izango dira bereziki:

- Umeen gaitasun mota guztien garapena bultzatzea: kognitiboak, fisikoak, emozio afektiboak, sozialak, autonomia pertsonala
- Etxeko nahiz eskolako inguruarekin umeei adierazpen eta komunikazio zenbait mota ikastea.
- Natur eta giza inguruen behaketa eta ezagutza erraztea
- Ikasleen garapen pertsonala bultzatzea eta beren aurrerapenen berri familiei ematea.

LANERATZEA

Gaur egun gure zentroan hiru titulazio ematen dira (Haur Heziketako Irakaslea, Lehen Hezkuntzako Irakaslea eta Gorputz Heziketako Irakaslea). Hiruretatik azkena ez da emango aurrean. Gorputz Heziketako espezializazioak bere Minor-a izango du.

Gasteizko Irakasleen UEk ematen dituen titulazioei dagokienez, Egailan inkestak 2003 urteko ondoko datuak argitaratu ditu:

Titulazioa	Jarduera tasa	Lan tasa	Langabezi tasa
Maisu-maistra: Gorputz Hezkuntza	%96	%89	%9
Maisu-maistra: Haur Hezkuntza	%97	%90	%8
Maisu-maistra: Lehen Hezkuntza	%93	%76	%18

EZARPEN KRONOLOGIA

ANECaren oniritzia jasoz gero, **lehen maila 2010/11** ikasturtean emango da, ondoren ikasturteko maila berri bat ezarriko da titulazioa osatu arte.

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOKO GRADUA

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

www.gizarte-komunikazio-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIPZIOA

Ikus-entzunezko komunikazioa graduak, ikasleak XXI. mendeko komunikabide eta euskarrietan (internet, bideo-jokoak, telebista, irratia, zinea, multimedia teknologia berriak eta telefonia mugikorra) ikus-entzunezko egitasmo berritzaileak sortu eta abian jartzeko gaitasuna garatzea du helburu. Ikasketa plana trebakuntza teoriko orekatuan oinarritzen da eta baita formazio praktikoan ere, arloko profil ezberdinei egokitua. Fakultateak instalazio berriak ditu, ikasleek egitasmo praktikoak egin ditzaten, arlo honetan prestakuntza sendoa bermatzen dutenak. Gainera, enpresetan egiten diren praktikak eta atzerriko unibertsitateekin egindako ikasle-trukerako programak ikas-prozesua osatzen dute.

SARTZEKO PROFILA

Sarbiderako eskakizunak betetzeaz gain, Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleak produkzio klasiko ugari eta aberatsaren gaineko interesa behar du izan, bai eta arlo honetako sormenezko proposamen berrien gainean ere (telebista, zinema, irratia, Internet, bideo-jokoak, eta multimedia formatu berriak). Izan ere, Internet eta teknologia berriak erraztasunez erabili behar ditu. Kultura maila ona, hizkuntzak jakitea, sormena izatea eta berritzailea izatea baloratzen da.

IKASKETEN ANTOLAKETA:

		Kredituak					
		Oinarrizko formazioa	Beste alor bateko irakasgaiak	Berariazkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako egitasmoa	GUZTIRA
Ikastaroak	1.	54	6				60
	2.	24		36			60
	3.			30	30		60
	4.			30	18	12	60
	GUZTIRA	78	6	96	48	12	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduak lau urteko iraupena du eta bi ziklotan banatzen da, ziklo bakoitzak bi ikasturte-modulu dauzka. Lehenengo zikloan oinarrizko konpetentziak jorratzen dira; bai praktikoak bai komunikazioko edozein profesionalek jaso behar dituen gaitasun teorikoak. Izan ere, lehenengo ikasturte-modulua komuna da Kazetaritza eta Publizitatean eta Harreman Publikoak eta Publizitatean. Bigarren modulu-ikastaroan hamar materietako sei Publizitatean eta Harreman Publikoetan dira komunak eta lau Kazetaritzan.

Bigarren zikloak ikus-entzunezko komunikazioaren hainbat alorretan trebatzea du helburu. Bi moduluek profil praktikoagoa dute eta hautazko gaiak eskaintzen dituzte, eta ikasleei arlo honetan euren profil profesionala diseinatzeko aukera ematen diote.. Bigarren ziklo honek bi aipamen ditu:

- *Ikusizko-ikasketen gaineko Aipamena* ikusizko-kulturan berezitasuna lortu nahi duten ikasleei zuzenduta dago, merkatuak eskatzen dituen ikus-entzunezko formatu berritzaileak sortzeko. Bost gai (30 kreditu) ditu eta bigarren zikloan eskaintzen dira: *Diskurtso dokumental motak; Korronte estetiko garaikideak; Zinema espaniarra: zinema nazionalak, nortasunak, herbesteratzeak, irudia, Generoa eta nortasuna eta Ikus-entzunezko diskurtsoak eta euren dimentsio mistikoa.*
- *Multimedia Produkzio eta Errealizazioaren gaineko Aipamena* merkatuak eskatzen duen ikus-entzunezko formatu berrien sortze, diseinu eta produkzioan espezializazioa lortu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bost gai (30 kreditu) ditu eta bigarren zikloan eskaintzen dira: *Zuzendaritza artistikoa; Dokumentalak egiteko tailerra; Diseinu grafikoa eta multimedia inguruneak; Bideosormena eta beste praktika esperimentatzaile batzuk; eta Audio postprodukzioa.*

Bigarren ziklo hau ere enpresetan praktika boluntarioak egiten errazteko diseinatuta dago eta ikasle guztien mugikortasuna sustatzeko.

Ikus-entzunezko Komunikazioko gradu hau lortzeko, ikasleak gradu amaierako lan bat egin beharko du. Aukeran:

- Komunikazioari lotutako ikerketa-lan indibiduala eta originala egitea.
- Ikus-entzunezko proiektu bat diseinatu eta egitea.

Ikus-entzunezko Komunikazio gradua euskaraz zein gaztelaniaz ikas daiteke berdin-berdin, gainera, ingelesez emandako gaiak ere baditu.

LEHENENGO ZIKLOA

1 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Idazketa informatiboa prentsan	6	1	Derr.
Ikus-entzunezko lengoia	6	1	Derr.
Komunikazio komertziala, korporatiboa eta instituzionala	6	1	Derr.
Gaur egungo munduaren historia	6	1	Derr.
Hizkuntzaren erabilerak komunikabideetan (eusk./gazte.)	6	1	Derr.
Informazio generoak	6	2	Derr.
Ikus-entzunezko sormen teknikak	6	2	Derr.
Komunikazioa eta publizitatea: pertsuasio estrategiak	6	2	Derr.
Komunikazioari aplikatutako estatistika	6	2	Derr.
Ingurune ekonomikoaren analisisa	6	2	Derr.
2 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Informazioaren zuzenbidea	6	1	Derr.
Nazioarteko Harremanak	6	1	Derr.
Ziberkazaritza idazketa	6	1	Derr.
Komunikazioaren teoriak	6	1	Derr.
Ikus-entzunezko sormen prozesuak	6	1	Derr.
Dokumentazio iturrien gestioa	6	2	Derr.
Ikus-entzunezko narratiba	6	2	Derr.
Komunikazio sistemaren egitura	6	2	Derr.
Ikerketa metodoak komunikazioan	6	2	Derr.
Pentsamendu politikoaren historia	6	2	Derr.

BIGARREN ZIKLOA

3 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Gidoia I: Fikzioa	6	1	Derr.
Errealizazioa I	6	1	Derr.
Ikusizko formen analisia	6	1	Derr.
Zuzendaritza artistikoa	6	1	Hau.
Diskurtso dokumentalaren formak	6	1	Hau.
Bitartekaritzak eta komunikazioa	6	1	Hau.
Gidoia II: Fikzioz besteko saioak	6	2	Derr.
Errealizazioa II	6	2	Derr.
Dokumentalen errealizaziorako tailerra	6	2	Hau.
Programazio estrategiak	6	2	Hau.
Talde eta pertsona arteko komunikazioa	6	2	Hau.
Estetikaren korrante garaikideak	6	2	Hau.
Euskararen erabilera eta arauak	6	2	Hau.
4 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Irratiko ekoizpena eta errealizazioa	6	1	Derr.
Ekoizpenaren kudeaketa	6	1	Derr.
Zinema klasikoaren historia	6	1	Derr.
Diseinu grafikoa eta multimedia eremuak	6	1	Hau.
Bideosormena eta bestelako jarduera esperimentalak	6	1	Hau.
Audio postprodukzioa	6	1	Hau.
Internet eta kultur industriak	6	1	Hau.
Komunikazioa euskaraz: hedabideetarako estrategia linguistikoak	6	1	Hau.
Komunikazioaren gaur egungo joerak	6	2	Derr.
Zinema modernoaren eta garaikidearen historia	6	2	Derr.
Zinema espainiarra: zinema nazionalak, nortasunak eta erbesteak.	6	2	Hau.
Irudia, generoa eta nortasuna	6	2	Hau.
Ikus-entzunezko diskurtsoak eta haien dimentsio mitikoa	6	2	Hau.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Atzerrian ikastaro bat egiteko aukerak, hizkuntza ikasi zein ezagupenak handitzeko abagunea emateaz gain, ikaslearen curriculumean balore berezia dakar. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen helburuetariko bat atzerriko beste zentroetako bigarren zikloko ikasleekin elkartrukatzea suspertzea da, honako programa hauen bitartez: Sicue/Séneca (Estatu mailako mugikortasuna), Sócrates/Erasmus (Europa mailako mugikortasuna), UPV/EU programa (Latinoamerika) eta “Beste helmuga batzuk” programa (AEB, Errusia, Kanada eta Asia). Gaur egun, aldebiko akordioak ditu munduan sakabanatutako 60 fakultate baino gehiagorekin eta gure ikasleei elkartrukatzerako 100 plaza baino gehiago eskaintzen zaie. Fakultatea akordio berriak eta plaza gehiago kudeatzen ari da Europako goi mailako hezkuntza-esparrura egokitzeko planaren barruan.

PRAKTIKAK

Esparru profesionalarekin harreman izatea da, gradua amaitzen den bitartean, gure zentroan ikastearen beste abantaila bat. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak enpresetan, erakundeetan, eta instituzio publiko zein pribatuetan egin beharreko hezkuntza lankidetzara programa boluntario bat eskaintzen die bigarren zikloko ikasleei. Programa honek 500 plaza baino gehiago ditu. Praktikak eta ikasketak batera egin daitezke eta 450 orduko iraupena dute. Gainera, hautazko 12 krediturekin baliokidetu ahal dira.

HARTUTAKO KONPETENTZIAK

- Teoria, kontzeptu eta metodologiaren esanahia eta bidezatasuna ulertzea, ikus-entzunezko komunikazioaren diziplina esparru zabalean.
- Prozesu eta testuinguru komunikatibo ezberdinetako praktikari teoria eta tresna metodologikoak aplikatzea.
- Ikus-entzunezko komunikazioaren arazoak konpontzeko, ikuspegi berriak sintetizatu, garatu eta aplikatzea.
- Modu kritikoan, eginkizunak, prozesu sozialak, testuak eta egitasmo komunikatiboak aztertu, interpretatu eta azaltzea.
- Erraztasunez, eraginkortasunez eta modu argudiatuan egitasmoak, lorpenak, lanaren eta ikerketaren emaitzak komunikatu eta aurkeztea, hainbat genero, formatu eta komunikabidetan.
- Parte-hartzea, kudeaketa eta talde lanaren hobetzearekin erlazionatutako trebetasunak garatzea, erabakien hartzeari eta emaitzen balorazioari atxikitutako irizpideak kontuan harturik.
- Trebetasunak aplikatu eta teknologiak, errekursoak eta teknikak erabiltzea, edukien eta ikus-entzunezko informazio zein komunikazioaren prozesuak garatzeko.
- Objektuak identifikatzeko eta ekintzen planifikaziora bideratutako estrategiak proiektatu eta diseinatzea, betiere ikus-entzunezko komunikazioa eta edukien garapenaren testuinguruak kontuan izanda.
- Inguru eta errutina profesionalen inguruko ezagupenak eta eskarmentua hartzea, merkatuak eskatzen duen komunikazio eta ikus-entzunezko esparruko profil ezberdinetako lanaren errealitateara hurbiltzeko.
- Hainbat iturritako informazioa eta dokumentazioa aztertu, hierarkizatu eta bilatzea, betiere edukia estrategia eta modu narratiboetara egokiturik.

GRADUATU PROFILA

Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatuak profesional berezitua eta teknikoki gaitzen duen formazioa jasotzen du. Titulazioaren konpetentziak ez ezik edozein ikus-entzunezko euskarri edo bitarteko teknologikotan ikus-entzunezkoak sortzeko, produkzio osoa diseinatzeko eta kontsulta-, antolaketa- eta zuzendaritza-funtzioetarako ezagutza ere jasotzen du. Gainera, etengabeko berrikuntzarako prest dago, bai teknologian bai eduki berrien sorkuntzan. Bere ogibidean sortzen diren aldaketetarako erraztasun handia erakusten du.

LANERATZEA

Ikusentzunezko Komunikazioan graduatuak profil profesional asko gara ditzake, honako lau arlo hauetan banatzen direnak:

- 1 Zuzendaria, gidoilaria, eta ikus-entzunezko errealizadorea: gidoi lanetan profesional berezitua, edozein produktu eta formaturen egilea, ikus-entzunezko bideetan (zinema, telebista, bideo sormena, bideo-jokoak, irratia, publizitatea, infografia, internet eta teknologia berriak).
- 2 Ikus-entzunezko produktore eta kudeatzailea: Ikus-entzunezko produktu eta formatuen ekoizpenean, kudeaketan eta komertzializazioan berezitutako profesionala. Ikus-entzunezko edo multimedia enpresa batean zuzendari lana egiteko gaitasuna du.
- 3 Ikus-entzunezko produkzio eta postprodukzioaren diseinua: Ikus-entzunezko ekoizpenaren fase ezberdinetan soinuari, irudiari eta grafismoari lotutako arlo guztietan profesional gaitua. Bere profil profesionalak ingurune interaktiboak ere hartzen ditu bere gain, ingurune digitalei, bideo-jokoei eta Interneti zuzendutako produkzioak sortzeko.
- 4 Ikertzaile, irakasle eta ikusizko-ikasketetan aditua: Ikus-entzunezko prozesu, fenomenoaren analisi eta ikerketetan aditua. Ikus-entzunezko sektoreko politika eta ekonomiaren aztertzailea, estatu zein nazioarte mailan. Goi eta maila ertaineko ikasketetan irakasle, ikus-entzunezkoen inguruan teknologia berriak eta komunikaziozko gaiak emateko.

EZARPEN KRONOLOGIA

1. maila	2010/11
2. maila	2011/12
3. maila	2012/13
4. maila	2013/14

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea
www.jarduera-fisikoa-kirola.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako (JFKZ) ikasketen helburuak eta funtzioak:

- JFKZetan eta mugikortasunaren egitura eta agerpenen inguruko oinarrizko prestakuntza zientifikoa.
- Hezkuntza-sisteman eta bestelako esparru pedagogikoetan heziketa fisikoa emateko irakasleen oinarrizko prestakuntza.
- Kirol entrenamenduaren esparruko profesionalen oinarrizko prestakuntza.
- Osasunerako eta ongizaterako jarduera fisikoaren esparruko profesionalen oinarrizko prestakuntza.
- Jarduera fisikoaren eta kirol jardueren gestio eta prestakuntzaren esparruko profesionalen oinarrizko prestakuntza.

SARBIDEA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean matrikulatu ahal izateko prozedura berezi bat dago; etorkizunean fakultateko ikasle izan nahi dutenek GAITASUN PROBA ESPEZIFIKO bat gainditu behar dute, betiere errendimendu handiko kirolarientzat eta ezintasunen bat dutenentzat dauden salbuespenak kontuan hartuta.

Proba horrek sei test ditu, ondoren zehazten direnak, eta horien bidez izangaiak gradua osatzen duten irakasgaietako asko egiteko gutxieneko mugimendu-gaitasuna dutela erakutsi behar dute:

- igeriketa
- abiadura
- zutikako jauzia
- baloi medizinalaren jaurtiketa
- oztopo-lasterketa
- course navette

GAI kalifikazioa lortzeko, izangaiak 10etik 5 puntuko batez besteko nota lortu beharko du sei proben artean eta ezinbestekoa izango da igeriketakoan 10etik gutxienez 4 lortzea.

SARRERAKO PROFILA

Desagertuko den titulaziorako ezarri den bezala, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradura sartzeko unibertsitatera sartzeko balio duten curriculum-ibilbideetako edozeinek balio du.

Ilido horretatik, ikasketok egin nahi dituzten pertsonen profila oso anitza izango da, alde akademikoari dagokionez behintzat, eta hori berez elkar aberasteko aukera bat izango da. Edonola ere, etorkizuneko ikasleek titulazioan sartzeko honako gaitasun hauek izan beharko dituzte, besteak beste:

- aurrerago zehaztu diren proba fisikoak gaindituz oinarrizko mugimendu-gaitasuna badutela erakustea.
- kirol-esperientzia edukitzea, ez soilik jokalaria mailan edo dibertimenduzko jarduera fisikoetan parte hartzen duenaren mailan.
- kirolaren fenomenoak kontuan hartzea kultur adierazpen global moduan eta ikerketa zientifikoaren xede moduan.
- giza mugimenduaren esparru zabala osatzen duten egoera anitzetara moldatzeko gaitasuna izatea.
- lan-egoerek eskatu dezaketen enpatia-maila egokia duten giza harremanak sortu eta mantentzeko gai izatea.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	18	18			36
Beste jakintza-adarretako oinarrizko irakasgaiak	12	12			24
Nahitaezkoak	30	30	48	6	114
Kanpoko praktikak				12	12
Gradu-amaierako lana				6	6
Hautazkoak			12	36	48
Guztira	60	60	60	60	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

ONARRIZKO PRESTAKUNTZA

Oinarrizko prestakuntzari dagokionez, gradu hau gizarte-eta lege-zientzien adarrera atxikita dago.

Gure ikasleek adar horretako oinarrizko edukien 36 ECTS kreditu egingo dituzte lehenengo bi urteetan eta osasun-zientzien adarreko 24 kreditu, ondoren zehaztutakoaren arabera:

Gizarte- eta lege-zientzien adarreko oinarrizko edukiak eta irakasgaiak:

Zuzenbidea: jarduera fisikoaren eta kirolaren legeria (6 ECTS)

Heziketa: jarduera fisikoaren eta kirolaren heziketa (6 ECTS) eta oinarrizko heziketa fisikoa (6 ECTS)

Historia: jarduera fisikoaren eta kirolaren historia (6 ECTS)

Psikologia: jarduera fisikoaren eta kirolaren psikologia (6 ECTS)

Soziologia: jarduera fisikoaren eta kirolaren soziologia (6 ECTS)

Osasun-zientzien adarreko oinarrizko edukiak eta irakasgaiak:

Giza anatomia: jarduera fisikoari eta kirolari aplikaturiko giza anatomia (6 ECTS)

Estatistika: estatistika eta jarduera fisikoaren eta kirolaren ikerketako oinarriak (6ECTS)

Fisika: jarduera fisikoaren eta kirolaren oinarri biomekanikoak (6 ECTS)

Fisiologia: kirolaren eta jarduera fisikoaren fisiologiaren oinarriak (6 ECTS)

Hamar irakasgai horiek, mugimendu-praxiologiaren oinarriekin (6 ECTS) batera, lehenengo bi moduluak osatzen dituzte eta graduaren lehenengo bi ikasturteetan egingo dira. Lehenengo bi mailetako gainerako 51 ECTS kredituak giza mugimenduari buruzko eta mugimenezko ekintzaren adierazpen desberdinei buruzko oinarrizko gaitasunak lortzera bideratuko dira hirugarren eta laugarren moduluetan.

Giza mugimenduaren adierazpenak:

Mugimendu-jokoak (6 ECTS)

Naturan egiten diren jarduerak (6 ECTS)

Dantza eta gorputz-adierazpena (6ECTS)

Kirolen oinarriak:

Judoaren eta gimnasiaren oinarriak (9 ECTS)

Tenisaren eta euskal pilotaren oinarriak (9 ECTS)

Saskibaloaren eta boleibolaren oinarriak (9 ECTS)

Atletismoaren eta igeriketaren oinarriak (9 ECTS)

Futbolaren eta eskubaloaren oinarriak (9 ECTS)

Euskal Herriko kirol tradizionalak (6 ECTS)

ZUZENDUTAKO NAHITAEZKO PRESTAKUNTZA

Hirugarren eta laugarren mailek orientazio praktikoagoa dute, halakorik esaterik baldin badago, izan ere, komentatutako hiru espezialitateen inguruan egituratuta baitaude. Geratzen diren 105 ECTS kredituetatik hautazko 48ak eta kanpoko praktiken eta karrera-amaierako lanaren 18ak kentzen baditugu, hirugarren mailako nahitaezko kredituak etorkizuneko titulatuari honako arlo hauetan oinarritzko gaitasunak ematera bideratzen direla ikusiko dugu: hezkuntza eta irakaskuntza, entrenamendua, osasuna eta ongizatea eta gestioa eta jolasa (39 ECTS):

Jarduera fisikoaren eta kirolaren irakaskuntza:

Jarduera fisikoaren eta kirolaren irakaskuntza (6 ECTS)

Jarduera fisiko barne hartzailea (6 ECTS)

Kirol-entrenamendua:

Kirol-entrenamenduaren metodologia (9ECTS)

Osasunerako eta ongizaterako jarduerak fisikoak:

Osasunerako jarduerak fisikoak eta elikadura (9ECTS)

Jarduera fisikoaren eta kirol-jardueren gestioa eta horien jolas-dimentsioa

HAUTAZKO PRESTAKUNTZA

Kirol-entrenamendua, prestakuntzaren zein lehiaketaren arloetan kirolariaren oinarritzko prestakuntza sakontzera bideratua eta kirol-espezialitateak kontuan hartuta.

Honako irakasgai hauek osatzen dute:

Kirol-errendimenduaren metodologia (4,5 ECTS)

Prestakuntzara orientatutako kirol-entrenamendua (6 ECTS)

Errendimendura orientatutako kirol-entrenamendua (6 ECTS)

Entrenamenduaren metodologia eta talde-kiroletako planifikazioa (4,5 ECTS)

Kirol-entrenamenduan esku hartzeko teknikak (4,5 ECTS)

Kirol-errendimenduaren balorazioa (4,5 ECTS)

Osasunerako eta ongizaterako jarduerak fisikoak, esku-hartzearen eremu desberdinetako eta populazio desberdinetako osasunaren eta ongizatearen sustapeneko gaitasunak garatzera bideratua. Honako irakasgai hauek osatzen dute:

Ezintasunen bat duten pertsonen osasunerako jarduerak fisikoak (4,5 ECTS)

Gaixotasunen bat duten pertsonen osasunerako jarduerak fisikoak (4,5 ECTS)

Adineko pertsonen osasunerako jarduerak fisikoak (4,5 ECTS)

Osasunaren eta ongizatearen arloko jarduerak fisikoak eta kirol-jarduerak (6 ECTS)

Osasunerako ariketa-programen diseinua (6 ECTS)

Osasunerako ariketaren balorazioa (4,5 ECTS)

Jarduera fisikoaren eta kirol-jardueren gestioa eta horien jolas-dimentsioa, erakunde desberdinetan, publikoetan zein pribatuetan, irabazi asmodunetan zein irabazi asmorik gabekoetan, eta orientazio desberdina duten programen garapenaren markoan gestioarekin eta esku-hartzearekin lotutako gaitasunak lortzera bideratua. Honako irakasgai hauek osatzen dute:

Jolasaren esparruko jarduerak fisikoak eta kirol-jarduerak (9 ECTS)

Kirolaren sustapenaren eta ongizatearen gestio-arloak (6 ECTS)

Kirol-errendimenduaren gestio-arloak (4,5 ECTS)

Kirol-erakundeetako gestio-eginkizunak (4,5 ECTS)

Kirol-erakundearen gestio-tresnak (6 ECTS)

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak Euskal Herriko Unibertsitateko hiru mugikortasun-programatan parte hartzen du (<http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/es/>) uste baitu aukera ezin hobea eskaintzen dutela gure ikasleak profesionalki prestatzeko eta pertsona moduan hazteko. Ildo horretatik, Unibertsitate Hedakuntzako Dekanordetzaren eginkizun nagusietako bat da aukera hauen berri ematea, horiek aprobetxatzea animatzea eta horiekin lotutako izapideak erraztea.

Aurkezten ditugun datuek erakusten dute gero eta ikasle gehiagok parte hartu dutela programa horietan eta gure asmoa da joera hori mantentzea benetako Europako Unibertsitate Eremu baten osagai izan dadin.

1. taula. Mugikortasun-programetan parte hartu duten ikasleen kopurua.

Ikasturtea	Séneca		Erasmus		UPV/EHU-AL		Guztira	
	Heldu	Irten	Heldu	Irten	Heldu	Irten	Heldu	Irten
2009-2010	4	8	14	18	1	3	15	29
2008-2009	4	4	9	7	0	1	13	12
2007-2008	3	4	6	5	1	0	10	9
2006-2007	5	6	6	5	0	0	8	10

Trukeak Europako honako unibertsitate hauekin egin dira:

- HAAGA-HELIA ammattikorkeakoulu (Finlandia)
- Università degli studi di Urbino "Carlo Bo" (Italia)
- Lahti University of Applied Sciences/Lahden Ammattikorkeakoulu (Finlandia)
- Kobeko Unibertsitatea (Japonia)
- Université Victor Segalen Bordeaux II (Frantzia)
- Anadolu University (Turkia)
- Université Paul Sabatier (Toulouse III) (Frantzia)
- Université Catholique de L'Ouest (Frantzia)
- Università degli studi di Milano (Italia)
- Université de Caen Basse-Normandie (Frantzia)
- Università degli studi di Urbino "Carlo Bo" (Italia)
- Palacky University Olomouc (Txekiar Errepublika)
- Telemark University College (Norvegia)
- Universidade de Madeira (Portugal)
- University of Gloucestershire (Erresuma Batua)
- Palacky University Olomouc (Txekiar Errepublika)
- Université de Lausanne (Suitza)

PRAKTIKAK

Kanpoko praktikek esku-hartzea edo gestioa benetan egin behar den egoeretan lortutako gaitasunak praktikan jartzea ahalbidetzen dute harrerako erakundeko tutoreak proposatutako programa baten arabera. Ildo horretatik, erakundearen espezialitate-arloaren arabera, gaitasunak dagoeneko azaldu diren ezagutza espezifikoko eta komunei dagozkienak izango dira.

Ikasleek Unibertsitate Hedakuntzako Dekanordetzak aurkeztutako eskaintzatik aukeratutako dituzte praktikak eskaintza horretan zehaztutako baldintzen arabera eta ahaleginak egingo dira praktika horiek aukeratutako espezialitatearen arabera egiteko aukera izan dezaten. Ikasle bakoitzak bi tutore izango ditu: bat ikastegian eta beste bat erakunde lankidean. Tutoreok ikasleen zereginak eta ebaluazioa koordinatuko dute.

Egun Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak kanpoko praktikak egiteko lankidetzaren hitzarmenak ditu sinatuta hainbat erakunderekin eta horiekin lankidetzan jarraitzeko asmoa dago.

LORTUTAKO GAITASUNAK

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien ikasgaia ezagutu eta ulertzea. Ikasgaia: jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak giza mugimenduaren esparru guztietan.
- Jarduera fisikoaren eta kirolaren adierazpen desberdinei aplikatutako oinarrizko prestakuntza zientifikoa lortzea.
- Jarduera fisikoa eta kirola baldintzatzen duten faktore anatomikoak, fisiologikoak, biomekanikoak eta portaerarekin eta gizartearekin lotutakoak ezagutu eta ulertzea.
- Kirolaren oinarriak ezagutu eta ulertzea.
- Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak diseinatu, garatu eta ebaluatzea, pertsonen banakako ezaugarri eta testuinguruak aintzat hartuta.
- Praktikarako ohitura iraunkor eta autonomoen prestakuntza bultzatzea eta ebaluatzea.
- Maila ezberdinetako entrenamendu-prozesuak planifikatu, garatu eta kontrolatzea.
- Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparru desberdinetan printzipio anatomikoak, fisiologikoak, biomekanikoak eta portaerarekin eta gizartearekin lotutakoak aplikatzea.
- Sasoi fisikoa balioetsi eta osasunari hobetzeari begira ariketak agintzea.
- Jarduera fisikoak modu desegokian egiteak osasunerako dituen arriskuak identifikatzea.
- Jarduera fisikoak, kirol-jarduerak eta jolaserako jarduerak planifikatu, antolatu, zuzendu eta kontrolatzea.
- Kirol-erakunde, entitate eta instalazioak gestionatzea.
- Jarduera bakoitzerako egokia den kirol-material eta ekipamendua aukeratu eta erabiltzen jakitea.

GRADUATUAREN PROFILA

Behin titulua lortutakoan, graduatuak honako eginkizun akademiko eta profesionalak burutzeko gaituta egongo dira:

- Oinarrizko azterketa zientifikoa JFKZetan eta mugikortasunaren agerpenen egituretan.
- Hezkuntza-sisteman eta bestelako esparru pedagogikoetan heziketa fisikoa irakastea.
- Aplikazio-maila guztietako kirol-entrenamenduaren irakaskuntza eta analisia.
- Osasuna eta ongizatea sustatu, mantendu eta errekuiperatzeko jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak.
- Jarduera fisikoen eta kirol-jardueren gestioa eta kirol-zentroen eta instalazioen kudeaketa.
- Aisialdiko kirola.

LANERATZEA

2004an SHEEko 2000. urteko promozioiko ikasleei laneratzeari buruzko inkesta bat egin zitzaion. Inkestan 85 ikasle ohik parte hartu zuten. Erantzun zutenak %80 izan zirenez, emaitza orokorrak fidagarriak izan ziren eta horrek gure ikasle ohien lan-egoera zein den argitzea ahalbidetu zuen.

Inkesta hori 2000ko promozioiko ikasleek euren ikasketak bukatu eta hiru urtera egin zen, telefonoz egindako elkarrizketa bidez eta Egailanek emandako eta SHEEko moldatutako idatzizko galdetegi bat erabili. Galdeketa 2004ko otsailean eta martxoan egin zen, 12-15 bat minutuko iraupena izan zuen eta elkarrizketatutakoen lan-egoera hartu zuen oinarritzat. Elkarrizketatutakoen arteko %67,6 gizonetzkoak izan ziren eta %32,4 emakumezkoak.

Erantzunen arabera, elkarrizketatutako ikasleen %91,2 lanean zeuden. Hortaz, esan daiteke ikasketa hauek okupazio-maila ona dutela. Elkarrizketatutakoen %5,8 langabezian zeuden, %1,5ek ikasten jarraitzen zuten eta %1,5 bekadunak ziren. Titulatuen %2,96 aurretiaz lanik egin gabekoak ziren eta beste %2,9 langabezian zeuden 2004an nahiz eta aurretiaz lan egindakoak izan.

EZARPENAREN KRONOLOGIA

1. maila: 2010/11
2. maila: 2011/12
3. maila: 2012/13
4. maila: 2013/14

KAZETARITZAKO GRADUA

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
www.gizarte-komunikazio-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIPZIOA

Kazetaritza graduak XXI. mendeko komunikabideek eskatzen dituzten lan profesionalak garatu ahal izateko ikaslea trebatzea du xede. Ikasketa planak formazio teoriko eta etiko sendoa formazio praktikoa osoarekin bateratzen du. Ikasleek irati, telebista, prentsa, internet eta multimedia teknologia berrien tresna profesionalak taxuz erabiltzen ikasten dute. Fakultateak, arlo honetan prestazio sendoa bermatu eta proiektu praktikoa egin ahal izateko instalazio berriak ditu, ikasleek lan egin dezaten. Gainera, enpresetan egiten diren praktikak eta atzerriko unibertsitateekin egindako ikasle-trukerako programak ikas-prozesua osatzen dute.

SARTZEKO PROFILA

Sarrera eskakizunak betetzeaz gain, Kazetaritzako ikasleak gaurkotasan informatiboaz interesa izan behar du eta ohikotasunez, hainbat komunikabidetan (prentsa idatzia, irratia, telebista eta internet), gertaerak jarraitu behar ditu. Gainera, multimedia informazioaren formatu berriei arretaz egin behar die jaramon eta teknologia berriak eta internet erraztasunez erabili. Behatzaile izatea, hizkuntzak jakitea, jakinmina eta kultur maila ona izatea baloratzen da. Harremanetarako gaitasuna izan behar du, baita sintesirako eta komunikaziorako ere.

IKASKETEN ANTOLAKETA:

		Kredituak					
		Oinarrizko formazioa	Beste alor bateko irakasgaiak	Berariazkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako proiektua	GUZTIRA
Ikastaroak	1.	54	6				60
	2.			60			60
	3.			36	24		60
	4.			24	24	12	60
	GUZTIRA	54	6	120	48	12	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Kazetaritza graduak lau urteko iraupena du eta bi ziklotan banatzen da, ziklo bakoitzak bi ikasturte-modulu dauzka. Lehenengo zikloan oinarrizko konpetentziak jorratzen dira, bai praktikoa bai komunikabideetako edozein profesionalak eskuratu behar dituen gaitasun teorikoak. Izan ere, lehenengo ikasturte-modulua osorik eta bigarreanean hamar ikasgaietako lau gai komunak dira Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Publizitate eta Harreman Publikoetan.

Bigarren zikloak kazetaritzaren alor ezberdinetan espezializazioa lortzea du helburu. Bi moduluek profil praktikoa ematen dute eta hautazko gaiak eskaini, ikasleari arlo honetan bere profil profesionala diseinatzeko aukera ematen diotenak.

- *Komunikazio Zuzendaritza Aipamena* enpresa pribatuetan eta erakunde publikoetan espezializatu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bigarren zikloan eskaintzen diren bost gai (30 kreditu) ditu: *Komunikazio kabinetek, Komunikazio publikoa, Harreman publikoetarako teknikak, Bozerramaileentzako formazioa eta Nazioarteko erakundeetako komunikazioaren kudeaketa.*

Bigarren ziklo hau ere enpresetan praktika boluntarioak egin ahal izatea errazteko diseinatuta dago, baita atzerriko unibertsitateek eskaintzen dituzten plazak baliatuz ikastaroren bat egin ahal izateko ere.

Kazetaritza gradua lortzeko ikasleak gradu amaieran lan bat egin beharko du, ikasleak lan munduan modu egokian murgiltzeko gaitasuna duela adieraziko duen ikerketa lana, alegia.

Kazetaritza gradua euskaraz zein gaztelaniaz ikas daiteke berdin-berdin, gainera, ingelesez ematen diren gaiak ere baditu.

1. ZIKLOA

1 MÓDULO Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Idazketa informatiboa prentsan	6	1	Derr.
Ikus-entzunezko lengoia	6	1	Derr.
Komunikazio komertziala, korporatiboa eta instituzionala	6	1	Derr.
Gaur egungo munduaren historia	6	1	Derr.
Hizkuntzaren erabilerak komunikabideetan (eusk./gazte.)	6	1	Derr.
Informazio generoak	6	2	Derr.
Ikus-entzunezko sormen teknikak	6	2	Derr.
Komunikazioa eta publizitatea: pertsuasio estrategiak	6	2	Derr.
Komunikazioari aplikatutako estatistika	6	2	Derr.
Ingurune ekonomikoaren analisia	6	2	Derr.
2 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Kazetaritzaren teknologia	6	1	Derr.
Nazioarteko Harremanak	6	1	Derr.
Zuzenbide Konstituzionala	6	1	Derr.
Dokumentazio iturrien gestioa	6	1	Derr.
Informazio idazketa irratian	6	1	Derr.
Informazioaren zuzenbidea	6	2	Derr.
Komunikazioaren teoriak	6	2	Derr.
Idazketa informatiboa telebistan	6	2	Derr.
Ziberkazetaritza erredakzioa	6	2	Derr.
Gizarte komunikazioaren historia orokorra	6	2	Derr.

BIGARREN ZIKLOA

3 MÓDULOA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Fotokazetaritza	6	1	Derr.
Interpretazio generoak	6	1	Derr.
Multimedia edizio eta produkzioa	6	1	Derr.
Kazetaritzaren historia	6	1	Hau.
Interneteko kazetaritza sozial eta partehartzailea	6	1	Hau.
Harreman Publikoetarako teknikak	6	1	Hau.
Kazetaritza diseinua	6	2	Derr.
Erreportaritza	6	2	Derr.
Informazio lokuzioa	6	2	Derr.
Komunikabideen ereduak	6	2	Hau.
Infografia	6	2	Hau.
Komunikazio publikoaren zuzendaritza	6	2	Hau.
Euskararen arauak eta erabilera	6	2	Hau.
4 MODULOA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Informazio enpresa	6	1	Derr
Iritzi generoak	6	1	Derr
Edizioa prentsa	6	1	Hau
Tokiko komunikabideak: informazio-produktuen sorkuntza	6	1	Hau
Bozera maileen trebakuntza	6	1	Hau
Komunikazio kabineteak	6	1	Hau
Komunikazioa euskaraz: hedabideetarako estrategia linguistikoak	6	1	Hau
Kazetaritza espezializatua	6	2	Derr
Deontologia eta komunikabideak	6	2	Derr
Komunikazioaren kudeaketa Nazioarteko Erakundeetan	6	2	Hau
Espainiako eta Euskal Herriko historia garaikidea	6	2	Hau
Idatzizko adierazpena komunikabideetan	6	2	Hau
Pentsamendu politikoaren historia	6	2	Hau

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Atzerrian ikastaro bat egiteko aukerak, hizkuntza ikasi zein ezagupenak handitzeko abagunea emateaz gain, ikaslearen curriculumari balio erantsia dakarkio. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen helburuetariko bat atzerriko beste zentroetako bigarren zikloko ikasleekin elkartrukatzea suspertzea da, honako programa hauen bitartez: Sicue/Séneca (Estatu mailako mugikortasuna), Sócrates/Erasmus (Europa mailako mugikortasuna), UPV/EU programa (Latinoamerika) eta “Beste helmuga batzuk” programa (AEB, Errusia, Kanada eta Asia). Gaur egun, alde biko akordioak ditu munduan zeharreko 60 fakultate baino gehiagorekin eta gure ikasleei elkartrukatzareko 100 plaza baino gehiago eskaintzen zaie. Fakultatea akordio berriak eta plaza gehiago kudeatzen ari da Europako goi mailako hezkuntza-esparrura egokitze planaren barruan.

PRAKTIKAK

Esparru profesionalarekin harreman izatea da, gradua amaitzen den bitartean, gure zentroan ikastearen beste abantaila bat. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak enpresetan, erakundeetan, eta instituzio publiko zein pribatuetan egin beharreko hezkuntza lankidetzara programa boluntarioa eskaintzen die bigarren zikloko ikasleei. Programa honek 500 tuki baino gehiago ditu. Praktikak eta ikasketak batera egin daitezke eta 450 orduko iraupena dute. Gainera, hautazko 12 krediturekin baliokidetu ahal dira.

HARTUTAKO KOMPETENTZIAK

- Jariotasunez eta eraginkortasun komunikatiboz jardutea, ahoz zein idatziz; komunikabideetan egokienak diren hizkuntza baliabideak erabiliz.
- Hainbat iturritatik informazioa bilatu, aztertu, hautatu eta hierarkizatzeko gai izatea, edukiak estrategia narratiboetara egokituz.
- Gaitasunak garatu eta informazio zein komunikazio prozesuetarako teknikak, teknologiak eta errekursoak diseinatzea.
- Edukien alderdi formal eta estetikoak egoki diseinatu, komunikabideen ezaugarriak kontuan izanik.
- Egitasmo informatibo edo komunikatiboak egokiro asmatu, planifikatu, gauzatu eta kudeatzea.
- Kazetaritza formatu eta genero nagusiak lan informatiboari aplikatzea, komunikabide bakoitzari dagokion hizkuntza-ereduaren bidez.
- Gizarte-zientziei (Soziologia, Ekonomia, Zuzenbidea, Historia Garaikidea) dagozkien ezagupen eta metodologiak erabiliz, gizarte ekintzak eta prozesuak aztertu, interpretatu eta azaltzea, komunikabideen lanaren testuinguruan.
- Teoria, kontzeptu eta metodologiaren esanahia eta egokitasuna ezagutu eta aztertzea, komunikazioaren diziplina arteko testuinguruan.

GRADUATU PROFILA

Kazetaritza graduatuak, titulazioari dagozkion kompetentziez gain, gaitasun analitiko eta kritikoa barneratzen du, ogibideari zintzotasun eta kontzientziaz ekiteko. Prestakuntza tekniko ona du eta profesionala ere bada, fakultateko laborategietan eta komunikabideetan lan egin baitu. Ikaslea edozein euskarritako (prentsa, irrati, telebista, internet eta multimedia) kazetaritza edukiei aurre egiteko gai da. Gainera, etengabeko berrikuntzarako prest agertzen da, bai teknologian bai eduki berrietan. Bere ogibidean sortzen diren aldaketetara egokitzeko erraztasun handia adierazten du.

LANERATZEA

Kazetaritza graduatua, komunikazioaren bost arlo nagusitan lan egiteko prestaturik dago:

- 1.- Edozein euskarritan (prentsa, irratia, telebista, internet eta multimedia) zuzendaritza, programen sorkuntza, gidoia, erreportajeak, dokumentalak edota informazioen erredakzioa egiteko kualifikaturik agertzen zaizkigun profesionalak dira.
- 2.- Erakundeetako prentsa kabinete arduradunak izateko edo komunikazio eginkizunetan lan egiteko prestaturik daude, barne eta kanpoko komunikazioa koordinatzeko eta gauatzeko, entitate publiko zein pribatuetan.
- 3.- Ikertzaile, komunikazio aholkulari edota irakasle: komunikabideen edukien eta joeren analisisetan aditua den profesionala da, enpresa pribatu zein publikoei aholkularitza zerbitzua eskaintzen diena. Goi eta erdi mailako hezkuntzan irakasle, informazioa, komunikazioa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak ikasgaiak emateko aditua.
- 4.- Atarien kudeatzaile eta edukien editore: Interneteko, multimedia euskarrietako eta telefonia mugikorreko edukien sorkuntzan eta diseinuan aditua.
- 5.- Komunikazioaren arloko enpresa eta proiektuen zuzendari eta arduradunak.

EZARPEN KRONOLOGIA

1. maila	2010/11
2. maila	2011/12
3. maila	2012/13
4. maila	2013/14

KRIMINOLOGIAKO GRADUA

Donostiako Zuzenbide Fakultatea

www.zuzenbide.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Kriminologia Graduaren bidez ikasleei trebakuntza egokia eskaini nahi zaie, ezaguera zientifikoak delituen prebentzioan eta tratamenduan eta oro har herritarren segurtasunaren alde aplikatuko dituzten adituak prestatzeko asmoz.

Ezbairik gabe, Kriminologiako ikasketek etengabe egokitu beharko dute ikerketa zientifikoaren arloko aurrerapausoetara. Era berean, lotura estua mantendu beharko da lan-merkatuarekin, eta ondorioz, gomendagarria da alderdi akademikoa eta soziala elkarren eskutik joatea, esparru akademikoan.

Horrenbestez, ezinbestekoa da diziplinarteko trebakuntza-plana diseinatzea, dagozkion ezaguera juridikoak eta gizarte-zientzietako eta jokabide-zientzietako ezaguerak uztartuta. Izaera guztiz akademikoa duen trebakuntza-programa; hau da, ikerketaren emaitzetan oinarritutako trebakuntza-programa, emaitzak independentzia osoz eta espiritu kritikoarekin analizatzeko eta aplikatzeko gai diren profesionalak trebatzea helburu duena. Horrela bada, Kriminologiako ikasketetan delituen, kontrol sozialaren eta segurtasunaren azterketa zorrotzetik haratago joan beharko da, eta ikerketa-metodoak irakastea eta praktikan jartzea eta lanbide-heziketa ere garrantzi handiko alderdiak izango dira.

Horretaz guztiaz gain, eta ahaztu gabe arriskutsua dela programa akademikoetan lanarekin zerikusia duten alderdiak gehiegi azpimarratzea, honako hau kontuan hartzea komeni da, betiere: ikasketa-programek kriminologiako lan-arlora begira egon beharko dute, eta lan egiteko aukerak sortu beharko dira, ikasleei lanbidean ohitzeko aukerak eskainiz ez ezik, baita lanpostuak eskaini ditzaketenei kriminologoen trebakuntzari buruzko informazio gehiago eskainiz ere.

IKASKETAK EGITEKO PROFILA

Ikasketak egiteko profila jarraian adierazita dagoen moduan laburbildu daiteke:

- Ikasteko gaitasuna izatea.
- Taldean lan egiteko prest egotea.
- Ahoz zein idatziz komunikatzeko trebetasuna izatea.
- Anali- eta laburpen-gaitasuna izatea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzearen aldeko jarrera izatea.
- Gizarte- eta ingurumen-gaiekiko sentsibilizatuta egotea.
- Erabakiak hartzeko eta erantzukizunak onartzeko gaitasuna izatea.
- Buruzagi sena eta arazoak konpontzeko gaitasuna izatea.

IKASKETEN ANTOLAKUNTZA

Iraupena eta ECTS kreditu kopurua: 240

Oinarrizko trebakuntza: 60

Derrigorrezkoak: 114

Hautazkoak: 36

Kanpo praktikak: 12

Gradu amaierako lana: 18

Kredituak guztira: 240

TITULUKO PROGRAMA

Kriminologia Gradu ikasgai batzuk derrigorrezkoak dira (Europako 6 ECTS kredituko ikasgaiak), eta beste batzuk, berriz, hautazko ikasgaiak dira (4,5 ECTS kredituko ikasgaiak); batzuk zein besteak lauhileko ikasgaiak dira. Hartara, aurreikusitako ibilbidean, ikasleek 60 kreditu egin beharko dituzte ikasturte bakoitzean, gradu-proposamena osatzen duten 240 kredituak eskuratu bitarte.

Irakaskuntzako plangintzari dagokionez, lehenengo mailan oinarrizko ikasgaiak emango dira (60 kreditu guztira). Hain zuzen ere, lehenengo maila 10 ikasgai osatuko dute, bi lauhilekotan banatuta. Lehenengo lauhilekoan Zuzenbide Penal I, Psikologiaren Historia, Kriminologiaren Printzipioak, Gizarte Psikologia eta Konstituzio Zuzenbidea ikasgaiak emango dira, eta bakoitzak 6 ECTS kreditu izango ditu. Bigarren lauhilekoan, berriz, Soziologiarako Sarrera, Gizarte Antropologiarako Sarrera, Psikologia Kriminala, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbide Penal II emango dira, eta bakoitzak 6 ECTS kreditu izango ditu.

Bigarren mailan Gizarte eta Zuzenbide Zientzien jakintza-arloko oinarrizko ikasgaiak emango dira (18 kreditu), Lege Medikuntza eta Auzitegi Zientziak ikasgaiari dagozkion 6 kredituez gain (beste adar bateko oinarrizko ikasgai). Hain zuzen ere, bigarren maila 10 ikasgai osatuko dute, bi lauhilekotan banatuta. Lehenengo lauhilekoan 6 ikasgai emango dira (Zuzenbide Prozesalerako Sarrera I, Gizarte Zientzietako Metodologia, Zuzenbidea eta Kulturartekotasuna, Zuzenbide Penal III eta Biktomologia) eta bakoitzak 6 ECTS kreditu izango ditu. Bigarren lauhilekoan, berriz, 5 ikasgai emango dira (Lege Medikuntza eta Auzitegi Zientziak, Politika Kriminala, Psikopatologia, Fenomenologia Kriminala eta Gazte Delinkuentzia), eta horiek ere 6na ECTS kreditu izango dituzte.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Azkeneko bi urteetan hainbat alderdi landu dira, truke-programetan parte hartu nahi duten ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzeko helburu nagusiarekin.

I. INFORMAZIOA

Informazioa lortzeko bideak eskaintzea garrantzitsua eta oinarrizkoa da, eta horregatik, Zuzenbide Fakultateko web orrian leiho edo *banner* bat zabaldu da, UPV/EHUko ikasleentzat zein hona etorri nahi duten atzerritar ikasleentzat interesgarria izan daitekeen informazio guztia bertan jartzeko. ERASMUS izeneko leihoa da, zehazki.

Arreta berezia eskaini zaie ikasleen arteko harremanei, eta hain zuzen ere, beste unibertsitate batzuetan ikasten ari diren eta informazioa emateko prest dauden ikasleen helbide elektronikoak ikasleen eskura jarri dira. Horretarako, zerrenda bat egin da, programaz programa, eta oso erabilgarria izaten ari da. Informazioa honako helbide honetan dago (Gipuzkoako Campuserako):

<http://www.zuzenbide.ehu.es/p045-8645/es/contenidos/informacion/fderecho programas internacion/es socr era/programa socrates erasmus derecho.html>

II. HITZARMEN BERRIEN KUDEAKETA

Kriminologia Gradua berria da Gipuzkoan, eta ondorioz, ezin izan da kudeatu hitzarmen berririk.

PRAKTIKAK

Kriminologia Gradu Ikasketa Planean aurreikusita dagoenez, ikasleek Nahitaezko Kanpo Praktiak egin beharko dituzte (12 ECTS kreditu), laugarren mailako azken seihilekoan. Ikasleek errealitate juridiko praktikoarekin harreman zuzena izatea eta eskuratu dituzten ezaguerak eta gaitasunak egiaztatzea dute helburu Kanpo Praktikek, eta horregatik, beharrezkotzat jotzen da matrikulatu nahi duten ikasleek Gradu lehenengo hiru ikasturteetako kredituen (126) %70 egin izatea.

Praktiken gaiari dagokionez, praktika motaren arabera izango da, eta horretan oinarrituta, praktiketako edukia urtero indarrean dauden praktika-hitzarmenetako klausulen mende egongo da.

LORTUTAKO ESKUMENAK

Ikasleek honako gaitasun hauek izan beharko dituzte, ikasketak amaitu ostean:

- Ikasketetan eskuratutako ezaguerak eta ikasitako teknikak behar bezala aplikatzeko gaitasuna, bakarkako zein taldeko lanean, lanbidean egunero sortu daitezkeen kriminologia- eta segurtasun-arazoak ebatzi ahal izateko.
- Teknika analitikoak eta ikerketa kritikoaren teknikak behar bezala erabiltzeko gaitasuna, egindako galderen aurrean iritzi oinarritutako eta sinesgarriak eman ahal izateko.
- Etengabe aldaketetara eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna, kalitateari eta berrikuntzari lehentasuna emanda.
- Pertsonen arteko harremanak eta harreman sozialak behar bezala kudeatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko komunikazio-prozesuak menderatuz, informazioa espezialistei zein herritar arruntei helarazteko ahalmena izateko.
- Ezinbesteko konpromiso etikoan eta gizarte-, politika- eta ingurumen-gaiekiko sentsibilizazioan oinarrituta jarduteko gaitasuna, bereziki aniztasunari eta tolerantziari lehentasuna emanda.
- Erabaki sortzaileak hartzeko eta egoera bakoitzari buruzagi- eta ekintzaile-espirtuarekin aurre egiteko gaitasuna, antolatze, taldean lan egiteko eta plangintzak egiteko gaitasunean oinarrituta.
- Ikasketa-prozesua etenik gabe eta autonomia osoz kudeatzeko gaitasuna, espezializazio- edo birziklapen-ikasketetan arrakasta izateko.

GRADUDUNEN PROFILA

Gradudunek honako profil hau izan beharko dute:

- Batetik, ahozko komunikazioa eta idatzizko komunikazioa menderatu beharko dituzte, informazioaren eta informazio-iturrien kudeaketa egokian oinarrituta betiere.
- Bestetik, erabakiak hartzeko gaitasuna ez ezik, egoera berriei egokiro aurre egiteko eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna ere izan beharko dute, etengabeko ikasketa-prozesuari esker.
- Azkenik, antolatze eta plangintzak egiteko ahalmena izan beharko dute, lanbidean behar bezala jarduteko.

LANERATZEA

Kriminologia Gradua ikasketon interes profesionalean oinarritu beharko da. Izan ere, gaur egungo gizarteak delinkuentziaren prebentzioarekin eta kontrolarekin zerikusia duten beharrizan asko ditu, sarritan beharrizan nabarmenak gainera, eta Kriminologiako gradudunak prebentzioaren eta erantzunaren arloetan esku hartzeko gai izango dira, diziplina anitzeko trebakuntza tarteko, erakunde publikoen, segurtasun pribatuaren edo gizarte zibilaren zerbitzura lan eginez.

Ikuspuntu horretatik, Kriminologiako gradudunen zereginetako batzuk honako hauek izan daitezke: ikerketa-, plangintza- eta aholkularitza-lanak egitea, erkidegoko programen eta delituen eta bazterketaren prebentziorako eta tratamendurako programen esparruan, adingabeentzako erakundeetan, biktimak artatzeko bulegoetan, biktimei laguntzeko zerbitzuetan, edo espetxeetan; kriminologia-txostenak egitea eta aurkeztea, Justizia Administrazioako esku-hartze maila guztietan; arriskuak analizatzea, segurtasun-plangintzak egitea, eta segurtasuna kudeatzea, zentzu zabalean (hau da, beldurra, ongizatea, bizikalitatea, tolerantzia edo aniztasuna kudeatzeko politiken ulermena); edo tokiko, probintziatoko, eskualdeetako edo Estatuko prebentzio-organismoetan parte hartzea.

Jarraian, Kriminologiako gradudunen lanbide-jarduera potentzialen zerrenda dago (Kriminologia Graduari buruzko Liburu Zuritik ateratako taula):

ARLOA LANBIDE JARDUERAK

*Polizia

- Polizia Administrazioako A taldeko polizia-, biktimologia- eta kriminalistika-jarduerak.
- Polizia Zientifikoko Kabineteetako parte izatea eta kabineteok zuzentzea.

*Espetxeak

- Espetxe Administrazioako A taldeko espetxe-jarduerak.
- Espetxeko Tratamendu Batzordeko eta Talde Teknikoetako parte izatea.
- Espetxeetako kriminologia-txostenak egitea.

*Espetxeetako Zaintza

- Saillkapen-aldaketei, irteera-baimenei, baldintzapeko askatasunari, erregimen irekiari eta espetxe-onurei buruzko txostenak eta proposamenak egitea.
- Lokalizazio iraunkorreko zigorra kontrolatzea, haren jarraipena egitea, eta dagozkion txostenak idaztea.
- Espetxeetako Arautegiko 100. artikuluan aipatzen den malgutasun-printzipioa eta espetxeratuen jarraipenerako gailu telematikoak kontrolatzea eta txostenak idaztea.
- Espetxeratuen kexa, informazio eta helegiteen gaineko izapideak eta txostenak egitea.
- Kriminologia-txostenak egitea.
- Zaintza-epailearen aholkularitza-taldeko koordinatzaile-buru izatea.
- Behaketa Zentraleko Talde Teknikoan integratzea.

*Biktimologia

- Biktimak Artatzeko Bulegoetako zuzendariak eta koordinatzaileak.
- Lehenengo harremana biktimarekin, eta oinarritzko artapena.
- Beharrezkoak diren espezialistetara igortzea eta bideratzea.
- Biktimologia-txostenak eta biktimazio-inkestak egitea.
- Landa-lana eta biktimazio-inkestak egitea.
- Biktimologiaren arloko prebentzio-estrategiak lantzea.

*Segurtasun Pribatua

- Segurtasun-enpresetako kudeatzaileak eta goi mailako agintariak.
- Agintari exekutiboak segurtasun-jardueretan.
- Segurtasuneko zuzendariak eta buruak.
- Arauzko trebakuntza segurtasun-langileentzat.
- Aholkularitza eta jardueren plangintza, kriminologiaren arloan.

*Epaitegiak

- Delituei eta delitugileei buruzko datu-baseak tratatzea.
- Epaitegietako estatistikak egitea eta kontrolatzea, eta jarraipena egitea.
- Kriminologia-txostenak egitea.
- Auzitegi Kriminologia

*Adingabeen Justizia

- Neurriak kontrolatzea (bereziki zaintzapeko askatasuna, barneratzea eta gizartearentzako zerbitzuak).
- Neurriei buruzko txostenak egitea (hautaketa, luzapena, aldaketa, ordezkapena, betetzea edo urraketa).
- Adingabeen bilakaerari edo erresalburuzko neurriei buruzko txostenak egitea.
- Talde teknikoaren txostena egiten laguntzea ahozko ikustaldian.
- Adiskidetze- edo ordaintze-prozesuan parte hartzea.
- Barneratutako adingabeak tratatzeko programetan parte hartzea.
- Arrisku- edo babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak (biktimak) detektatzea eta ebaluatzea, eta egoerotan esku hartzea.

*Bazterketa

- Azterlanak, inkestak eta landa-lana egitea.
- Prebentzio-estrategiak lantzea.

*Politika Kriminala

- Estrategia politiko-kriminalak lantzea.
- Politika Kriminalaren arloko teknikak eta estrategiak aplikatzea.

EZARPEN KRONOLOGIA

Zuzenbide Fakultateak Kriminologia Gradua pixkanaka-pixkanaka ezartzeko erabakia hartu du. Hala, 2010-2011 ikasturtean lehenengo maila ezarriko da, eta 2014-2015 ikasturtera bitarte gainerako maila guztiak ezarriko dira, urtez urte.

LAN HARREMANETAN ETA GIZA BALIABIDEETAN GRADUA

Lan Harremanen Unibertsitate Eskola

www.lan-harremanak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Akademikoki, Lan harremanetan eta Giza baliabideetan gradua gizakien lanaren fenomeno konplexuaren ikasketa da (enplegu gisa, norbere identitaterako zein iritar izateko elementu gisa, e.a.). Diziplina-anitzetatik egin behar den ikasketa izanik, gizarte-zientzien ikusmolde ezberdinak integratzen ditu (zientzia ekonomiko, juridiko eta psikosozioziologikoak).

Lanbide aukeren artean, hiru dira gune adierazgarrienak:

1. Gizarte Graduatua: Lan Harremanen eremuan aholkularitzari eta epaitegietan ordezkapena egiteari lotua; **2. Giza Baliabideen Kudeaketa:** Enpresa eremuan langileen antolaketa eta kudeaketari lotua; **3. Lan merkatuan eskuhartzea:** Enplegurako eta lan-merkatutarako politiken diseinu, aplikazio eta ebaluaketari lotua.

SARRERAKO PROFILA

Unibertsitatean sartzeko gutxienezko diren betebeharretaz gain ez denez besterik eskatzen, sartzeko profila, Unibertsitate-ikasketekiko jarrera eta bokazioak zehazten dute eta baita ere gertaera sozial, ekonomiko, kultural eta politikokiko interes eta sentsibilitateak

IKASKETEN ANTOLAKETA

		Oinarrizko Prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu Amaierako Lana	Hautazkokanpo praktikak	Guztira
Ikastaroak	1 ^o	60					60
	2 ^o		60				60
	3 ^o		60			12 kreditu, hautazko kredituen barne.	60
	4 ^o		6	48	6		60
	Kredituak guztira	60	126	48	6		240

Ikasleei 30 kredituko bi **espezialitate** eskaintzen zaizkie. Espezialitate ibilbide hauek ez dira itxiak baizik eta ikasle bakoitzak, bere interesen arabera, aukeratu ahal izango ditu ikasgai guztietatik gehien interesatzen zaizkionak.

1. Espezialitatea: **Enpresari aplikaturiko kudeaketa** (30 kreditu)

Lanbide hauei loturik dago:

- Enpresen Giza baliabideen teknikari eta zuzendariak. Giza baliabideen diseinu eta kudeaketa politiken erantzule zuzenak
- Aholkularitza juridiko- laboralari zein lanaren eta ekoizpenaren antolaketa aholkularitzari edo interes kolektiboaren ordezkaritzari loturik dauden lanbide liberalak
- Auditore eta Aholkulari soziolaboralak

2. Espezialitatea: **Lanaren zientziak eta enplegu kudeaketa** (30 kreditu)

Lanbide hauei loturik dago:

- Erakunde publikoen Lan politiken eremuan (tokiko, autonomi erkidego edo Estatuko administrazioan) adituak, gizarte eta lanerako politika erantzule gisa
- Berregituraketa produktiboetan, merkatu aldaketetan eta Europako bateratze prozesuetan adituak

Eleaniztasunari dagokionez Euskara eta gaztelera Eskaintza batetik eta ingelerarena bestetik bereiz daitezke:

Euskara eta Gaztelera:

Euskara Planari loturik dauden irakasgaiak **soilik euskaraz** ikasiko dira.

Oinarrizko irakasgai guztiak, nahitaezko guztiak eta I. espezialitatearen (*Enpresari aplikaturiko kudeaketa*) hautazko irakasgai guztiak **gaztelera nahiz euskaraz** eskainiko dira.

II. espezialitatean, *Lanaren zientziak eta enplegu kudeaketa*, irakasgaiak **gaztelera baino ez** dira eskainiko. Euskaraz eskaini ahal izatea eskari nahiko izateari eta baliabide nahiko izateari loturik egongo da.

Ingelesa:

Ingelesa, ikasgaietan sakontzeko bibliografian zein borondatez egin daitezkeen zenbait eginkizunetan erabiliko da.

Bereziki, Gradu Amaierako Lanaren 100 hitz baino gehiagoko laburpen bat egingo da ingelesez.

TITULAZIOAREN PROGRAMA

1. Maila: Oinarrizko prestakuntza	60 Kreditu
Adarreko Oinarrizko Irakasgaiak:	36
Ekonomia Politikoa	6
Zuzenbide Zibila	6
Elkarteen Zuzenbidea	6
Lanaren Soziologia	6
Administrazio Zuzenbidea	6
Konstituzio Zuzenbidea	6
Oinarrizko Irakasgai osagarriak :	24
Lanaren Psikologia	6
Gizarte eta Lan Harremanen Historia	9
Lan Zuzenbidea	9

2. MAILA	Nahitaezko 60 Kreditu
Gizarte Ikerkuntzako Teknika Kuantitatiboak	6
Gizarte Ikerkuntzako Teknika Kualitatiboak	6
Kontabilitatea: Sarrera	6
Finantza Kontabilitatea	6
Ekonomia eta Zerga Sistema	6
Enpresa Kudeaketa I: Enpresaren ekonomia	6
Zuzenbide Sindikala	9
Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I	6
Langileriaren Zuzendaritza eta Kudeaketa	9

3. MAILA	Nahitaezko 60 kreditu
Lan eta Gizarte Politikak	6
Praktika Integratuak I	6
Lanaren Ekonomia	6
Negoiazio Teknikak	6
Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II	6
Lan – Zuzenbide Prozesala	6
Lan Harremanen Teoria eta Egitura	6
Osasun Laborala eta Prebentzioa	12
Enpresa Kudeaketa I: Lanaren antolaketa eta metodo	6

4. MAILA	60 kreditu	
	Nahitaezko kredituak 12	Hauen artean 48 aukeratu
Nahitaezko Ikasgaia: Lan eta Gizarte Auditoria	6	
Gradu bukaerako lana	6	
I espezialitatea: Enpresari aplikaturiko kudeaketa		30
II espezialitatea: Lanaren zientziak eta enpleguaren kudeaketa		30
Hautazko PRAKTIKAK		12
Zenbait jarduerengatik amortizatutako 6 kreditu (EHU arautegiaren arabera)		6
Euskararen Plan gidariari lotuak: Euskararen Arauak		6
Euskararen erabilera enpresa eta ekonomian		6

4. Mailako Espezialitateen ibilbidea	Hautazko Kredituak
I. Ibilbidea: Enpresara aplikatutako kudeaketa	30
Soldaten Kudeaketa	6
Finantza egoeren analisia	6
Enpresaren zerga araubidea	6
Enpresen Kudeaketa III: Zuzendaritza estrategikoa	6
Praktika Integratuak II	6
II. Ibilbidea: Lanaren Zientziak eta enpleguaren kudeaketa	30
Globalizazioa eta lan merkatua	4,5
Berdintasun planak eta negoziazio kolektiboa	6
Lan arriskuen prebentzioa lanaren antolaketan	6
Enpleguaren politika aktiboak	4,5
Funtzio Publikoa	4,5
Sindikalgintzaren egungo erronkak	4,5

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Ikasleak hautatzeko irizpideak Programa honen oinarrien arabera ezartzen dira eta Zentroak ez du baldintza berezirik jartzen.

SICUE/SENECA Programaren 2009ko Norakoak: Alacant, Burgos, Cadiz, Huelva, Las Palmas, G.C. Malaga. Murtzia, Oviedo , Madril, Salamanca, Nafarroa, Galizia, Valencia, Bartzelona, Castellon.

ERASMUS Programaren 2009ko norakoa: Lilleko unibertsitaterako (Frantzia) 4 plaza eskaini dira

UPV/EHU AMERICA LATINA Programaren 2009ko Norakoak: Argentina, Bolivia, Brasil, Chile, Mexico.

PRAKTIKAK

Gradurako borondatezko kanpoko praktikak eratu dira. Gaur egun, Lan Harremanen ikasketetan egiten diren praktikek ISO 9001 ziurtagiria dute.

Erakunde publiko nahiz pribatuetan egiten diren kanpo praktiken helburua, ikaslea lan merkatuan sartzea erraztea da, enpresek eskatzen duten gaitasun praktikoetaz gain lan esperientzia lortzeko bidea emanez. Honek lortutako konpetzentziak sendotzen laguntzen die.

LORTUTAKO GAITASUNAK

Gaitasun akademikoak

- Egun erabilgarri dauden IKTak abileziaz aplikatu eta erabili, titulazioaren edukiekin erlazioaturiko informazioa lortu eta tratatzeko.
- Informazioa modu egoki batetan lortu eta hautatu, aproposak diren iturrietara joz.
- Arazoak modu eraginkorrean konpondu, aukera posibleak identifikatu eta baloratzeko eskuratutako gaitasun eta abileziak erabiliz.
- Lan munduko informazio esanguratsua eta dokumentuak aztertu, hizkuntza ofizialetan eskuratutako hizkuntza teknikoak erabiliz.
- Lan munduaren errealitate sozial, juridiko eta ekonomikoa modu kritikoan interpretatu, dauden datuak eta graduan zehar eskuratutako ezagutzaren arabera.
- Titulazioak berezkoa duen hizkuntza teknikoan, ahoz zein idatziz, modu egokian komunikatu, adierazi eta harremanak izan.
- Lan Harremanak osatzen duen diziplina multzoa modu elkarlotuan maneiatu.

Gaitasun profesionalak

A GIZARTE GRADUATUA EDO LAN AHOLKULARITZA:

- Gizarte eta lan gaietan enpresa, sindikatu, instituzio eta gainerako gizarte erakundeak modu egokian kudeatu, aholkatu eta ebaluatu.
- Bezeroei harrera egin, hauei aholkuak eman eta ordezkatu, indibidualki zein kolektiboki, Lan Harremanen eremu ezberdinetan modu egokian negoziatuz.
- Zuzenbidean oinarrituz, titulazioko arlo ezberdinei dagozkien informe, kontratu, eskaera eta helegiteak idatzi.
- Enpresa eta bestelako erakundeen fiskalitate eta kontabilitatearen inguruko gaiak modu eraginkorrean kudeatu, aholkatu eta beharrezkoa denean talde laguntza eman.

- B GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA ETA KUDEAKETA:**
- Enpresa eta erakundeen jarrera-hartze estrategikoaren araberako lan ildoak eta politikak zehaztu Lan Harremanen eremuan.
 - Enpresa edo Erakundearen Lan Harreman estrategiak modu egokian garatu, kontrolatu eta ebaluatu.
 - Garapen pertsonal eta profesionalerako lagungarriak diren enpresa mailako hezkuntza iraunkorrerako planak kudeatu.
- C ESKUHARTZEA LAN MERKATUAN:**
- Sustapen sozioekonomiko eta lan merkaturatzeen tokiko estrategiak modu eraginkorrean garatu, gauzatu eta ebaluatu.
 - Lan merkatuko datu eta adierazle sozioekonomikoak azaldu, lan merkatuan dauden ikerketa proiektuak garatzeko teknika egokiak aplikatzearekin batera.
 - Enplegua eta Laneko Arriskuekin lotutako plan eta estrategiak modu egokian diseinatu, garatu, kontrolatu eta ebaluatu.

Gaitasun Sozialak

- Lan munduko interes kontrajarrietatik eratorritako gatazkak identifikatu, bereganatu, bideratu eta konpondu, pertsonen arteko eta laneko erlazioetan etika sustatuz.
- Pertsona eta zenbait giza kolektiboek bizi duten zapalkuntza, bazterketa sozial, laboral eta kulturala zein genero bazterketaren inguruan informatutako sentsibilitatea ulertu eta adieraztea ahalbidetuko duen jarrera soziala garatu, errealitate hau hobetzeko benetako konpromisoa bultzatzeko balioko duena.
- Gizartearen aldaketa tekniko, sozial, laboral eta kulturaleri aurre egitea ahalbidetuko duen heziketa humanista eta profesionala txertatu, bizitzan zehar garatu beharreko heziketa jarraituaren bidez.

GRADUATU PROFILA

Aipatutako gaitasun akademiko, profesional eta sozialetan gauzatzen den profilari esker gizakien lanaren eremuko diziplinarteko prestakuntza egokia lor daiteke, bai antolaketa zein harremanen aldetik.

LANERATZEA

Graduari loturik dauden eremu profesional garrantzitsuenak hauek dira:

1. Gizarte graduatua

Gizarte Graduatuak lan arloko, aholkularitza, ordezkari eta kudeaketa funtzioak betetzen dituzte Estatuaren, herrialde erakunde, gizarte Segurantzaren, Sindikatuen, Enpresen eta partikularren aginduz edo haien aurrean.

2. Giza baliabideen zuzendaritza eta kudeaketa.

Enpresa edo erakunde baten lan egiten duten pertsonak dira bere baliabide estrategiko nagusietarikoa. Honela Giza baliabideen funtzioa edozein erakuderen oinarritzko funtzio estrategikoa da. Laburbilduz, erakundeen giza baliabideen eta lan harremanen politika aukeren diagnostika, plangintza eta ebaluaketa eratzen da

3. Lan merkatuan partehartzea eta Politika soziolaboralak garatzea

Batetik, eplegurako politika aktiboak garatzea gero eta garrantzitsuagoa da eta bestetik, lan merkatuan gero eta operadore gehiagok parte hartzen dute (esaterako enplegu agentziak edo ETTak). Eremu profesional honen profila ekintza horiek garatzeko eta instituzio horiek zuzentzeko gaitasunei lotuta dago.

4. Lan arriskuen prebentzioa

Lan arriskuen eremua enpresaren kudeaketan integraturik dago eta beraz, lan arrisku sistemak antolaketa produktiboari loturik eta giza baliabideen estrategiaren menpeko dira. Enpresa eta erakundeak eremu honetan aholkatzeko eta kudeatzeko gaitasunak Graduatu hauen eremukoak dira.

5. Administrazio publikoa

Graduaren diziplinaarteko ikuspegiari esker administrazioko hainbat lanpostu lor daitezke eta horrez gain, administrazioko zenbait lanposturako prestakuntza aproposa lor daiteke, esaterako lan eta gizarte segurantzako inspektore, kontu-hartzaile eta teknikoak; Ogasuneko inspektore; edo Estatuko auditore eta kontu-hartzaile.

6. Auditore Soziolaborala

Eremu hau enpresen erantzukizun sozialaren sustapenari loturik dago eta plangintza, kontrol eta zuzendaritza estrategikoko tresna gisa poliki hedatzen doa. Analisi sistematiko, ordenatu eta independentearen bidez, enpresa edo erakunde baten lan harreman sistema orokorra aztertzea da, erakundeak bere buruari jarritako politikekin edo ontzat hartzen diren printzipioekin (legezko zein borondatezkoekin) alderatuz.

7. Irakaskuntza

Graduaren profilarekin bat datozen irakaskuntza alor batzuk ezarri berri dira, bereziki Lan Heziketako zenbait nahitaezko zeharkako materia, esaterako Lan Formakuntza eta Orientabidea, Lan talde Harremanak edo Enpresa txiki eta Ertainen Administrazio, Kudeaketa eta Merkataritza.

EZARPEN KRONOLOGIA

Lan Harremanetan eta Giza Baliabideetan Gradua bi fasetan ezarriko da:

1. eta 2. mailak, 2010-2011 ikasturtean

Horrela aurten lan harremanen Diploma ikasten ari direnak 2010-2011 ikasturtean Gradua ikasten jarrai dezaketa

3. eta 4. mailak, 2011-2012 ikasturtean

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Tituluko ikasketen plangintzan ECI/3857/2007 Agindua erabili da. Horrela, plana aipatutako aginduko moduluen arabera egituratzen da:

- Oinarrizko prestakuntzako modulua: 60 ECTS kreditu
- Modulu didaktikoa eta disziplinazkoa: 100 ECTS kreditu
- Practicum modulua: eskola-praktikak eta gradu amaierako lana barne hartzen ditu: 50 ECTS.

Prestakuntza Hautazkotasun modulua -berezitasuna- deritzonarekin osatzen da, 30 ECTS kreditu dituena; guztira, 240 ECTS kreditu dira. Gainera, azken modulu horretan honako hauek ere badaude: Erlijioaren fenomenologia (6 kreditu) eta Euskara teknikoa (12 kreditu). Hasierako prestakuntza planak modu nabarmenean lagundu beharko du ezagutza eskuratzen, trebetasunak garatzen eta pertsonen jarrerak egokitzen, irakasle bezala jarduten dutenean ikasketa autonomoaren eta kooperatiboaren bitartekari bezala arituko direnak.

Barne koherentzia erraztuko duen ikasketen **EGITURA**: ikasgai guztiek partekatuko dute ECTS kreditu bat edo kreditu erdi seihileko bereko ikasgaiekin. Horrela, irakasleek elkargoan eta lankidetzan garatu beharko dute diziplina arteko proiektu bat. Proiektu horien helburua, landutako edukiak hobeto integratzea da, eta egindako ikasketei esangura handiagoa ematea.

PRACTICUMAK garrantzia handia du prestakuntza-proposamenaren artikulazioan. Hiru egotaldi luze diseinatu dira Lehen Hezkuntzako zentroetan, bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturteetan egiteko.

GRADU AMAIERAKO LANA aukera ona izango da eskuratutako ezagutza teorikoa eta praktikoa erabiltzeko, proiektuetan islatuko dena.

MINORRAK ESPEZIALIZAZIO BEZALA: Bilboko Irakasleen Eskolan, titulazio horretako ikasleek honako minor hauek egin ahal izango dituzte: Atzerriko Hizkuntza, Musika Hezkuntza, Hizkuntzaren Aniztasuna Eskolan, Curriculum eta Baliabideak, eta Berrikuntza Lehen Hezkuntzan. Minorrak eskuratzeko ikasgai multzoa zazpigarren eta/edo zortzigarren seihilekoetan eskainiko da.

HIZKUNTZAK GRADUAREN DISEINUAN: Irakasleen prestakuntzako EHUko hiru eskolek duten helburua da hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 gaitasun-maila eskuratzea, erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan; B1 maila berriz, Europako hizkuntzaren batean mintzaira-maila bezala. Bilboko eskolan, ikasketen eskaintzaren arabera, ikaslea euskaraz edo gaztelaniaz matrikulatu daiteke lehenengo zikloan. Hirugarren ikasturtetik aurrera, ikasleak kredituen %25, gutxienez, egin beharko du euskaraz. Ikasle guztiek eskuratu behar izango dute B2 maila bigarren ikasturtea amaitzerakoan. Halaber, ikasketetan kredituen %80 euskaraz egiten dituzten ikasleek, gradua amaitzerakoan euskal hizkuntzako C1 lortzeko aukera izango dute.

GENERO ETA BERDINTASUN IKUSPEGIA IKASKETA PLANEAN: Genero eta berdintasun ikuspegia modu koordinatuan landuko da ikasketa-plan honetako moduluetan.

IKASKETEN ANTOLAKETA

	kredituak 1.ikasturtea	kredituak 2.ikasturtea	kredituak 3.ikasturtea	kredituak 4.ikasturtea	GUZTIRA
Oinarrizko formakuntza	42	18			60
Derrigorrezkoak	18	33	49		100
Hautazkoak				30	
Kanpoko Praktikak		9	11	18	38
Gradu amaierako lana				12	
Kredituak guztira	60	60	60	60	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

DERRIGORREZKO IRAKASGAIAK (Irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira)

1. IKASTURTEA

- Naturaren zientziak lehen-hezkuntzako ikasgelan I
- Gizarte-zientziak eta beren didaktika I
- Komunikazio-gaitasunaren garapena –euskara eta gaztelania – lehen-hezkuntzan I
- Didaktika orokorra
- Irakaskuntza-funtzioa
- Matematika eta bere didaktika I
- Hezkuntzaren psikologia
- Garapenaren psikologia eskola-adinean
- Hezkuntzaren soziologia
- Hezkuntzaren teoria eta historia

2. IKASTURTEA

- Eskola inklusiboaren oinarriak
- Komunikazio-gaitasunaren garapena –euskara eta gaztelania – lehen-hezkuntzan II
- Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan
- Artearen eta ikus-kulturaren hezkuntza
- Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak lehen-hezkuntzan testuinguru eleanizetan
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak lehen-hezkuntzan
- Musika lehen-hezkuntzan
- Ikastetxearen antolakuntza
- Practicum I

3. IKASTURTEA

- Naturaren zientziak lehen-hezkuntzako ikasgelan II
- Gizarte-zientziak eta beren didaktika II
- Hizkuntzaren eta literaturaren didaktika
- Gorputz-hezkuntza eta bere didaktika
- Atzerriko hizkuntza eta bere didaktika
- Matematika eta bere didaktika II
- Practicum II

4. IKASTURTEA

- Hautazkoak: 30 kreditu (Aipamena)
- Practicum III
- Gradu Amaierako Proiektua

LEHEN HEZKUNTZA GRADUKO AIPAMENAK

* CASTELLANO

** EUSKARAZ

*** FRANCÉS

**** INGLES

1- Lehen Hezkuntzako eskolaren berrikuntza

- Hizkuntzak eta Berrikuntza Eskolan*
- Zientzien Irakaskuntzarako Joera Berriak**
- Matematikaren Irakaskuntzarako Joera Berriak**
- Proiektuak eta Berrikuntzak Gizarte Zientzietan *
- Ikaste Digitalerako Eszenategi Pedagogiko Berriak**

2- Atzerriko Hizkuntza

- Komunikazio-Gaitasuna Ingelesean****
- Komunikazio-Gaitasunaren Garapena Ingelesean****
- 2. Atzerriko Hizkuntza: Frantsesa***
- Atzerriko Hizkuntzaren Didaktika: Ingelesa****
- Ingelesa Haur eta Lehen Hezkuntzako Gelarako ****

3- Musika Hezkuntza**

- Entzumen Hezkuntza**
- Ahots Hezkuntza eta Kantua**
- Erritmoa, Mugimendua eta Dantza**
- Musika Tresnetarako Heziketa**
- Hizkuntzen Arteko Interakzioa. Ikus-Entzunezko Kultura. Azterketa Genero Ikuspegitik**

4- Curriculuma eta Baliabideak

- Zientzien Irakaskuntzarako Baliabide, Tresna Eta Ekintzak**
- Matematika Tailerra**
- Irakasteko Baliabideen Gaineko Ikerketa**
- Curriculuma eta Baliabide Didaktikoak Giza Zientzietan*
- Hizkuntza eta Literatura Ikasteko eta Irakasteko Baliabideak*

5- Hizkuntzaren Aniztasuna Eskolan

- Hizkuntza Estandarra eta Aldaerak Eskolan**
- Hizkuntza eta Gizartea Euskal Herrian**
- Hizkuntzen Didaktikarako Ikuspegi Berriak**
- Ikastetxeko Hizkuntza-Proiektua*
- Ikasle Etorkeinenzako Bigarren Hizkuntzaren Didaktika*

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Bilboko Irakasleen Eskolak hurrengo mugikortasun programak eskaintzen ditu:

SICUE

Univesitat de Barcelona
Universidad Autónoma de Madrid
Universitat de Girona
Universidad de Granada
Universitat Illes Balears
Universidad de la Laguna
Universitat Rovira I Virgili
Universidade de Santiago de Compostela
Universidad De Valladolid

ERASMUS

Hanze Univesity Groningen (Nederland)
Bodø University College (Norway)
Artevelde Hogeschool Gent (Belgie)
Pädagogische Hochschule Tirol (Austria)

UPV-EHU - AL

U. Nacional de la Plata (Argentina)
U. Privada Santa Cruz de la Sierra (Bolivia)
U. Del Estado de Santa Catarina (Brasil)
U. Federal de Salvador de Bahia (Brasil)
U. Pontificia Catolica De Chile (Chile)
U. del Desarrollo (Chile)
U. Adolfo Ibáñez (Chile)
U. Pacífico(Chile)
Pontificia U. Católica de Valparaíso (Chile)
U. Cundinamarca (Colombia)
Instituto Tecnológico de Sonora (ITSON) (Mexico)
U. De Puerto Rico
U. De Montevideo (Uruguay)

BESTE BATZUK

U. Estatal Boise (Idaho)
San Diego State University (California)
Universidad Ateneo De Manila (Filipinas)
Aldersgate Collage (Filipinas)
Universidad Estatal Nueva Vizcaya (Filipinas)

PRAKTIKAK

Lehen Hezkuntzako Gradu tituluko practicumean ikasleek euren garapen profesionalari hasiera ematen diote, baldintza errealetan; oinarritzko zutabea da euren prestakuntzan. Practicumaren bitartez, ikasleak gelaren konplexutasunaren eta kudeaketaren ezagutza zuzena eskuratzea lortu nahi da, eta, horrez gain, ikasitako eduki teorikoak gelako eta ikastetxeko errealitatearekin lotzea, horiei zentzua emanez.

Praktiken egotaldiak hezkuntza zentro baten egiten dira, hiru ikasturtetan: Practicum I 2. ikasturtean, Practicum II 3. ikasturtean, eta Practicum III 4. ikasturtean. Esperientzia horiek guztiak eta horiei buruzko hausnarketa amaierako memoria batean agertu behar dira.

PRAKTIKETAKO IKASLEEN MUGIKORTASUNA

Zentroak esparru akordio bat sinatuta dauka Lenguaje Activities Internacional-ekin (LAI), OAPEE-k deitutako PAP programen babesean. Bertan, Bilboko Irakasleen Eskolako ikasleek Irlandan egiten dituzten praktikak arautzen dituzten jarraibideak ezarri dira.

Bestalde, MEC-ekin egindako lankidetza akordioak terminoak ezartzen ditu ikasleek Londreseko Instituto Español Cañada Blanch institutuan egingo dituzten praktiketarako. Lankidetza programetako praktikak EHUK eta programak burutzen dituzten GKEek sinatutako akordioak arautzen ditu.

LORTUTAKO GAITASUNAK ETA GRADUATU PROFILA

Lehen Hezkuntzan lan egingo duten maisu-maistrek gelan egiten duten lanari dagozkion curriculum diseinuetan agertzen diren arloak ezagutu eta jakin beharko dituzte. Horrela, korrespondentzia egokia ezarri beharko dute edukien izaera- eta konplexutasun-mailaren eta ikasleen garapen-mailaren artean; betiere, umeez modu autonomoan ikastea sustatzeko ahalegina egin beharko dute.

Horretarako, honako hauek egin beharko ditu:

- esperientziaren eremu desberdinetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutu eta ulertu, ezagutzaren arlo desberdinetako azterketetan, eta horietan oinarrituz burututako esperientziarik arrakastatsuenetan oinarrituz.
- euren lankideekin taldean lan egin, jarduera profesionala hobetu dezaketen jakintza eta esperientziak partekatuz, eta, betiere, norberaren eta gainontzekoen lanarekiko errespetua agertuz.
- dagokien taldean jarduteko eta berau kudeatzeko testuinguru soziala modu kritikoa aztertzeke gai izan. Horretarako, dauden aspektu interaktiboak ezagutu beharko dituzte, eta testuinguru horien kalitatea mantentzen duten estrategiak diseinatu. Zentzu horretan, betiere ikuspegi errealista batetik abiatuz, maisu-maistra izango direnek ardurak eta erabakiak hartu behar izango dituzte; horrela, prest agertu behar dira euren jarduera berrikusteko, eta prozesuan sor daitezkeen zailtasunak erlatibizatu eta gainditzeko, horiek hobetzeko neurriak hartuz.
- hezkuntza-ikerketako ikuskerak aztertu eta zalantzan jarri. Halaber, informazio-bideak eta komunikabideak modu kritikoa erabili, gizarteko eta kulturako testuinguru aldakorrei egokitzapen eta erantzun egokia emateko ikasketa, ikerketa eta lankidetzeta-lana sustatzeko asmoz.
- koordinazio funtzioa izan, familiarekin bilduz eta sarean lan eginez hezkuntza komunitateko eta inguruko beste kide batzuekin; halaber, diziplina anitzeko izaera duten esku-hartzeak sustatu, haurren ahalmen guztiak ahalik eta gehien garatzeko.

LANERATZEA

2007ko EGAILAN txostenaren arabera, laneratzeko prozesuan, Lehen Hezkuntzako maisu-maistra titulua da, bere arloan, langabezia tasan -4,6 jaisten den bakarra. Bere aldetik, jarduera-tasak apur bat egin du gora, + 1,6 puntu hain zuzen, guztira 96.5 puntu.

ENPLEGUARI dagokionez: + 5,9 puntuko IGOERA 1998-2004 artean; +3 puntu azken promozio bien artean. ENPLEGU TASA % 89,8koa da.

Aipatzekoa da hurrengo bost urtetan gutxienez 1.000 maisu-maistra jubilatuko dela, eta beste 700 bat gehiago hurrengo bosturtekoan. Ikastetxe pribatu eta kontzertatuetan behar direnak kontutan izan ezker 1,7 zenbakiarekin biderkatu behar da.

EZARPEN KRONOLOGIA

1. ikaturtea: 2010/11

2. ikasturtea: 2011/2012

3. eta 4. ikasturteak: 2012/2013. Ikasturte biak era berean zabalduko dira, horrela nahi duten diplomatuak gradura egokitzeko aukera izan dezaten. Horretarako, ikasgaien taula prestatu da, oraingo diplomaturetatik gradu berrietara pasatzea ahalbideratuko duena.

IKASKETEN DESKRIBAPENA (%10 gaztelaniaz)

Lehen Hezkuntzako curriculum diseinuetako arloak menperatzeko behar diren ezaguerak sakonki ezagutu, bere izaera eta bere zailtasun maila 6-12 urteko ikasleriaren prozesu kognitiboen garapen mailarekin erlazionatuz, eta lehen hezkuntzako ikasleriaren konpetentzia guztien ikaskuntza bultzatuko dituzten irakaskuntza/ikaskuntza prozesuak (norbanaka eta taldean arduraz eta autonomiaz bizi, ikasten eta pentsatzen ikasi, hizkuntza ofizialetan, eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean hitz egin, elkarrekin bizi, pertsona gisa garatu eta, egin eta ekin).

SARRERAKO PROFILA

Pertsona heldua eta orekatua, berriztatzailea, erantzulea, aurkitzeko bokazioa eta jakinmina, 0-6 urteko haurren ezaugarriak sakontzeko eta analizatzeko gogoia, egungo kultur eta hizkuntzen aniztasunerako sentikortasuna eta jarrera positiboa, pertsonen arteko komunikaziorako sentikortasuna eta motibazioa, ingurumena, hezkuntza eta gizarte jardueretako interesa, eta, 0-6 urteko hurrekin hezkuntza jardueretako arlo guztien edukien eta irakasteko estrategia metodologikoen ezaguerarako jarrera positiboa.

IKASKETEN ANTOLAKETA

		Kredituak						
		Oinarrizko Formakuntza	Beste adar batzuetako irakasgaiak	Derrigorrez.	Hautazkoak	Gradu Amaierako Lana	Practicum	Guztira
Ikastaroak	1º	42	0	18	0	0	0	60
	2º	18	0	33	0	0	9	60
	3º	0	0	49	0	0	11	60
	4º	0	0	0	30	12	18	60
	Guztira	60	0	100	30	12	38	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Derrigorrezko irakasgaiak:

- Naturaren Zientziak Lehen-Hezkuntzako ikasgelan I eta II
- Gizarte-Zientziak eta bere Didaktika I eta II
- Matematika eta bere Didaktika I y II
- Artearen eta ikus-kulturaren Hezkuntza
- Musika Lehen-Hezkuntzan
- Gorputz-Hezkuntza eta bere didaktika
- Komunikazio Gaitasunen garapena – Euskara eta Gaztelania – Lehen Hezkuntzan I eta II
- Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Lehen Hezkuntzan Testuinguru eleanizetan
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
- Atzerriko Hizkuntza eta bere Didaktika
- Hezkuntzaren Psikologia
- Garapenaren Psikologia Eskola Adinean
- Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan
- Didaktika Orokorra
- Irakaskuntza-Funtzioa
- Hezkuntzaren Teoria eta Hezkuntza
- Ikastetxearen antolakuntza
- Eskola Inklusiboaren oinarriak
- Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Lehen Hezkuntzan
- Hezkuntzaren Soziologia (*)
- Practicum I, II eta III
- Gradu Amaierako Proiektua.

(*) Eleaniztasun plana –ingelera- 2009/10 ikasturtetik aurrera

Hautazko irakasgaiak edo minorra edo mentzioa

- LEHEN HEZIKETAKO BERRIKUNTZARAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAK. Lehen heziketako geletan irakaskuntzan jarduteko hainbat curriculum eta metodologiak sakonduko dira: Kultura arteko komunikazioa, Gizarte Zientzien tailerra, Lehen Heziketarako baliabide matematikoen tailerra, Zientzia tailerrak eta Musika,plastika eta Gorputz hezkuntza tailerrak.
- HEZIKETA BEREZIA. Lehen Heziketan hezkuntza premia bereziei erantzuteko kompetentziez hornitu nahi dira irakasleak. Irakasgaien gaiak hezkuntza premiei buruzkoak izango dira, hezkuntza premiei eman beharreko erantzunak, eta baita premiak dituzten ikasleekin jarduteko baliabideak.
- ATZERRIKO HIZKUNTZA (*) Lehen heziketako etorkizuneko irakasleei ingeleraren irakaskuntzari era egokian erantzuteko beharrezkoak diren kompetentziez hornitzea da bere helburua: Ingeleraren kompetentzia komunikatiboak I y II., Ingeleraren didaktika I y II eta ingelera. Ingelera maila behar da, Erreferentziako europear B2 maila komuna. Titulu ofizialaren bitartez ziurtatu beharko da (Hizkuntza Eskola ofiziala, University of Cambridge ESOL examinations...) edo maila finkatzeko froga bereziak erabiliz.
- EUSKARA, IRAKASKUNTZA TRESNA. Lehen heziketako etorkizuneko irakasleei euskararen irakaskuntzari era egokian erantzuteko kompetentziez hornitzea da bere helburua: Irakurzaletasunerako gonbitea , Hizkuntza eta teknologia: baliabideak, Haur eta gazte literatura, Ahozko Euskal Literatura eta Eskola testuen tailerra.

Ikasleriak erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan Erreferentziako europear C1 maila komuna lortu beharko du eta Ingelerarentzat Erreferentziako europear B2 maila komuna lortu beharko du. Horretarako ikasle bakoitzak 24 kreditu gaztelaniaz egin beharko ditu ezaguera arlo ezberdinetako irakasgaiak eginez (ibilbide formatzailearen %10).

(*) Eleaniztasuna

Gradu amaierarako lana

Lortutako ezaguera teorikoa eta praktikoa erabili beharko da eta problemen ebazpenaren bitartez ezaguera berriak sortu beharko dira: Eskolako prozesuen hobekuntzara bideratutako proiektuen diseinurako informazio baliagarria hautatzeko, analizatzeko eta sintetizatzeko, eta argumentazioan, epai akademiko eta profesionalen igorpenean, erabakien hartzean, eta, bai taldeka bai bakarka, hezkuntza arazoan ebazpenean hausnarketak burutzerakoan autonomia erakusteko.

Proiektuek hezkuntza proposamenak eta proposamen didaktikoak (gida didaktikoak, irteera didaktikoak,...), eskola inguruneko eta eskola kanpoko landa ikerketak, gure inguruneko proiektu berritzaileen azterketa deskriptiboak, bibliografian oinarritutako lan monografikoak, material didaktiko berritzaileak, irakaskuntzarako baliabideen inbentarioen elaborazioa, eta, material didaktikoen analisia eta didaktikoa (multimedia materialak adibidez) elaboratzea erraztu behar dute.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

- **Erasmus** (Università degli Studi di Urbino (Italia), Universidade do Porto (Portugal), Arteveldehogeschool Gent (Bélgica), Universidade de Aveiro (Portugal), Inst. Superior de Ciências Educativas – Lisboa, Manchester Metropolitan University eta Copenhagen University College of Teacher Education
- **Sicue-Séneca** (Granadako unibertsitatea (Melilla), Sevillako Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Rovira i Virgili unibertsitatea(Tarragona), La Lagunako unibertsitatea (Tenerife) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- **Hegoamerika**

PRAKTIKAK

Titulazio berrien practicumak jarduera profesionalerako beharrezko trebeziak, ezaguerak, konpetentziak eta praktikak lortzeko aukera ezin hobea eskaintzen die ikasleei, halaber egindako ikasketei buruzko hausnarketak egiteko aukera aproposa da. Ikaskuntza iturria, esanguratasuna eta kontrastearen aukera suposatzen du.

Practicum-a lehen heziketako hiru ziklotan garatuko da, graduan zehar, hiru blokeetan deskonposatuko delarik (Practicum I, Practicum II eta Practicum III).

Bigarren ikasturtetik aurrera egin beharko da, EAEko eskola testuinguruen aniztasunaren arabera segida gorakorra jarraituz eta espezifikotasuna kurtsoz kurtso handiagotzen delarik. Espezifikotasun handiena mentzioko praktikak suposatuko dute 4. ikasturtean.

Intentsiboak izan daitezke edo eskola eta unibertsitate garaiak tartekatuta daitezke, hausnarketa eta akzioa elkarren artean tartekatzen eta elikatzen direlarik.

LORTUTAKO GAITASUNAK

- Lehen Heziketako arlo curricularrak ezagutu, elkarren arteko diziplinarteko erlazioa, ebaluazio irizpideak eta irakaskuntza/ikaskuntz prozeduren inguruko ezagutzen gorputza.
- Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak diseinatu, planifikatu eta ebaluatu, bai bakarka, bai beste irakasle eta beste profesionalen artean.
- Kultura aniztasuna eta hizkuntza aniztasuna testuinguruetan hizkuntzen ikaskuntza era eraginkorrean burutu.
- Irakurketa bultzat eta irizpideak jarraituz eskola curriculumaren edukien arlo zientifiko eta kulturalen testuen iruzkin kritikoa bultzatu.
- Aniztasun testuinguruetan ikaskuntza guneak erregulatu eta diseinatu, eta baita, generoen berdintasuna eta bizikidetzaren formazioaren baloreen baitan giza eskubideen errespetua kontutan hartuko dituztenak.
- Gelan eta gelatik kanpo bizikidetzak bultzatu, diziplina arazoak ebatzi eta arazoen bake ebazpenaren alde egin. Ikasleen esfortzua, jarraitasuna eta diziplina pertsonala estimulatu eta baloratu.
- Lehen Heziketako ikastetxeen antolamendua ezagutu eta bere funtzionamenduan dauden akzioak ezagutu. Ikasle eta familien tutore eta orientazio funtzioak burutu, ikasleen hezkuntza premia bereziak kontutan izanik. Irakaskuntzaren funtzioa garatzerakoan aldaketa zientifikoak, pedagogikoak eta gizarte mailakoak bitzta osoan zehar aldatuz eta hobetuz joan behar dutela barneratu.
- Hezkuntza komunitatea eta giza inguruaren sektore ezberdinekin kolaboratu. Irakaskuntza funtzioaren dimentsio hezitzailea barneratu eta bizikidetzak aktiborako hezkuntza demokratikoa bultzatu.
- Jakintzei buruz, baloreei buruz eta giza erakunde publiko eta pribatuei buruz erlazio kritikoa eta autonomia mantendu.
- Norbanako ardurak eta ardura kolektiboak etorkizun iraunkorra lortzeko baloratu.
- Irakaskuntza jarduerak berritzeko eta hobetzeko gelako praktikei buruz hausnarketak burutu. Ikaskuntza autonomo eta talde mailarekiko ikaskuntzetarako trebeziak eta ohiturak lortu, eta ikasleen artean erabili.
- Komunikazio eta informazio teknologiak ezagutu eta geletan aplikatu. Ikaskuntzak eragingo dituzten, bizikidetzarako prestatuko dituzten eta kulturaren aberastasuna adieraziko dituzten ikus entzunezko informazio aproposak bereizi.
- Hezkuntzaren funtzioa, bere aukerak eta mugak egungo gizartean ulertu, eta baita eskoletan eta bertan aritzen diren profesionalen funtsezko gaitasunak ulertu. Kalitatea hobetzeko ereduak ezagutu ikastetxeetan aplikatzeko.
- Euskara eta gaztelania menperatu, eta gutxienez atzerriko hizkuntza europearra, eleanitz hezkuntza testuinguruan aritzeko egokia eta zuzena den ekoizpena eta ulermena frogatuz, hizkuntza eta kultura aniztasun jarrerak garatuz.

GRADUATU PROFILA

Bost ardatzen inguruan egituratzen da:

- Esperientzia alor ezberdinetara aplikatutako ezaguera pedagogikoak ezagutu eta ulertu, ezaguera arlo ezberdinetatik datozen ikerketetan eta hoietatik abiatuz egindako esperientzia arrakastatsuetan oinarrituz.
- Lankideekin ekipoa lana egin, jarduera profesionalaren hobekuntza ahal bideratzen duen ezaguerak eta esperientziak konpartituz, norberaren lanarekiko eta besteen lanarekiko errespetuzko jarrera erakutsiz.
- Dagokien taldean aritzeko eta kudeatzeko testuinguru soziala kritikoki analizatu, testuinguru horien kalitatea mantentzen duten estrategietan parte hartzen duten eta

diseinatzen duten alderdi interaktiboak ezagutzen. Bide honetan, benetako ikuspegitik abiatuz, etorkizuneko irakasleak ardurak izan eta erabakiak hartu beharko ditu, norberaren jokaera errebisatzeko prest egonik, eta prozesuan sor daitezkeen zailtasun posibleak erlatibizatzen eta gainditzeko, eta hobekuntzarako bideratutako neurriak hartzeko.

- Hezkuntza ikerketatik lortutako kontzeptzioak analizatu eta kuestionatu, informazio eta komunikazio bideak kritikoki erabili, testuinguru aldakorretan egokitze eta erantzun eraginkorraren eskaintza ahal bideratuko duen ikaskuntza, ikerketa eta lan kooperatiboa errazteko.
- Koordinazio funtzioetan aritu, familiekin bilerak eginez eta zein gizarte zein hezkuntza komunitatearekin sarean lanean arituz, ikasleen ahalmen guztiak ahalik eta gehien garatzeko diziplina arteko parte hartzea bultzatuz.

LANERATZEA

Laneratzea ikastetxe publiko zein pribatuko euskara-ingelera-gaztelania hizkuntza profila duen Lehen Heziketako irakaslea da. Mentzioaren edo hautazkoaren aukeraketak laneratzean eragina izan dezake (profil zehatzagoa).

Euskarazko profila duen Lehen Heziketako irakaslearen laneratzea UPV/EHU-arena baino hobea da. %90ekoa da eta urtez urte hobetzen joan da. Enplegu tasa handia da eta lanean diharduten profesionalen erretiroaren handitzeak langabezia gutxiagotuko du eta lehen lana aurkitzeko denbora murriztuko du.

EZARPEN KRONOLOGIA

2010/11 ikasturtean ezartzen hasiko da, urtez urte ezartzen jarraituko duelarik: 2011/12an 2. ikasturtea, 2012/13an 3. ikasturtea eta 2013/2014an 4. ikasturtea.

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Maisu-maistrek lehen hezkuntzako etapan lan egiteko jasotzen dute prestakuntza. Etapa hau derrigorrezkoa da eta 6 urtetatik 12 urtetara luzatzen da. Bere xedea ikasleen garapen pertsonala nahiz soziala bultzatzea da ikasgai mota guztietako (artistikoak, zientifikoak, linguistikoak, matematikoak, psikomotoreak nahiz teknologia berrien ikaskuntza) irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen bitartez. Aipatutako ikasgaiak direla, prozesu kognitiboak direla, edota lehen hezkuntzaren edukien ikaskuntza errazten duten estrategia metodologikoak direla, Gasteizko Irakasleen UEren prestakuntzak nahi du irakasleek inguru hurbileko nahiz nazioartekoa ikerkuntza ezagutzea.

SARRERAKO PROFILA

Titulazioa hauek ikasten hasiko diren pertsonak honako ezaugarri hauek izan behar lituzkete:

- heziketa premiak ezagutzeko eta hauei erantzuna emateko interesa
- gogoeta egiteko eta taldeka lan egiteko gaitasuna
- enpatia eta elkarreraginerako gaitasuna
- jarduerak eta baliabideak antolatzeko dohaina
- aho, keinu eta gorputz adierazpenerako erraztasuna

IKASKETEN ANTOLAKETA

	Kredituak 1.Ikasturtea	Kredituak 2.Ikasturtea	Kredituak 3.Ikasturtea	Kredituak 4.Ikasturtea	Guztira
Oinarrizko Formakuntza	42	18			60
Derrigorrezkoak	18	33	49		100
Hautazkoak				30	
Kanpoko Praktiak		9	11	18	38
Gradu Amaierako Lana				12	
Kredituak guztira	60	60	60	60	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA4

1. mailako modulu eta irakasgaiak	ECTS kredituak	Lauhilekoa (C) Urte osokoa (A)	Nahitaezkoa (OB) Hautazkoa (OP)	Hizkuntza (CEO)
Natur Zientziak Lehen Hezkuntzako Gelan I	6	C	OB	
Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I	6	C	OB	
Komunikatzeko Gaitasunaren Garapena – Gaztelera eta Euskara – Lehen Hezkuntzan I	6	C	OB	
Didaktika Orokorra	6	C	OB	
Irakaskuntz Funtzioa	6	C	OB	
Matematika eta bere Didaktika I	6	C	OB	
Hezkuntzaren Psikologia	6	C	OB	
Garapenaren Psikologia	6	C	OB	
Hezkuntzaren Soziologia	6	C	OB	
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	6	C	OB	

2. mailako modulu eta irakasgaiak	ECTS kredituak	Lauhilekoa (C) Urte osokoa (A)	Nahitaezkoa (OB) Hautazkoa (OP)	Hizkuntza (CEO)
Eskola Barne-hartzailearen Oinarriak. Heziketa Berezia	6	C	OB	
Komunikatzeko Gaitasunaren Garapena – Gaztelera eta Euskara – Lehen Hezkuntzan II	6	C	OB	
Garapenaren eta Ikaskuntzaren Trabak	6	C	OB	
Arteen eta Ikus Kulturaren Heziketa	9	A	OB	
Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Inguru Eleaniztunetan	6	C	OB	
Musika Lehen Hezkuntzan	6	C	OB	
Ikastetxearen Antolamendua	6	C	OB	
Practicum I	9	A	OB	
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak Lehen Hezkuntzan	6	C	OB	

⁴ Minor delakoei dagozkienak izan ezik, ikasgai guztiak euskaraz nahiz gazteleraez emango dira.

3. mailako modulu eta irakasgaiak	ECTS kredituak	Lauhilekoa (C) Urte osokoa (A)	Nahitaezkoa (OB) Hautazkoa (OP)	Hizkuntza (CEO)
Natur Zientziak Lehen Hezkuntzako Gelan II	9	A	OB	
Gizarte Zientziak eta bere Didaktika II	9	A	OB	
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika	5	C	OB	
Literaturaren Didaktika eta Haur nahiz Gazte Literatura	5	C	OB	
Gorputz Heziketa eta bere Didaktika	6	C/A	OB	
Atzerriko Hezkuntza eta bere Didaktika	6	C/A	OB	
Matematika eta bere Didaktika II	9	A	OB	
Practicum II	11	A	OB	
4. mailako modulu eta irakasgaiak	ECTS kredituak	Lauhilekoa (C) Urte osokoa (A)	Nahitaezkoa (OB) Hautazkoa (OP)	Hizkuntza (CEO)
Practicum III	18	A	OB	
Gradu Amaierako Lana	12	A	OB	

MINOR etaosatzen duten irakasgaiak	Kredituak
Kultur Artekotasuna Lehen Hezkuntzan	30
6. Kultur Arteko Heziketaren Oinarri Teorikoak	6
7. Kultur Arteko Heziketarako Politikak	6
8. Kultur Artekotasuna Eskolan	6
9. Kultur Arteko Heziketarako Baliabideak eta Didaktikak	6
10. Berariazko Proiektuen Kudeaketa	6
MINOR etaosatzen duten irakasgaiak	Kredituak
Eskola Liburutegia eta Irakurketa Suspertzea	30
6. Egungo Haur eta Gazte Literatura	6
7. Literatur Tailerrak	6
8. Irakurketen Tailerrak	6
9. Haur Antzerkia eta Dramatizazioa	6
10. Liburutegia eta irakurtzera suspertzea	6
MINOR etaosatzen duten irakasgaiak	Kredituak
Gorputz Heziketa	30
1. Gorputz Heziketaren Didaktika	6
2. Aisiarako Heziketa: Jolasa eta Antolatutako Jarduera	6
3. Gorputz Adierazpena	6
4. Motrizitatearen Oinarriak	6
5. Osasuna eta Nork Bere Burua Ezagutzea	6

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Gasteizko Irakasleen UEk UPV-EHUren Mugikortasun Programetan parte hartzen du Nazioarteko Errektoreordetzaren bitartez. UEko Nazioarteko Harremanetarako Zuzendariordeak ikastetxeko ikasleen mugikortasuna planifikatzen eta kudeatzen du

- SICUE/SENECA
- ERASMUS
- UPV-EHU/LATINOAMERIKA
- BESTERIK

PRAKTIKAK

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Administrazioak eta UPV-EHUK egindako hitzarmenaren bidez horretarako aitortpena jaso duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan egiten da Practicuma.

Halaber, praktikak egiteko hitzarmena dago ondoko erakundeekin:

- Gasteizko Udalaren Hezkuntza Saila
- Euskadiko EIEF-FERE
- PARTAIDeko ikastolak
- Aipatutako sareez kanpo dauden Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak
- Consorcio de Escuelas Infantiles / Haur Eskolen Partzuergoa
- Manuel Iradier Erakundea
- Ekilore Munduan

Praktika aldian ikasleak ikastetxeetan bertaratu behar dira. Bere tutoretzaren ardura da unibertsitateko irakasleena ez ezik, baita horretarako akreditazioa duten Lehen Hezkuntzako irakasleena ere.

Ikasleek hiru egonaldi egingo dituzte lehen hezkuntzako ikastetxeetan, bigarren, hirugarren eta laugarren mailetan zehar. Egonaldiak aberasteko asmoz, zenbait hitzaldi, mintegi, banako tutoretza... antolatuko dira.

Ikasleek jarduera osagarri hauek nahiz ikastetxeko egonaldietan izandako esperientzia azaldu beharko dituzte txosten batean.

LORTUTAKO GAITASUNAK

Titulazioaren gaitasun orokor gisa, honako hauek aipatuko ditugu:

- Esperientzia eremuetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
- Ikaslagunekin taldeka lan egitea, ezagutzak nahiz esperientziak partekatuz eta, norberaren lana dela, besteena dela, betiere begirunea erakutsiz.
- Inguru sozialaren analisi kritikoa egitea, esleitu zaien ikasleen taldea kudeatzeko.
- Hezkuntza ikerketatik sortutako ikuspegiak eta proposamenak kritikoki aztertzea eta zalantzan jartzea; halaber, komunikabideen erabilera kritiko egitea, beti ikaskuntza, ikerketa eta lan kooperatiboak errazteko asmoz..
- Koordinazio funtzioa betetzea, familiarekin elkartuz eta sarean lan eginez, bai hezkuntza komunitateko, baita inguru sozialeko beste kide batzuekin ere.

GRADUATU PROFILA

Lehen Hezkuntzan (6-12 urte bitarteko ikasleak) maisu-maistra moduan lan egiteko gaitasuna ematen du ondoko inguruetan:

- Ikastetxe publikoak, kontzertatuak eta pribatuak
- Haur ospitaleak
- Haurrentzako arreta zerbitzua duten presondegiak
- Haurrentzako eta adin txikikoentzako erakunde publikoak.
- Haurrentzako GKEak (Gobernuz kanpoko erakundeak)

Halako inguruetan bete beharreko funtzioak ondokoak izango dira bereziki:

- Ikasteko programa prestatzea dagozkion aginduekin eta gomendioekin bat etorritik
- Ikasleentzat ariketak eta probak prestatzea, zereginak jartzea, banako txostenak egitea, baita ikasleen aurrerapenak ebaluatzea ere.
- Ikastetxean ikasleen eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea
- Ikasleen garapen pertsonala bultzatzea eta beren aurrerapenen berri familiei ematea.

LANERATZEA

Gaur egun gure zentroan hiru titulazio ematen dira (Haur Heziketako Irakaslea, Lehen Hezkuntzako Irakaslea eta Gorputz Heziketako Irakaslea). Hiruretatik azkena ez da emango aurrean. Gorputz Heziketaren espezializazioak bere Minor-a izango du.

Gasteizko Irakasleen UEk ematen dituen titulazioei dagokienez, Egailan inkestak 2003 urteko ondoko datuak argitaratu ditu:

Titulazioa	Jarduera tasa	Lan tasa	Langabezi tasa
Maisu-maistra: Gorputz Hezkuntza	%96	%89	%9
Maisu-maistra: Haur Hezkuntza	%97	%90	%8
Maisu-maistra: Lehen Hezkuntza	%93	%76	%18

EZARPEN KRONOLOGIA

ANECAREN oniritzia jasoz gero, **lehen maila 2010/11** ikasturtean emango da, ondoren ikasturteko maila berri bat ezarriz titulazioa osatu arte.

MARKETINEKO ETA MERKATUEN IKERKUNTZAKO GRADUA

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea

www.ekonomia-enpresa-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako Gradua honako helburu orokor hauek dauzka:

- Marketin eta merkatuen ikerkuntzaren arloan jarduteko gai diren profesionalak sortzea.
- Graduatuek zeregin horietan jardutea toki, eskualde, estatu eta nazioarte mailan.
- Graduatuek marketinaren eta merkatuen ikerkuntzaren arloan diziplinartekotasuna ezagutzea eta ekonomiaren eta enpresaren beste arlo funtzional batzuekin, gizarte-zientziekin eta gainerako zientziekin daukaten loturaz jabetzea.
- Bere lanarekin produkzio-unitatearen funtzionamendua eta emaitzak hobetzen laguntzeko moduan egotea.
- Graduatuek jakitea egoerak antzematen eta aurreikusten, baliabideak esleitzen, informazioa antolatzen, pertsonak hautatzen eta motibatzen, erabakiak hartzen, ezarritako helburuak betetzen eta emaitzak ebaluatzen.

SARTZEKO PROFILA

Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako Gradua ondo egin nahi duen Batxilergoko edozein ikaslek oinarrizko ezagutzak izan behar ditu Aljebraz, Kalkuluaz, ingelesaz eta gehien erabiltzen diren aplikazio informatikoez. Gainera, honako trebetasun hauek izan behar ditu: mintzaera eta idazkera ona, Matematika, Estatistika eta zenbaketa-tresnak erabiltzeko gaitasuna eta erraztasuna, azterketa-, hausnarketa-, sintesi- eta kritika-gaitasuna, ulertzeko eta abstrakziorako erraztasuna, ikasteko interesa eta ikasteko ohitura onak, tokiko, eskualdeko, nazio barruko eta nazioarteko arazo ekonomiko, sozial eta politikoei buruzko interesa eta errespetuz taldean lan egiteko gogoia.

Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako Graduan sartu nahi dutenengandik espero diren gaitasunak honako hauek dira:

- Bere ingurunean erraztasunez komunikatzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aktiboki parte hartzeko jarrera erakustea.
- Bigarren Hezkuntzan lortutako ezagutzak (Matematika, hizkuntzak, Gizarte Zientziak, etab.) eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erraztasunez erabiltzea prestakuntzan emaitza onak lortzeari begira.
- Ideiak aztertu, laburtu eta argudio koherenteak erabiliz iritziak ematea norberaren ezagutzan aurrera egiteko.
- Ingelesez irakurtzea hasiera-hasieratik eskuragarri dagoen informazio guztira heldu ahal izateko.
- Ikasteko diziplina, bakarka eta taldeka lan egiteko ahalmena, komunikatzeko erraztasuna, erantzukizuna eta heldutasuna edukitzea.

Gaitasun horiek, Batxilergoa gainditu ondorengo gaitasunetatik datozenak, ez dira derrigorrez sartzeko baldintzat hartu behar, baina kontuan hartu behar dira unibertsitatera sartu nahi duen edozein ikasle orientatzerako orduan.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Mota	1.a	2.a	3.a	4.a	GUZTIRA
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	48				48
Beste jakintza-adarretako oinarrizko irakasgaiak	12				12
Nahitaezkoak		60	60	30	150
Gradu Amaierako Lana				12	12
Kanpoko praktikak*					
Hautazkoak				18	18
Guztira	60	60	60	60	240

*Kanpoko praktikak: borondatezkoak dira eta 4. mailan egiten dira.

Oinarrizko eta nahitaezko irakasgai guztiak gaztelaniaz eta euskaraz ematen dira.

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Graduko ikasketen plangintza honela zehazturik dago:

- modulua. OINARRIZKO IRAKASGAIK: lehenengo mailako 10 irakasgai, guztiak oinarrizkoak eta derrigorrezkoak.
- modulua. ENPRESAREN OINARRIAK: enpresaren arloko funtsezko eta nahitaezko 9 irakasgai, *Finantza eta Aseguruetako*, *Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako* eta *Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko* graduekin partekatuak, bigarren eta hirugarren mailako lehenengo lauhilekoetan emango direnak.
- modulua: MARKETINA: nahitaezko 10 irakasgai, bigarren, hirugarren eta laugarren mailan emango direnak.
- modulua: MERKATUEN IKERKUNTZA. Nahitaezko lau irakasgai, bigarren eta hirugarren mailan emango direnak.
- modulua: ENPRESEN ANTOLAKUNTZA ETA ZUZENDARITZA: nahitaezko bi irakasgai, hirugarren eta laugarren mailan emango direnak.
- modulua: HAUTAZKOAK. Modulu hau hautazko irakasgaiek eratzen dute. Ikasleek hiru aukeratu beharko dituzte (18 kreditu) euren prestakuntza osatzeko, baldin eta kreditu horiek enpresako praktikekin betetzen ez badituzte. Irakasgai hauek 4. mailako bigarren lauhilekoan emango dira. Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako 36 kreditu espezifiko eskaintzen dira eta Euskara Teknikoko 12 kreditu.
- modulua: GRADU AMAIERAKO LANA: 12 kreditu, gaitasunen ebaluazio orokorrari dagozkionak.

	Irakasgaiak	ECTS	Moduluak
1.a	Ekonomiaren Hastapenak I: Makroekonomiaren Oinarriak	6	Oinarrizko Irakasgaiak
	Matematika I	6	
	Kontabilitaterako Sarrera	6	
	Enpresaren Ekonomia: Sarrera	6	
	Zuzenbiderako Sarrera	6	
	Introd. A. Ekonomiaren Hastapenak II: Makroekonomiaren Oinarriak.	6	
	Matematika II	6	
	Finantza Kontabilitatea	6	
	Enpresaren Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza	6	
	Ekonomiaren Historia	6	
2.a	Kostuen Kontabilitatea	6	Enpresaren Oinarriak
	Merkataritza Zuzendaritza: Sarrera	6	
	Estatistika eta Datuen Analisia	6	
	Finantza Eragiketen Matematika	6	
	Mikroekonomia	6	
	Produktu eta Prezio Erabakiak	6	Marketina
	Merkataritza Komunikazioa: Oinarriak eta Plangintza	6	
	Kontsumoaren Soziologia	6	
	Salgaien Banaketa	6	
	Marketinari eta Merkatuen Ikerkuntzari Aplikaturiko Estatistika	6	
3.a	Kontabilitate Analisia	6	Enpresaren Oinarriak
	Makroekonomia	6	
	Enpresaren Erregimen Fiskala	6	
	Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika	6	
	Merkataritza Ikerkuntza: Sarrera	6	Merkatuen Ikerkuntza
	Merkataritza Ikerkuntzaren Aplikazioak	6	
	Eskaria Aurreikusteko Teknikak	6	Marketina
	Merkataritza Komunikazioa: Erabakiak	6	
	Nazioarteko Marketina	6	
	Finantza Gestioa Marketinaren eta Kanpo Merkataritzaren Zuzendaritzarako	6	Antolakuntza Zuzendaritza
4.a	Enpresen Berrikuntza eta Sorkuntza	6	Marketina
	Marketin Zuzendaritza	6	
	Zerbitzuen eta Bestelako Ondasun Ez Materialen Marketina	6	
	Logistika eta Banaketarako Ikerkuntza Eragilea	6	
	Salmenta Zuzendaritza eta Merkataritza Negoziazioa	6	
	HAUTAZKOAK (edo praktikak)	18	
	Gradu Amaierako Lana	12	

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

UPV/EHUren mugikortasun-programei esker, fakultateak azken mailtako ikasleei beste zenbait unibertsitatetan urtebetez ikasteko 100 bat plaza eskaintzen dizkie.

ERASMUS programak gaur egun Europako 23 unibertsitatetan ikasteko aukera ematen du. Aurtengo ikasturtean gure fakultateko 40 ikasle daude unibertsitate horietan ikasketak egiten. LATINOAMERIKAKo hainbat unibertsitaterekin ere ikasleak trukatzeko programa bat daukagu. Azkenik, SICUE-SENECA programak Espainiako 12 unibertsitatetan 40 bat plaza eskaintzen ditu.

PRAKTIKAK

Praktikak egitea borondatezkoa da Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako Graduan. Dena den, fakultateak enpresetan praktikak egiteko programa oso eraginkorra du bere ikasleentzat. Praktika horietan parte hartzen duten ikasleek lan-merkatuan sartzeko balio handiko esperientzia lortzen dute, gaitasun praktikoak eta lan-esperientzia irabazten baitituzte.

Orain arte kanpoko praktikak burutzeko fakultateak egin duen eskaintza ikasleen eskaerari erantzuteko adinakoa izan da, eta etorkizunean ere berdin egiten saiatuko da.

Praktiken programa batez ere azken mailako ikasleentzat da. Ikasleak gehienez 18 kreditu lortu ahal izango ditu praktikak egiteagatik.

GRADUAN ESKURATZEN DIREN GAITASUNAK

Titulazio honen helburua da gure ikasleak prestatzea beren lanbidean jarduteko behar diren gaitasunak lor ditzaten. Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako Graduan gaitasun hauek eskuratuko dituzte:

- Ikasleak gai izatea lortutako ezagutzak marketinarekin eta merkatuen ikerkuntzarekin zerikusirik duen edozein lan-arlotan aplikatzeko.
- Ikasleak gai izatea marketinaren eta merkatuen ikerkuntzaren arloko datuak bildu, sailkatu eta interpretatzeko, betiere etikaz jokatzuz.
- Ikasleak gai izatea lortutako datuetan oinarriturik iritzi arrazoituak emateko.
- Ikasleak gai izatea modu egokian eta sendotasunez komunikatzeko, informazioa, ideiak, arazoak eta irtenbideak adieraziz marketinaren eta merkatuen ikerkuntzaren arlo guztietan.
- Ikasleak gai izatea gerora beste ikasketa batzuk autonomia handiz egiteko beharrezko diren trebetasunak garatzeko.
- Ikasleak gai izatea marketineko estrategia eta ekintzei buruzko erabakiak hartzeko.
- Ikasleak gai izatea merkatuei buruzko ikerketak eta analisiak egiteko.
- Ikasleak gai izatea bezeroari eta merkatuari argibideak emateko.
- Ikasleak gai izatea marketin-estrategiak eta politikak erabiltzeko.
- Ikasleak gai izatea merkatuen ikerkuntzarako teknikak erabiltzeko.
- Ikasleak gai izatea marketin-kanpainak planifikatu eta egiteko.
- Ikasleak gai izatea ingurune ekonomiko eta enpresarialak aztertzeko.
- Ikasleak gai izatea marketin-erabakiak enpresaren beste arlo batzuetako erabakiekin eta beste erakunde batzuekin koordinatzeko.
- Ikasleak gai izatea lanbideko kideekin eta lan-merkatuarekin harremanetan jartzeko.
- Ikasleak gai izatea enpresaren salmentei buruzko aurreikuspenak egiteko.
- Ikasleak gai izatea autonomia-maila handia lortzeko behar diren ikaskuntza-trebetasunak eskuratzeko, bai gero beste ikasketa batzuk egiteari begira bai autoikaskuntzari begira.
- Ikasleak gai izatea idatziz nahiz ahoz erraztasunez komunikatzeko.
- Ikasleak gai izatea talde-lanean aritzeko, arduraz eta errespetuz, iniziatiba eta lidergoa erakutsiz.
- Ikasleak gaitasuna izatea pentsamendu analitikorako eta hausnarketa kritikorako.
- Ikasleak gai izatea sormena, berrikuntza eta jarrera ekintzailea garatzeko.
- Ikasleak gai izatea atzerriko hizkuntza batean (batez ere ingelesez, frantsesez edo alemanez) komunikatzeko.

GRADUATUAREN PROFILA – LANERATZE MAILA

Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako graduatuentzako aukera profesional gehienak sortzen dira marketin eta komunikazio-enpresetan, gizarte ikerkuntzako eta merkatuen ikerkuntzako aholkularitza-enpresetan, kontsumo-, zerbitzu- edo industria-enpresetan, merkataritza elektronikoko enpresetan eta edozein enpresa pribatu edo erakunde publikotako marketin- eta merkataritza-departamentuetan.

Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako graduatuek honako postuak bete ditzakete: marketin-zuzendaria edota merkataritza-zuzendaria edozein enpresa edo erakundetan; salmenta sarearen arduraduna edozein motatako enpresetan; merkatuen analista; merkatuen ikerkuntza eta azterlanetako enpresen zuzendaria; marketinari edo merkatuen azterlanei buruzko erabakien arduraduna kontsultoretza-enpresetan eta abar.

EZARPENAREN KRONOLOGIA

- 1. maila:** 2010/11;
- 2. maila:** 2011/12;
- 3. maila:** 2012/13;
- 4. maila:** 2013/14

NEGOZIOEN KUDEAKETAKO ETA MERKATARITZAKO GRADUA

Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

www.enpresa-bilbao.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Ikasle egresatuak errealitate ekonomikoaren maila ezberdinen eragiketak eta prozedurak ulertzeko gai izan behar du. Adierazgarria den finantza eta ekonomi informazioa aztertu eta biltzeko beharrezkoak diren tresnak erabiltzea ikasi behar izan du. Enpresa eta merkatuetako egoera zehaztuei buruzko txostenak egiteko ere gai izango da. Halaber, edozein erakundeko (enpresak, erakunde publikoak, erakunde pribatuak) arloan kudeaketa eraginkorra egiteko beharrezkoak diren tresna teknikoak, ereduak eta kontzeptuak ikasiko ditu.

SARRERAKO PROFILA

Sartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzeaz gain, Negozien Kudeaketako eta Merkataritzako Graduako ikasleak bai enpresako ekonomian bai administrazio publikoan interesa izan behar du. Ikasleak bakarka lan jarraitua erritmoa mantentzeko, ahozko eta idatzizko komunikazioren erraztasuna eta lankidetzaz gaitasunak izatea komenigarria da, baita ere matematika formakuntza zuzena, informazio eta komunikazio teknologien (TIC) ezagutza eta hizkuntzak ikasteko interesa.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Ikasturteko egin behar diren kredituak eta euren ezaugarriak honako taula honetan zehazten dira:

Mota	1. Maila	2. Maila	3. Maila	4. Maila	Guztira
Adarren oinarrizko irakasgaiak	36	18			54
Beste adarren oinarrizko irakasgaiak	12				12
Derrigorrezkoak	12	42	60		114
Kanpoko praktikak				18	18
Graduaren azken lana				12	12
Aukerakoak				30	30
Guztira	60	60	60	70	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

1. Maila
Ekonomia I: sarrera
Kudeaketarako informatika / Management information systems
Ekonomia garaikidea / Contemporary Economy
Matematika I
Finantza kontabilitaterako sarrera
Ekonomia II: politika ekonomikoak
Zuzenbiderako sarrera eta ondasun zuzenbide pribatua
Estatistika I
Matematika II
Enpresarako sarrera

2. Maila
Ekonomia III: Kontsumitzaileak, enpresak eta merkatuak
Merkataritzako zuzenbidea
Finantza matematikak
Estatistika II
Finantza kontabilitatea
Erakundeen soziologia
Zerga eta lan zuzenbidea
Finantza kudeaketa
Sozietateen kontabilitatea
Marketin oinarriak

3. Maila
Mundu ekonomia / World economy
Zerga sistema
Marketin erabakiak
English for business I
Enpresen administrazioa
Nazioarteko negozioak / International business
Kostuen eta kudeaketaren kontabilitatea
Inbertsioen analisisa eta aukeraketa
Français pour entreprises I
English for business II

Irakasgaiak izendatutako hizkuntzan ikasi ahal izango dira.

Graduaren lehenengo hiru mailako irakasgaiak 6 ECTS-koak dira (60 ECTS ikasturte bakoitzeko). ECTS bakoitzak 25 ikasketa ordu suposatzen ditu: presentziazko 10 ordu (klase magistralak, klase praktikoak, ordenagailuen bidezko praktikak, mintegiak, eta abar) eta ikaslearen 15 lan ordu (klaseen prestaketa, ikasketa, lanen eta eragiketen garapena, irakurketak, eta abar).

Minorrak

4. Maila
Kontabilitate eta Auditorian Minorra: Minor honen helburua edozein enpresako Kontabilitate Saila kudeatzeko beharrezkoak diren trebetasunak, gaitasunak eta ezagutzak sakontzea da. Horrela egresatuek sail horien funtzio eta prozedura ekonomikoak eraginkortasun handiarekin burutu ahal izango dituzte. EBek eskaintzen dituen lanpostuen ehuneko altuentzarako prestatuak izango dira. Kontabilitate jakintzarloan formakuntza osatua eskaintzen du, nahiz finantza informazio tresna bezala nahiz enpresako erabaki ekonomikoak hartzeko erabilgarritasuna. Horretaz gain, oinarrizko ezagutzak Sektore Kontabilitate eta Kontabilitate Publikoarekin osatzen da. Hori dela eta, gaur egungo hain lehiakor ingurunean, kontabilitate espezializazioa lortzeko aukera ematen du.
Kontabilitatean aplikatutako finantza matematika (4,5)
Barne kontrola eta enpresa arrisquen kudeaketa (4,5)
Sistemas de planificación y control (4,5)
Balantzeen analisisa (6)
Kontabilitate-estatuen finkatzea (4,5)
Kontuen auditoria (6)
Nazioarteko Merkataritza eta Marketinen Minorra: Minor honek, enpresak nazioarteko prozedura garatu nahi duenean, ingurua aurkituko duen diziplina anitzeko ikuspegia eman nahi du. Aldi berean, marketin aurreratu teknika eta prozeduren formakuntza eskaintzen du; beraz, gaur egun enpresek euren marketin kudeaketa egokia egiteko beharrezkoak diren gaitasunak ikasiko dira.
Analisi estatistikoa (4,5)
Zuzendaritza estrategikoa: Nazioartekotze estrategia (4,5)
Enpresaren kanpo merkataritza (6)
Nazioarteko marketina (6)
English for international trade (4,5)
Investigación comercial (4,5)
Enpresa Txiki eta Ertainen Kudeaketan Minorra: Ertain, txiki eta mikro enpresetarako kudeatzaileak eratzeko Minor honen helburua da. Nola, batzuetan enpresako arlo guztien ardura hartuko duten, edoizen enpresa-saileko ezagutza eta eskarmendu nahikoak lortuko dituzte. EAEko enpresa gehienan horrelakoak dira, beraz gure egresatuen lanpostu gehienak ETE-etatik irtengo dira. Erakunde horien ezaugarriak kontuan hartuta, ikasleek hurrengo gaitasunak landuko dituzte: administrazio ekintzak (pertsonek selekzioa eta kontratazioa, nominak, konpensazioak...), aspektu kognitiboak (barne komunikazioa, langileen garaipena eta formakuntza, enpresako kultura...), emozionalak (lidergoa, motibazioa, lankidetzeta...) eta instituzionalak (sindikatuak harremanak, enpresarekiko negozioak...)
Famili-enpresa eta ETE-en kudeaketa integrala (6)
Giza baliabideak / Human resources (4,5)
Merkataritza elektronikoa eta teknologi berriak / Electronic commerce and new technologies (4,5)
Ekinkuntza eta enpresa berrikuntza (4,5)
Ikerkuntza operatiboa (4,5)
Zerga eta pertsonal kudeaketa Eten (6)
Euskeraren Plan Gidariaren aukerako irakasgaiak
Euskeraren arauketa eta erabilpena (6)
Komunikazioa euskeraz: ekonomia, enpresa eta lan harremanak (6)

Irakasgaiak izendatutako hizkuntzan ikasi ahal izango dira

Graduaren laugarren ikasturtean egin beharrezkoa:

- 30 ECTS, aukerako irakasgaien artean aukeratuz (6 edo 4,5 ECTS-koak), Minor Titulua lortzeko aukera ematen dutenak
- 18 ECTS, enpresetan egindako praktiken bidez (derrigorrezkoak)
- 12 ECTS, Graduaren Azken Lanaren bitartez (irakasle-tutore baten gainbegiratzeaz egingo den eta Eskolako hiru irakaslez osatutako epai-mahai baten aurrean defendatuko dena).

IKASLEEN MUGIKORTASUNA

Eskolak Unibertsitate ezberdinekin ikasle-trukerako hitzarmenak sinatu ditu:

- Estatu mailan: Universidad Pública de Navarra, Universidad Complutense de Madrid, Universitat de Barcelona, Universidad de Las Palmas de Gran Canaria, Universidad de La Laguna (Tenerife).
- Erasmus:
 - International Business School, Groningen, Holanda (ingeles).
 - Mälardalens Högskola, Vasteras, Suecia (ingeles).
 - Fachhochschule für Wirtschaft, Berlin, Alemania (ingeles eta/edo aleman).
 - Université Montesquieu - Bordeaux IV, Burdeos, Frantzia (frantses).
 - Toulouse Business School, Toulouse, Frantzia (frantses eta/edo ingeles).
 - École des Dirigeants et Créateurs d'entreprise, Paris, Frantzia (frantses).
 - Université de Pau et des Pays de l'Adour, Bayona & Pau, Frantzia (frantses).
 - Università degli Studi di Napoli Federico II, Nápoles, Italia (italiano).
 - Università degli Studi Magna Græcia, Catanzaro, Italia (italiano).
 - Instituto Politécnico de Santarém, Portugal (ingeles eta/edo portugés).
 - Academy of Business en Dabrowa Gornicza, Polonia (ingeles).
- Latinamerika: universidades de Argentina, Brasil, Ecuador, México, Chile, Colombia, Bolivia, Perú y Puerto Rico.
- San Diego State University (California, USA) y Universidad Estatal Boise (Idaho, USA).
- Ateneo de Manila University (Filipinas).

PRAKTIKAK

Ikasleak lan-munduarekin harremanetan jartzea da Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako Praktika Zerbitzuaren helburu orokorra, beti ere ikasleon goi-mailako heziketa kontuan hartuta eta praktiken bidez ikasleok honako hau lor dezaten:

- Ezagutza teorikoak praktikan aplikatzea
- Lanerako premiazkoak diren abilezia eta trebetasunak lantzea.

Hori dela eta, praktikak funtsezkoak dira graduaren gaitasunak lortzeko.

Beste aldetik, praktiken aldia ikaslegok bere profil profesionala bideratzeko, hots, bere 4. mailako ekintzak osatzeko, erabil dezala saiatzen da.

Praktikak inguruko enpresetan egingo dira. Praktikak bermaz eraman daitezten, Eskolak enpresekin hitzarmenak sinatu ditu. Praktikak Graduaren 4. Mailako bigarren lauhilabetekoan izango dira. Ikaskuntza honen ebaluazioa egiteko, ikasleak praktiken txostena aurkeztu eta defendatuko du; lan hori egiteko, hasi baino lehen, metodologiari buruzko ikastaroa egongo da. Ekintza hauek graduaren 18 ECTS dira. Praktikak egin nahi dituzten ikasleek graduaren 120 kreditu gaindituak izan behar dute.

LORTUTAKO GAITASUNAK

1. Nahiz negozio kudeaketan nahiz merkataritzan gaitasun eta irizpide baliagarriekin jarduera profesionala garatzea
2. Merkatu gero eta gehiago globalizatuen inguruan, errealitate ekonomiko, enpresen eta komertziala osatzen duten marko, elementu eta harremanak ulertzea
3. Merkatal eta negozioko esparruetan lotuta dauden ekintzak eta prozedurak (antolakuntza eta administrazioa, kontabilitatea, finantziarioa, fiskalitatea, marketina...) ulertzea eta kudeaketarako beharrezkoak diren tresnak erabiltzea
4. Erakundeko esparru desberdinentzako informazio ekonomikoa, legala eta finantzarioaren garrantzia ebaluatzea; eta erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko baliogarririk diren txostenak egitea
5. Ezagutza, teknika eta emozio ahalmenak sakondu talde eta banako lanean gaitzeko, eta autonomia, ekimena, erabakimena, arriskuen onspena, eta etengabeko hobekuntza lortzeko
6. Jarduera profesionalak erantzukizun, konpromiso eta etika printzipioetan oinarritua egon behar duela barneratzea
7. Ahozko eta idatzizko jarioetasun eta zuzentasuna lortzea, kritika gaitasuna eta arrazoibidea erabiliz enpresa eta merkataritza ekintzak burutzeko
8. Jarduera profesionalaren garapenean bai kanpoko hizkuntzak bai TIC-ak barneratzea.

GRADUATU PROFILA

Egresatuaren profil honekin, Negozioen Kudeaketako eta Merkataritzako Graduak ezagutza oinarri sendoa errealitate ekonomikoa aztertzeko ematen du, baita ere erakanduko esparru desberdinetan erraztasunarekin moldatzeko. Dena den, lan egiteko erraztasunik handienak erakundearen kudeaketa (ekoizpena, finantzak, giza baliabideak, fiskalitatea...) eta merkatal ardurak (bezeroen arreta, salmentak, komunikazioa, logistika eta banaketa...) izango dira.

LANERATZEA

Finantza kontabilitatean, kudeaketa kontabilitatean, nazioarteko marketinean eta finantza kudeaketan adituak, TIC's erabiltzeko gaitu handiarekin. Finantza, kontabilitate eta kanpoko merkataritza aholkularia, merkatal, salmenta, erosketa, kostu, kontabilitate, giza baliabide, kalitate, kanpoko auditoria eta barneko auditorian ardura lanak. Edoizein ETE-aren kudeaketa osoa.

EZARPEN KRONOLOGIA

Graduko ezarpena mailakatua izango da, honako egutegi hau jarraituz:

- 2010/11 ikasturtean: 1. eta 4. maila aldi berean ezarriko dira. Horrela 2009/10 ikasturtean diplomatu direnek hurrengo ikasturtean gradu berrira sartzeko aukera izango dute, eta ikasturte berean gradua lortu ahal izango dute
- 2011/12 ikasturtean: 2. maila ezarriko da
- 2012/13: 3. maila ezarriko da, horrela gradu osoa indarrean egongo da.

PEDAGOGIAKO GRADUA

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
www.filosofia-hezkuntza-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Pedagogiako titulazioak helburu bikoitza du:

- lehenik, ikasleei hezkuntza-gertaera oro har aztertzeko eta, era berean, hezkuntzako sistema eta prozesuen analisi, antolaketa eta garapenerako printzipioak ezagutzeko prestakuntza teorikoa eta praktikoa eskaintzea.
- bigarrenik, ikasleei jarduera-esparru jakin batzuetan (gizarte-, eskola- eta enpresa-esparruetan, besteak beste) lan egiteko gaitasuna emango dien prestakuntza praktikoa eta balioaniztuna eskaintzea.

SARTZEKO PROFILA

Tituluaren profila kontuan hartuta, Pedagogiako titulua atera nahi duten ikasleek honako arlo hauetan alde zuzeneko gaitasunak edukitzea komeni da:

- Pertsonarteko erlazioak menderatzea
- Erantzukizunak eta erabakiak hartzeko gaitasuna
- Gizarte-ingurunearekiko errespetua
- Hezkuntza-arazoak konpontzeko gizarte-trebetasunak
- Gizarte-zientzien eta giza zientzien esparruko gaitasunak

IKASKETEN ANTOLAMENDUA

	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Oinarrizko prestakuntza:	30	30			60
Nahitaezkoak:	30	30	30	6	96
Hautazkoak:			24	18	42
Kanpoko praktikak:			6	24	30
Gradu-amaierako lana:				12	12
	60	60	60	60	240

TITULUAREN PROGRAMA

Pedagogiako graduko ikasketen antolamendua moduluko eskemari jarraituz egituratu da. Gradu hau zazpi moduluko osatua da; lauhileko bina modulu egiten dira lehenengo hiru ikasturteetan, eta azken modulua, laugarren ikasturtean.

Lehenengo ikasturteko bi moduluak eta bigarren ikasturteko lehenengo modulua batera doaz Gizarte Hezkuntzako graduko tituluarekin.

1. taula. Ikasketa-planaren laburpen-koadroa: ikasturteak, moduluak, irakasgaiak eta kredituak

IKAST URTEA	MODULUA	IRAKASGAIAK	ECTS	
1	1M- Hezkuntza Testuinguruak		30	
		Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aniztasuna	6	
		Estatistika Hezkuntzan	6	
		Hezkuntzaren Historia	6	
		Garapenaren Psikologia	6	
		Hezkuntzaren Soziologia	6	
	2M- Hezkuntza Lanbideak		30	
		Komunikazioa eta Hezkuntza Erlazioa	6	
		Giza Eskubideak, eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak	6	
		Identitatea eta Lanbide Garapena	6	
	Hezkuntza Legedia eta Nazioarteko Ikuspegia	6		
	Pedagogia: Teoria eta Hezkuntza Erakundeak	6		
2	3M- Hezkuntza Prozesuen Oinarriak		30	
		Didaktika Orokorra	6	
		Hezkuntza Prozesu, Zerbitzu eta Erakundeen Antolaketa eta Kudeaketa	6	
		Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa	6	
		Inklusio eta Bazterketa Prozesuak	6	
		Hezkuntzaren Psikologia	6	
	4M- Hezkuntza Ikerketa eta Berrikuntza		30	
		Hezkuntza Diseinua eta Berrikuntza	6	
		Ebaluazioa Hezkuntzan	6	
		Hezkuntza Ikerketa	6	
	Informazioa Biltzeko eta Aztertze Prozedurak	6		
	Baliabide Informatikoak Hezkuntzan	6		
3	5M- Hezkuntzako Esku-hartzea		30	
		Diagnostikoa Hezkuntzan	6	
		Ezintasuna eta Inklusioa	6	
		Taldean Esku-hartzeko Estrategiak	6	
		Prestatzaileentzako Prestakuntza	6	
		Hezkuntzako Esku-hartze Ereduak	6	
	6M- Pedagogia Esparruak		30	
		Practicum - I	6	
		1. hautazkoa: Hezkuntza Aholkularitza eta Laguntza	(6*)	
		2. hautazkoa: Ikaskuntzako eta Garapeneko Zailtasunak	(6)	
		3. hautazkoa: Ekonomia, Hezkuntza eta Lana	(6)	
		4. hautazkoa: Hizkuntzen Irakaskuntza eta Ikaskuntza	(6)	
		5. hautazkoa: Euskararen Arauak eta Erabilera	(6)	
	6. hautazkoa: Hezkuntzako Esku-hartzea Testuinguru Eleanizetan	(6)		
	7. hautazkoa: Lanbide eta Lan Orientazioa	(6)		
4	7M- Garapen Profesionala eta Praktika Pedagogikoa		60	
	1. lauhilekoa:	Practicum - II	24	
		Hezkuntza Jardueraren Teoria eta Praktika	6	
	2. lauhilekoa:	Gradu Amaierako Proiektua	12	
		8. hautazkoa: Garaiko Hezkuntza Euskal Herrian	(6)	
		9. hautazkoa: Euskara Zientifikoa	(6)	
		10. hautazkoa: Hezkuntzako Esku-hartzea Gatazken Konponketan	(6)	
		11. hautazkoa: Etengabeko Hobekuntza eta Ekintzailtza	(6)	
		12. hautazkoa: Osasuna eta Hezkuntza	(6)	
				240

(*) Parentesi artean adierazitako kreditu kopurua hautazko irakasgaietako dagokie; ikasleek horien artean aukera egin beharko dute, 6. moduluan 24 kreditu eta 7. moduluan 18 kreditu eskuratzeko moduan.

Ikasleek euskaraz nahiz gaztelaniaz ikasi ahal izango dituzte tituluko irakasgai guztiak. Era berean, irakasgai batzuk euskara edo gaztelania ez beste hizkuntzaren batean egiteko aukera ere izango dute.

MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Pedagogiako ikasketak Espainiako unibertsitateetan, Europako herrialde gehienetako unibertsitateetan eta Amerikako unibertsitate gehienetan irakasten dira.

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Gizarte Hezkuntzako graduako ikasketak egiten diren fakultateak, UPV/EHUK sustatutako mugikortasun-programetan parte hartzen du: SICUE-SENECA, ERASMUS, LATINOAMERIKA ETA BESTE TOKI BATZUK. Programa, toki, araudi eta abarrei buruzko informazioa honako webgune honetan kontsulta daiteke:

<http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/es/>

PRAKTIKAK

Lanbide-praktikak bereziki garrantzizkoak dira titulu honetan. Prestakuntza-programan nahitaezko bi praktikaldi bereizten dira: Practicum I, 6 kreditukoa, hirugarren ikasturtean; eta Practicum II, 24 kreditukoa, laugarren ikasturtean. Practicumaren xedeak bat datoz ikasketa hauen izaera teoriko-praktikoarekin, eta pedagogiako profesionalak lanean ari diren hainbat erakunde ezagutuz eta lanbidearen trebetasunak praktikaren bidez garatuz arlo profesionalera hurbiltzeko aukera emango diete ikasleei. Horretarako, fakultateak lankidetzat hitzarmenak sinatu ditu ikastegi-, zerbitzu-, enpresa- eta erakunde-sare zabal batekin. Gaur egun, 300 erakunde baino gehiagorekin dauka fakultateak lankidetzat hitzarmena.

ESKURATUTAKO GAITASUNAK

Pedagogiako graduduna ikasketak amaitutakoan eskuratuta izango dituen gaitasunekin gai izango da:

- Pertsonak, taldeak, testuinguruak eta erakundeak aztertze eta horien diagnostikoa egiteko, hainbat jarduera-arlo profesionalean esku-hartze pedagogikoa finkatzeko eta bideratzeko.
- Garapen profesionalerako prestakuntza-proposamenak planifikatzeko eta antolatzeko, berrikuntza-planen eta programen garapenaren araberako premiei erantzuteko.
- Hezkuntzako prozesuak eta programak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko, askotariko testuinguruetan eta taldeetan, gizarteratzea, kalitatea eta berdintasuna oinarri hartuta.
- Hezkuntzako baliabideak eta erakundeak antolatzeko eta kudeatzeko, optimizazioaren bidetik. Pertsonen eta kolektiboen hezkuntza-garapena eta gizarte-garapena sustatzeko materialak sortzeko, orotariko euskarrietan.
- Hezkuntza-arloko gaiei buruzko ezagutza kritikoa eskuratzeko, interpretatzeko, ikertzeko eta eraikitze, gai zientifiko, politiko, sozial eta etikoei buruzko gogoetan eta erabakietan iritzia eta orientazioa emateko, Giza Eskubideen ikuspegitik.

- Pertsonen artean harreman eta komunikazio horizontal eta enpatikoa sustatzeko baldintzak sortzeko, testuinguru eleanitzetan eta kulturantzetan gizarte-inklusioa sustatzeko (entzutea, negoziazioa, adostasuna eta desadostasuna, etika...).
- Publiko espezializatuentzat eta ez-espezializatuentzat irizpide zientifiko eta sistematikoen arabera proposamenak lantzeko eta argudiatzeko, idatziz nahiz ahoz, erabakiak hartzeko prozesuak errazteari begira.
- Ikaskuntza-trebetasunak, trebetasun pertsonalak, gizarte-trebetasunak eta lanbide-trebetasunak garatzeko, pedagogoa askotariko lanbide-arloetan txertatzeari begira, autoenplegua barne hartuta.

GRADUDUNAREN AMAIERAKO PROFILA

Pedagogiako gradudunaren profila honela definitzen da:

Pedagogiako gradudunak esku-hartze pedagogikoa, prestakuntza, ebaluazioa eta baliabideen kudeaketa gauzatzeko prestakuntza profesionala izango duen hezkuntza-arloko aditua izango da. Bere egitekoa erakunde-, gizarte-, kultura- eta lan-arloetan giza eskubideen errespetuan oinarritutako hezkuntza inklusiboa, eleanitza, komunitarioa eta pertsonen bizi osoan zeharreko gizarte-ongizateari begirakoa gauzatzera zuzenduta egongo da.

Gradudunaren prestakuntza honako lan-arlo hauetan garapen profesionala lortzera bideratuko da: hezkuntza arautua, hezkuntza ez-arautua, justizia, bitartekaritza, teknologia berriak eta hedabideak edo/eta ikus-entzunezkoak, erakundeak eta enpresa, sustapen ekonomikoa eta okupazioa, osasuna, zerbitzu pertsonalak, gizarte eta kulturako zerbitzuak, eta gizarte eta hezkuntzako zerbitzuak.

LAN-MUNDUAN SARTZEA

Pedagogoen profil profesional nagusien artean, honako hauek dira nagusiak:

- Aholkulari pedagogikoa (Entzumena eta Hizkuntza, Pedagogia Terapeutikoa,...)
- Birgizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko programen aholkularia
- Aholkulari pedagogikoa
- Erakundeetako prestakuntza-arloko aholkularia eta kudeatzailea
- Esku-hartzeko talde pedagogikoen koordinatzailea
- Babespeko zentroetako edo espesietako programen koordinatzailea
- Giza Baliabideen edo prestakuntzaren saileko zuzendaria
- Ikastetxe eta hezkuntza-erakundeen zuzendaritza
- Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuen diseinatzaile, aholkulari eta ebaluatzailea
- Baliabide didaktikoen, teknologien eta multimedia baliabideen diseinatzaile, aholkulari eta ebaluatzailea
- Hezkuntzako material eta testuen diseinatzaile, aholkulari eta ebaluatzailea
- Irakaslea
- Ingurumen-hezitzailea
- IKTetan aditua
- Diziplinarteko esparruetan aditua (diziplinarteko taldeak, Berritzeguneak)
- Aniztasunaren hezkuntza-arretan aditua
- Osasun-hezkuntzan aditua
- Kontsumorako hezkuntzan aditua
- Garapen komunitarioan eta hiriaren garapenean aditua
- Familia-hezkuntzan aditua

- Gizarte-arloko esku-hartzeetan aditua
- Hezkuntzako eta prestakuntzako sistema, erakunde, politika eta programen ebaluatzailea
- Prestatzaileen prestatzailea
- Pertsonen prestatzailea
- Kudeatzaile sozio-kulturala
- Gizarteratze-prozesuen eta aniztasunaren kudeaketa
- Lan-taldeen kudeaketa
- Prestakuntza-kudeaketa
- Programen kudeaketa
- Hezkuntza Administrazioiko ikuskatzailea/gainbegiralea
- Hezkuntza-prozesuen ikertzailea
- Bitartekaria (enpresa, espetxea, komunitatea, eskola, familia...)
- Orientatzailea (pertsonala, akademikoa, profesionala, familiarena eta lan-arlokoa)
- Birgizarteratze-programetako esku-hartzeen teknikaria
- Hezkuntzako edo/eta prestakuntzako programen diseinu, ekoizpen, garapen eta ebaluazioko teknikaria
- Kalitatearen kudeaketako eta aldaketa-prozesuetako teknikaria
- Jakintzaren kudeaketako teknikaria
- Erakundeetako prestakuntza-teknikaria
- Lanbide-garapenaren orientazio-teknikaria

EZARPEN-KRONOLOGIA

Pedagogiako graduco titulua era mailakatuan ezarriko da:

- 1. maila**, 2010/11
- 2. maila**, 2011/12
- 3. maila**, 2012/13
- 4. maila**, 2013/14

POLITIKA ZIENTZIAKO ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO GRADUA

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
www.gizarte-komunikazio-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIPZIOA

Zientzia Politikoa eta Administrazio Publikoa graduaren helburua administrazio publiko eta erakunde pribatuen funtzionamendua ezagutzea da; hauteskunde prozesuak aztertzea eta honen inguruko prospekzioak egitea; bai eta politika publiko eraginkorrak diseinatzea ere. Administrazioan egiten diren praktika boluntarioek erakunde funtzionamendua eta kudeaketa publikoaren teknikak ezagutarazten dizkiete gure ikasleei. Halaber, elkartrukatzeko programek atzerriko unibertsitateetan ikastaroak egiteko aukera ematen diete.

SARTZEKO PROFILA

Sarbiderako eskakizunak betetzeaz gain, Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoko ikasleek politika eta gobernantzaaren zein administrazio eta erakunde publikoen inguruko interesa izan behar dute.

IKASKETEN ANTOLAKETA

		Kredituak					GUZTIRA
		Oinarrizkoa formazioa	Beste alor bateko irakasgaiak	Berariazkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako proiektua	
Ikastaroak	1.	60	0				60
	2.			60			60
	3.			42	18		60
	4.			24	24	12	60
	GUZTIRA	60		126	42	12	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoa graduak lau urteko iraupena du eta bi ziklotan banatzen da; ziklo bakoitzean bi ikastaro-modulu ematen dira. Lehenengo zikloan gizarte zientzietako edozein profesionalek izan behar dituen kompetentziak lantzen dira eta, horregatik, gai guztiak derrigorrezkoak dira. Lehenengo ikastaro-modulua eta bigarrenaren hamar gaietako lau Soziologian ere ematen dira.

Bigarren zikloa gizarte zientzietako arlo ezberdinetan espezializazioak lortzera zuzenduta dago. Bi moduluek hautazko ikasgai asko dute, ikasleari alor honetan dagokion profil profesionala diseinatzen laguntzen diotenak.

Bigarren ziklo honek lau aipamen ditu, hiru gaztelaniaz.

- *Analisi eta Consulting Politikoa Aipamena* analisi politikoan espezializazioa lortu nahi duten ikasleei zuzenduta dago; prospekzio elektorala, komunikazio politikoaren kudeaketa, *lobbying* eta interesen irudikapena ez ezik analisi estrategikoa eta eszenatoki politikoaren aurreikuspena ere bere gaiak dira. Bost gai ditu (30 kreditu) eta bigarren zikloan eskaintzen dira: *Komunikazio politikoa, Analisi politikoa eta prospekzio elektorala, Marketing politikoa, Aldaketa eta gatazka politikoa, eta Ekintza politikoa eta interes taldeak.*

- *Kudeaketa Publikoa Aipamena* zerbitzu publikoen kudeaketan eta politika publikoen diseinu eta ebaluazioan espezializazioa lortu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bost gai ditu (30 kreditu ECTS) eta bigarren zikloan ematen dira: *Giza baliabideen kudeaketa, Sektore publikoaren ekonomia, Politika eta programa publikoen ebaluazioa, eta Administrazio publikoen aldaketa eta berrikuntza.*

- *Nazioarteko Harremanak Aipamena* nazioarteko proiektio handia duten erakunde publiko zein pribatuetan lan profesionala egiteko espezializazioa lortu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bost gai ditu (30 kreditu ECTS), bigarren zikloan ematen direnak: *Gizarte parte-hartzea eta metodologia partehartzailea, Kultura eta hizkuntzaren soziologia, Familia eta aldaketa soziala, Migrazioen soziologia, eta Zientzia, teknologia eta ezagupenaren kudeaketa.*

Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoa graduko lehenengo zikloa euskaraz zein gaztelaniaz ikas daiteke, osorik. Bigarren zikloan, aldiz, zazpi hautazko gai ematen dira euskaraz eta hiru aipamen gaztelaniaz. Gradu honetan ingelesezko ikasgaiak ere badaude.

Gradu hau enpresetan praktika boluntarioak egiteko eta ikasleen mugikortasuna sustatzeko diseinatuta dago.

Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoa gradua lortzeko gradu amaierako lana egin behar da; ikasleak politika zientzien arloari lotutako ikerketa-lana egin behar du.

LEHENENGO ZIKLOA

1 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Zientzia Politikoaren hastapenak	6	1	Derr.
Ikerketa soziologikoaren oinarriak	6	1	Derr.
Zuzenbiderako sarrera	6	1	Derr.
XX. mendeko gizarte eta historia politikoa	6	1	Derr.
Ekonomia politikoa	6	1	Derr.
Analisi politikoaren hastapenak	6	2	Derr.
Erakundeak eta gizarte prozesuak	6	2	Derr.
Ikerketa soziala eta politikorako sarrera	6	2	Derr.
Nazioarteko Harremanak	6	2	Derr.
Gizarte psikologia	6	2	Derr.
2 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Teoria soziologikoa I	6	1	Derr.
Gizarte ikerketa kuantitatiboa: Inkesta eta bestelako datuak	6	1	Derr.
Gizarte ikerketa kualitatiboa	6	1	Derr.
XX. mendeko Espainiako eta Euskadiren historia	6	1	Derr.
Eguneroko bizitzaren soziologia	6	1	Derr.
Teoria soziologikoa II	6	2	Derr.
Gizarte prozesu eta egiturak Euskal Herrian	6	2	Derr.
Datuen kudeaketa eta analisi estatistikoa	6	2	Derr.
Komunikazio teoriak	6	2	Derr.
Ikerketa tailerra	6	2	Derr.

BIGARREN ZIKLOA

3 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Espainiako eta Euskadiko sistema politikoa	6	1	Derr.
Politika publikoen analisia	6	1	Derr.
Europaren integrazioa	6	1	Derr.
Administrazio Zuzenbidea	6	1	Derr.
Datuen kudeaketa eta analisi estatistikoa II	6	1	Derr.
Datuen analisi aldakorra	6	2	Derr.
Proiektuen diseinua	6	2	Derr.
Komunikazio politikoa	6	2	Hau.
Analisi politikoa eta hauteskunde prospektiba	6	2	Hau.
Nazioarteko politika	6	2	Hau.
Nazioarteko antolamendua	6	2	Hau.
Giza baliabideen kudeaketa	6	2	Hau.
Sektore publikoaren ekonomia	6	2	Hau.
Euskal Gobernugintza politikoa	6	2	Hau.
Euskal Gobernugintza Ekonomikoa: erakundeen finantziaketa eta aurrekontuak	6	2	Hau.
Euskal erakunde ordezkatzailerak. eta alderdi politikoak	6	2	Hau.
4 MÓDULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Politika konparatua	6	1	Derr.
Antolaketa, kudeaketa eta erabaki publikoa	6	1	Derr.
Ideologia eta nortasun politikoak	6	1	Derr.
Globalizazioa eta munduko sistema ekonomikoa	6	1	Derr.
Marketing politikoa	6	2	Hau.
Aldaketa eta gatazka politikoa	6	2	Hau.
Ekintza politikoa eta interes taldeak	6	2	Hau.
Gatazken analisia eta irtenbideak	6	2	Hau.
Nazioarteko gizartearen arazo globalak	6	2	Hau.
Kanpo-politika eta diplomazia	6	2	Hau.
Programa publikoen ebaluazioa	6	2	Hau.
Administrazio publikoetan aldaketa eta berrikuntza	6	2	Hau.
Administrazioaren interbentzio tresnak	6	2	Hau.
Elkarreragin arautu gabea eta liskartsua euskal politikan	6	2	Hau.
Arloko Politika Publikoak	6	2	Hau.
Euskal Gizarte Kapitala	6	2	Hau.
Mugaz Gaindiko Kooperazioa	6	2	Hau.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Atzerrian ikastaro bat egiteko aukerak, hizkuntza ikasi zein ezagupenak handitzeko abagunea emateaz gain, ikaslearen curriculumari balio erantsia dakarkio. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen helburuetariko bat atzerriko beste zentroetako bigarren zikloko ikasleekin elkartrukatzea suspertzea da, honako programa hauen bitartez: Sicue/Séneca (Estatu mailako mugikortasuna), Sócrates/Erasmus (Europa mailako mugikortasuna), UPV/EU programa (Latinoamerika) eta “Beste helmuga batzuk” programa (AEB, Errusia, Kanada eta Asia). Gaur egun, aldebiko akordioak ditu munduan zeharreko 60 fakultate baino gehiagorekin eta gure ikasleei elkartrukatzareko 100 plaza baino gehiago eskaintzen zaie. Fakultatea akordio berriak eta plaza gehiago kudeatzen ari da Europako goi mailako hezkuntza-esparrura egokitzeko planaren barruan.

PRAKTIKAK

Esparru profesionalarekin harreman izatea da, gradua amaitzen den bitartean, gure zentroan ikastearen beste abantaila bat. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak enpresetan, erakundeetan eta instituzio publiko zein pribatuetan, hezkuntza lankidetzarako praktika programa boluntario bat eskaintzen die bigarren zikloko ikasleei. Programa honek 500 toki baino gehiago ditu. Praktikak eta ikasketak batera egin daitezke eta 450 orduko iraupena dute.

HARTUTAKO KONPETENTZIAK

- Ingurune politikoko fenomenoak behatzeko ezagupena hartzea eta kontzeptu, teoria eta ikuspegi metodologikoen esanahia eta bidezotasuna ulertzea.
- Ikuspegi konparatzaile batetik erakunde eta sistema politikoen funtzionamendua eta egitura ulertzea, osagaiak eta jarduteko lege-esparrua identifikatu, elkarlotura interpretatu, funtzionamenduaren gaineko ondorioak atera eta irtenbideak proposatzeko.
- Testuinguru jakin bateko aktore politikoak eta hauen gaitasunak eta portaera identifikatzea, sistema politikoan eraginak aztertzeke, betiere eszenatoki egokiena aurreikusteko asmoz.
- Hauteskunde prozesuak ezagutzea, formazio eta joera politiko guztien aldetik, sistema demokratiko guztien errepresentazio logikora heldu arte; zertarako eta komunikazio politikorako kanpainak diseinatu, hauteskunde ondoko eszenatokiak definitu eta emaitzak interpretatzeko.
- Erakunde publiko ororen egitura, antolaketa eta funtzionamendua maila guztietan ulertzea, administrazioarako planifikazio eta kudeaketa prozesuak ezartzeko.
- Nazioarteko politika ezagutzea, honen aktoreak, egitura instituzionala eta politikoa, antolamendua eta beste alor batzuen arteko erlazioa identifikatuz, munduan erregionalizatzeko prozesuak zein eskualde integrazioa aztertzeke eta erabakiak hartzeke eszenatoki egokia errazteke.
- Gubernugintzaren inguruko ikuspegiak eta helburu publiko eta erabaki politikoen adopzio prozesuak ezagutzea, politika publikoak planifikatu, ezarri, ebaluatu eta aztertzeke.
- Adierazleak sortzea, datu kuantitatibo zein kualitatiboekin lan eginez, fenomeno politiko ezberdinen neurriak eta erakundeen zein administrazioaren funtzionamendua, identifikatu, aztertu eta ebaluatzeke.
- Sintetikoki, arazo politikoen inguruko informazioa aztertzea eta gizartearen arazoak ere kontuan izatea, jarrera kritiko bat garatuz eta lan profesionalean sendotasun intelektuala eta morala erabiliz.

GRADUATUAREN PROFILA

Gradu honetako ikasleek, titulazioaren konpetentziaz gain, azterketa politikoak, hauteskunde prospektiba eta aholkularitza politikoak egiteko gaitasuna dute. Politika publikoak kudeatzean datza bere lana, administrazioa hobetzeko eta berritzeko eta herritarren parte-hartzerako sistemak diseinatzen ditu. Gelditu gabe aldatzen doazen joera politikoetan adi egoteko interesa garatzen du eta etengabeko trebakuntza saioetan ere parte hartzen du.

LANERATZEA

Politologoak gobernu, ordezkariak publiko eta aholkularitza lanetan teknikari oso gaituak dira. Bost sektoretan egiten dute lan:

- Erakunde politikoak eta Administrazioa, toki (gubernua, aldundiak, udalak) estatu eta nazioarte mailan.
- Erakunde politikoak eta elkarteak, alderdi politikoak, sindikatuak, GKEak, fundazioak, kirol federazioak eta beste elkarte mota batzuk.
- Nazioarteko Erakundeak eta Kanpo Ekintza: esparru honek Diplomazia identifikatzen du, Kanpo Gaietarako ministerioari lotua edota nazioarteko erakundeei atxikia, enbaxadetan eta kontsulatuetan egiten du lan, baita nazioarteko erakundeetan ere (Munduko Bankua, NBE, lankidetzeta-bulegoetan, e.a.).
- Enpresa pribatua, enpresa-entitate federazioak, fundazioak, merkataritza, industria eta nabigazioko ganbera ofizialak, profesionalen elkargoak eta aholkularitza enpresak.
- Irakaskuntza eta Ikerkuntza: erakunde publikoetan ikerketa politologikoak egiteko profesional gaitua (EUSKOBAROMETROA, CIS, besteak beste). Ikertzaile gaitua, unibertsitate esparruan lan egiten duena.

EZARPEN KRONOLOGIA

1. maila:	2010/11
2. maila:	2011/12
3. maila:	2012/13
4. maila:	2013/14

PUBLIZITATEKO ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO GRADUA

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
www.gizarte-komunikazio-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIPZIOA

Publizitatea eta Harreman Publikoak graduak, ikasleak XXI. mendeko komunikabideei (internet, bideo-jokoak, telebista, irratia, zinea, multimedia teknologia berriak eta telefonia mugikorra) egokitutako komunikazio integraleko kanpaina eraginkorrek diseinatzeko eta sortzeko gaitasuna garatu ahal izatea du helburu. Ikasketa planak, modu orekatuan, formazio teoriko eta praktikoa elkartzen ditu. Ikasleek komunikazio integraleko kanpainak diseinatu ikasten dute eta, oro har, publizitate formatu ezberdinetako egitasmo profesionalak ere bai. Fakultateak instalazio berriak ditu, bertan ikasleek proiektu praktikoa asko egiten dute, arlo honetan prestakuntza sendoa bermatzen dutenak. Gainera, enpresetan egindako praktika boluntarioek eta atzerriko unibertsitateekin egindako ikasle-trukatzeek ikaste-prozesua osatzen dute.

SARTZEKO PROFILA

Sarbiderako eskakizunak betetzeaz gain, Publizitate eta Harreman Publikoko ikasleak sormenezko proposamenen gainean interesa behar du izan, bai eta komunikazio (telebista, irratia, internet, bideo-jokoak, zinema eta multimedia teknologia berriak) eta publizitate sektorearen euskarri eta formatu berriei buruz ere. Izan ere, internet eta teknologia berriak erraztasunez erabili behar ditu eta komunikaziorako zein harremanetarako gaitasuna ere izan behar du. Kultura maila ona, hizkuntzak jakitea, sormena izatea eta berritzailea izatea baloratzen da.

KASKETEN ANTOLAKETA:

		Kredituak					
		Oinarrizko formazioa	Beste alor Bateko irakasgaiak	Berariazkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako proiektua	Guztira
Ikastaroak	1.	54	6				60
	2.			60			60
	3.			30	30		60
	4.			30	18	12	60
	Guztira	54	6	120	48	12	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Publizitatea eta Harreman Publikoak graduak lau urteko iraupena du eta bi ziklotan banatzen da, ziklo bakoitzak bi ikasturte-modulu dauzka. Lehenengo zikloan oinarrizko kompetentziak jorratzen dira, bai praktikoak bai komunikabideetako edozein profesionalak ikasi behar dituen gaitasun teorikoak. Izan ere, lehenengo ikasturte-modulua bera da Kazetaritza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa graduetarako ere, eta bigarren ikasturte-moduluan hamar ikasgaietako sei gai komunak dira Ikus-entzunezko Komunikazioarekin eta lau Kazetaritzarekin.

Bigarren zikloa publizitatearen eta harreman publikoen alor ezberdinetan espezializazioa lortzera bideraturik dago. Bi moduluek profil praktikoa dute eta ikasleari arlo honetan bere profil profesionala diseinatzeko aukera ematen dioten hautazko gaiak eskaintzen dituzte. Bigarren ziklo honek bi aipamen ditu:

- *Komunikazio zuzendaritza Aipamena* enpresa pribatuetan eta erakunde publikoetan komunikazioaren kudeaketan espezializatu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bost gai (30 kreditu ECTS) ditu eta bigarren zikloan eskaintzen dira: *Komunikazio kabineteak, Komunikazio publikoa, Harreman publikoetarako teknikak, Bozeramaileentzako formazioa eta Nazioarteko erakundeetako komunikazioaren kudeaketa.*

- *Multimedia Errealizazioa Publizitatean Aipamena* publizitatearen komunikazio estrategiei aplikatutako teknologia berrietan espezializatu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bost gai (30 kreditu ECTS) ditu eta bigarren zikloan eskaintzen dira: *Sormena II, Diseinu grafiko aplikatua, Ikus-entzunezko narratiba, Multimedia Errealizazioa Publizitatean eta Artearen zuzendaritza.*

Bigarren ziklo hau ere enpresetan praktika boluntarioak egin ahal izatea errazteko diseinatuta dago, baita atzerriko unibertsitateek eskaintzen dituzten plazak baliatuz ikastaroren bat egin ahal izateko ere.

Publizitatea eta Harreman Publikoak gradua lortzeko ikasleak gradu amaieran lan bat egin beharko du, ikasleak lan munduan modu egokian murgiltzeko gaitasuna duela adieraziko duen ikerketa lana, alegia.

Publizitatea eta Harreman Publikoak gradua euskaraz zein gaztelaniaz egin daiteke, oso-oso; gainera, ingelesez emandako gaiak ere eskaintzen dira.

LEHENENGO ZIKLOA

1 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA DERR./HAU.)
Idazketa informatiboa prentsan	6	1	Derr.
Ikus-entzunezko lengoia	6	1	Derr.
Komunikazio komertziala, korporatiboa eta instituzionala	6	1	Derr.
Gaur egungo munduaren historia	6	1	Derr.
Hizkuntzaren erabilerak komunikabideetan (eusk./gazte.)	6	1	Derr.
Informazio generoak	6	2	Derr.
Ikus-entzunezko sormen teknikak	6	2	Derr.
Komunikazioa eta publizitatea: pertsuasio estrategiak	6	2	Derr.
Komunikazioari aplikatutako estatistika	6	2	Derr.
Ingurune ekonomikoaren analisia	6	2	Derr.

2 MODULUA Irakasgaiak	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Informazioaren zuzenbidea	6	1	Derr.
Nazioarteko harremanak	6	1	Derr.
Ziberkazaritza idazketa	6	1	Derr.
Publizitatearen historia	6	1	Derr.
Sormena	6	1	Derr.
Dokumentazio iturrien gestioa	6	2	Derr.
Publizitate eta Harreman Publikoetako sistemak eta prozesuak	6	2	Derr.
Marketinga: kontzeptuak, estrategiak eta teknikak.	6	2	Derr.
Ikerketa metodoak komunikazioan	6	2	Derr.
Pentsamendu politikoaren historia	6	2	Derr.

BIGARREN ZIKLOA

3 MODULUA Irakasgaiak	KRÉDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU)
Iragarbideen plangintza I	6	1	Derr.
Diseinu grafikoa	6	1	Derr.
Harreman Publikoen teoria	6	1	Derr.
Sormena II	6	1	Hau.
Globalizazioa eta munduko sistem ekonomikoa	6	1	Hau.
Komunikazioaren kudeaket Nazioarteko Erakundeetan	6	1	Hau.
Iragarbideen plangintza II	6	2	Derr.
Merkatuen ikerkuntza	6	2	Derr.
Harreman Publikoen teknikak	6	2	Hau.
Bozera maileen trebakuntza	6	2	Hau.
Diseinu grafiko aplikatua	6	2	Hau.
Ikus-entzunezko narratiba	6	2	Hau.
Komunikazioa, generoa eta masa kultura mundu garaikidean	6	2	Hau.
Euskararen erabilera eta arauak	6	2	Hau.

4 MODULUA Irakasgaiak	KRÉDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Marketing estrategiko eta interaktiboa	6	1	Derr.
Publizitatearen eraginkortasuna	6	1	Derr.
Kontsumoaren psikosoziologia eta marketinga	6	1	Derr.
Komunikazio publikoaren zuzendaritza	6	1	Hau.
Multimedia errealizazioa publizitatean	6	1	Hau.
Arte zuzendaritza	6	1	Hau.
Ikus-entzunezkoen sistema	6	1	Hau.
Komunikazio euskaraz: hedabideetarako estrategia linguistikoak	6	1	Hau.
Komunikazio estrategikoa eta operazionala	6	2	Derr.
Publizitatearen zuzenbidea	6	2	Derr.
Komunikazio kabineteak	6	2	Hau.
Kultur marketinga	6	2	Hau.
Publizitatearen etika	6	2	Hau.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Atzerrian ikastaro bat egiteko aukerak, hizkuntza ikasi zein ezagupenak handitzeko abagunea emateaz gain, ikaslearen curriculumari balio erantsia dakarkio. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen helburuetariko bat atzerriko beste zentroetako bigarren zikloko ikasleekin elkartrukatzea suspertzea da, honako programa hauen bitartez: Sicue/Séneca (Estatu mailako mugikortasuna), Sócrates/Erasmus (Europa mailako mugikortasuna), UPV/EU programa (Latinoamerika) eta "Beste helmuga batzuk" programa (AEB, Errusia, Kanada eta Asia). Gaur egun, alde biko akordioak ditu munduan zeharreko 60 fakultate baino gehiagorekin eta gure ikasleei elkartrukatzareko 100 plaza baino gehiago eskaintzen zaie. Fakultatea akordio berriak eta plaza gehiago kudeatzen ari da Europako goi mailako hezkuntza-esparrura egokitzeko planaren barruan.

PRAKTIKAK

Esparru profesionalarekin harreman izatea da, gradua amaitzen den bitartean, gure zentroan ikastearen beste abantaila bat. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak enpresetan, erakundeetan, eta instituzio publiko zein pribatuetan egin beharreko hezkuntza lankidetzako programa boluntarioa eskaintzen die bigarren zikloko ikasleei. Programa honek 500 toki baino gehiago ditu. Praktikak eta ikasketak batera egin daitezke eta 450 orduko iraupena dute. Gainera, hautazko 12 krediturekin baliokidetu ahal dira.

HARTUTAKO KONPETENTZIAK

- Teoria, kontzeptu eta metodologiaren esanahia eta bidezatasuna ulertzea, komunikazioaren diziplina arteko testuinguruan eta bereziki erlazio publiko eta publizitate teknikan.
- Teoria eta tresna metodologikoak hainbat prozesu eta testuinguru komunikatibotan aplikatzea.
- Komunikazioak sortutako arazoak konpontzeko sormenezko ikuspegiak laburbildu, garatu eta aplikatzea.
- Ekintzak, gizarte prozesuak, testuak eta egitasmo komunikatiboak aztertu, interpretatu, azaldu eta baloratzea.
- Egitasmoak, lorpenak, lana eta ikerketaren emaitzak erraztasunez, eraginkortasunez eta modu argudiatuan komunikatu eta adieraztea, zenbait genero, euskarri nahiz publizitate komunikabidetan eta harreman publikoetan.
- Trebetasunak garatzea, taldekako lanean parte-hartzeari, hobekuntzari eta kudeaketari dagokionez, emaitzen ebaluazioari eta erabakiei aplikatutako irizpide informatuak erabiliz.
- Harreman, komunikazio publizitario eta edukien garapenari zuzendutako errekurtsuak eta teknologiak erabiltzeko trebetasunak eta teknikak aplikatzea.
- Harreman publikoetan eta proiektu publizitarioen munduan, ekintzen planifikazioari eta helburuen identifikazioari zuzendutako estrategiak proiektatu eta diseinatzea.
- Inguru eta errutina profesionaleko ezagutza eta eskarmentua lortzea, merkatuak eskatzen dituen publizitatearen eta harreman publikoen arloko profesionalen profil ezberdinen lan-errealitateari hurbiltzeko
- Hainbat iturritako informazioa eta dokumentazioa aztertu, hierarkizatu eta bilatzea, betiere edukia estrategia eta modu narratiboetara egokiturik.

GRADUATU PROFILA (IRTEERA PROFILA)

Publizitatean eta Harreman Publikoetan graduatuak profesional espezializatua da eta teknikoki gaitzen duen formazioa jasotzen du. Titulazioaren konpetentziak ez ezik, edozein ikus-entzunezko euskarri edo bitarteko teknologikotan marketing eta publizitate kanpainak zein komunikazio kanpaina integralak egiteko eta diseinatzeko ezagutza ere jasotzen du.

LANERATZEA

Publizitatean eta Harreman Publikoetan graduatuak profil profesional asko gara ditzake, honako bost arlo hauetan banatzen direnak:

- Harreman publikoetako kabinete arduradunak edo komunikazio zuzendariak: entitate publiko zein pribatuen komunikazio plan eta kanpainak, bere osotasunean, kudeatu eta gauzatu dituztenak.

-Publizitate sortzailea: edozein ikus-entzunezko formatutan kontsumitzaileak erakar ditzaketen publizitate kanpaina berrietan profesional gaitua.

-Diseinatzile grafikoa eta Web diseinatzailea: komunikazioaren edozein publizitate produktu edo formaturi egokitutako komunikazio grafikoan gaitua.

-(Komunika-)Bideen kudeaketa eta planifikazioa: kanpaina eraginkorrak eta inpaktu handikoak diseinatu eta gauzatzeko publizitate plan on bat egiteko gai den profesional gaitua.

-Marketinga eta ikerketa: Merkatu eta marketing plan eraginkorrak egiteko eta diseinatzeko gai den profesional gaitua.

EZARPEN KRONOLOGIA

- 1. maila** 2010/11
- 2. maila** 2011/12
- 3. maila** 2012/13
- 4. maila** 2013/14

SOZIOLOGIAKO GRADUA

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
www.gizarte-komunikazio-zientziak.ehu.es

IKASKETEN DESKRIPZIOA

Soziologia gizabanakoen eta giza-taldeen portaera soziala ulertzeko baliatzen dugun zientzia da. Haren helburu nagusia XXI. mendeko gizartearen beharrei erantzuten dioten politika publiko eraginkorrak diseinatzea da. Ikasketa planak formazio teoriko sendoa, formazio praktikoarekin bateratzen du, betiere ikasleek lan profesionala egiteko beharrezkoa duten formazioa bermatzeko asmoz. Enpresetan egindako praktika boluntarioak ez ezik, elkartrukatze programak ere baditu plan honek, gure ikasleei atzerriko unibertsitateetan ikastaroak egiteko aukera emateko.

SARTZEKO PROFILA

Sarbideko eskakizunak betetzeaz gain, soziologiako ikasleek gizarte gai eta kontuez izan behar dute interesa, beraien azterketa egin, arazoak identifikatu eta, batez ere, irtenbide eraginkorrak emango dizkieten politika publikoak proposatu eta diseinatzeko gaitasuna.

IKASKETEN ANTOLAKETA:

		Kredituak					
		Oinarrizko formazioa	Beste alor Bateko irakasgaiak	Berariazkoak	Hautazkoak	Gradu Amaierako proiektua	Guztira
Ikastaroak	1.	60					60
	2.			60			60
	3.			36	24		60
	4.			30	18	12	60
	Guztira	60		126	42	12	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Soziologia graduak lau urteko iraupena du eta bi ziklotan banatzen da; ziklo bakoitzean bi ikastaro-modulu ematen dira. Lehenengo zikloan, gizarte zientzietako edozein profesionalak izan behar dituen konpetentziak lantzen dira eta horretarako gai guztiak derrigorrezkoak dira. Lehenengo ikastaro-modulua eta bigarrenaren hamar materietako lau Zientzia Politikoan eta Kudeaketa Publikoan ere ematen dira.

Bigarren zikloa gizarte zientzietako arlo ezberdinetan espezializazioa lortzera zuzenduta dago. Bi moduluek orientazio praktikoagoa eskaintzen dute eta gai hautazkoak dituzte, ikasleari arlo honetan bere profil profesionala diseinatzeko laguntzen diotenak. Bigarren ziklo honek hiru aipamen ditu; bi gaztelaniaz eta beste bat euskara hutsean ematen dena, hain zuzen.

- *Gizarte-ongizate Aipamena*, gizarte-ongizate politika publikoen diseinuan espezializazioa lortu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bost gai ditu (30 kreditu ECTS) bigarren zikloan eskaintzen direnak. *Osasunaren soziologia; Ongizatea eta Gizarte politikak; Soziodemografia; Aniztasuna; Ezberdintasuna eta gizarte-bazterkeria; eta Gizarte eta ingurumena* (Gaztelaniaz eta euskaraz)

- *Giza-sare eta giza-erakundeak Aipamena*, globalizazioak sortu dituen aldaketan, eta gizarte arazo berrien azterketan espezializazioa lortu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bost gai ditu (30 kreditu ECTS) bigarren zikloan ematen direnak: *Erakunde eta enpresen soziologia; Migrazioen soziologia; Kultura, aisialdia eta kontsumoa; Identitate eta nazionalismoen soziologia (gaztelaniaz eta euskaraz); eta Ezagupenaren zientzia, teknologia eta kudeaketa*.
- *Gizarte arazoan analisi eta kudeaketa Aipamena* euskara hutsean ematen da, eta gizarte aldaketek sortutako desorekei irtenbidea emateko politika publiko eraginkorrak diseinatzeko espezializazioa lortu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bost gai ditu (30 kreditu ECTS) bigarren zikloan ematen direnak: *Gizarte parte-hartzea eta metodologia partehartzailea; Hizkuntza eta kulturaren soziologia; Familia eta aldaketa soziala; Migrazioen soziologia; eta Ezagupenaren zientzia, teknologia eta kudeaketa*.

Halaber, bigarren ziklo hau enpresetan praktika boluntarioak egin ahal izatea errazteko eta ikasleen mugikortasuna sustatzeko diseinatuta dago.

Soziologia graduko lehenengo zikloa, osorik, euskaraz zein gaztelaniaz ikas daiteke. Bigarren zikloak bi aipamen gaztelaniaz eta bat euskaraz eskaintzen ditu. Hala ere, gaztelaniazko bi aipamenek bina ikasgai eskaintzen dute euskaraz; *Gizartea eta ingurumena* eta *Identitate eta nazionalismoen soziologia*. Gainera, graduak ingelesezko ikasgaiak ere eskaintzen ditu.

Soziologia gradua lortzeko, amaierako lan bat egin behar da, gizarte zientzien alorrean egin beharreko ikerketa lana, alegia.

LEHENENGO ZIKLOA

1 MODULUA Irakasgaiak	KRÉDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Zientzia politikoaren oinarrizko kontzeptuak	6	1	Derr.
Konstituzioa eta globalizazioa	6	1	Derr.
Azterketa soziologikoaren oinarriak	6	1	Derr.
XX. mendeko historia politiko eta soziala	6	1	Derr.
Ekonomia politikoa	6	1	Derr.
Ikerketa politikoaren euskarriak	6	2	Derr.
Gizarte-erakundeak eta gizarte-prozesuak	6	2	Derr.
Ikerketa sozial eta politikorako hastapenak	6	2	Derr.
Nazioarteko Harremanak	6	2	Derr.
Gizarte-psikologia	6	2	Derr.

2 MÓDULUA Irakasgaiak	KRÉDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Teoria soziologikoa I	6	1	Derr.
Ikerketa sozial kuantitatiboa: inkesta eta bestelako datuak	6	1	Derr.
Ikerketa sozial kualitatiboa	6	1	Derr.
XX. mendeko Espainia eta Euskadiren historia	6	1	Derr.
Eguneroko bizitzaren soziologia	6	1	Derr.
Teoria soziologikoa II	6	2	Derr.
Euskal Herriko gizarte-egiturak eta prozesuak	6	2	Derr.
Datuen kudeaketa eta azterketa estatistikoa	6	2	Derr.
Komunikazio teoriak	6	2	Derr.
Ikerketa tailerra	6	2	Derr.

BIGARREN ZIKLOA

3 MÓDULUA Irakasgaiak	KRÉDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Datuen kudeaketa eta azterketa estatistikoa II	6	1	Derr.
Teoria soziologikoa III	6	1	Derr.
Gizarte ikerketa kualitatibo aurreratua	6	1	Derr.
Kultura, aisialdia eta kontsumoa	6	1	Hau.
Gizarte-demografia	6	1	Hau.
Aniztasuna, desberdintasuna eta gizarte bazterketa	6	1	Hau.
Kultura eta hizkuntzaren soziologia	6	1	Hau.
Datuen ikerketa aldakorra	6	2	Derr.
Egitasmoen diseinu eta elaborazioa	6	2	Derr.
Hiriaren soziologia	6	2	Derr.
Ongizatea eta gizarte-politikak	6	2	Hau.
Erakundeen eta enpresaren soziologia	6	2	Hau.
Gizartea eta ingurugiroa	6	2	Hau.
Familia eta gizarte aldaketa	6	2	Hau.
Gizarte partaidetza eta metodologia partehartzaileak	6	2	Hau.

4 MODULUA Irakasgaiak	KRÉDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (DERR./HAU.)
Ekonomiaren dimentsio sozialak	6	1	Derr.
Hezkuntzaren soziologia	6	1	Derr.
Soziologia politikoa	6	1	Derr.
Osasunaren soziologia	6	1	Hau.
Zientzia, Teknologia eta Ezagutzaren Kudeaketa	6	1	Hau.
Migrazioen Soziologia	6	1	Hau.
Gizarte aldaketa eta berrikuntza	6	2	Derr.
Generoaren soziologia	6	2	Derr.
Identitatearen eta Nazionalismoen Soziologia	6	2	Hau.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Atzerrian ikastaro bat egiteko aukerak, hizkuntza ikasi zein ezagupenak handitzeko abagunea emateaz gain, ikaslearen curriculumari balio erantsia dakarkio. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen helburuetariko bat atzerriko beste zentroetako bigarren zikloko ikasleekin elkartrukatzea suspertzea da, honako programa hauen bitartez: Sicue/Séneca (Estatu mailako mugikortasuna), Sócrates/Erasmus (Europa mailako mugikortasuna), UPV/EU programa (Latinoamerika) eta "Beste helmuga batzuk" programa (AEB, Errusia, Kanada eta Asia). Gaur egun, aldeko akordioak ditu munduan zeharreko 60 fakultate baino gehiagorekin eta gure ikasleei elkartrukatzareko 100 plaza baino gehiago eskaintzen zaie. Fakultatea akordio berriak eta plaza gehiago kudeatzen ari da Europako goi mailako hezkuntza-esparrura egokitzeko planaren barruan.

PRAKTIKAK

Esparru profesionalarekin harreman izatea da, gradua amaitzen den bitartean, gure zentroan ikastearen beste abantaila bat. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak enpresetan, erakundeetan, eta instituzio publiko zein pribatuetan egin beharreko hezkuntza lankidetzatza programa boluntarioa eskaintzen die bigarren zikloko ikasleei. Programa honek 500 toki baino gehiago ditu. Praktikak eta ikasketak batera egin daitezke eta 450 orduko iraupena dute.

HARTUTAKO KONPETENTZIAK

- Planteatutako helburuak lortzeko egokienak diren teknikak erabiliz, ikerketa soziologikoa egitea eta planifikatzea.
- Garrantzitsuenak diren gizarte arazoan eduki oinarrikoak definitzea eta identifikatzea. Psikologiari buruzko ikerketa bat egin eta aurkeztea.
- Gizarte ekintza eta politika publikoari buruzko egitasmoak, eta beraien emaitzak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzea.
- Egitura publiko zein pribatuetan sortzen diren oinarriko beharrak eta prozesuak aztertu eta identifikatzea.
- Erakunde publiko zein pribatuetan kudeaketa estrategiak egin eta garatzea.
- Erakunde publiko zein pribatuetan bakearen kulturaren eta balore demokratikoen suspertzean oinarritutako politikak, heziketa eta formakuntza programak diseinatu eta ebaluatzea.
- Modu sintetikoan, arazo eta beharizan sozialen inguruko informazioa aztertzea, bereziki genero, klase eta etnia ezberdintasunak.
- Gizarte datu eta praktiken inguruko jarrera kritikoa garatzea.
- Zeregin profesionalean eta moralean zorroztasun intelektuala erabiltzea.

GRADUATUAREN PROFILA (IRTEERA PROFILA)

Soziologian graduatuak, titulazioari dagozkion konpetentziez gain, joera eta fenomeno sozial inportanteenak definitzeko eta identifikatzeko bideratuta dauden ikerketa soziologikoak aztertzeko gaitasuna lortzen du. Gizartearen arazoei irtenbide eraginkorrak ematen dizkieten politika publikoak diseinatu, kudeatu eta gauzatzeko profesional gaitua da. Gizartearen etengabeko aldaketak kontuan izaten ditu eta etengabeko prestakuntzako prozesuen parte-hartzailea da.

LANERATZEA

Soziologian graduatuak hiru alor hauetan banatzen diren profil profesional gehienak gara ditzake:

- Politika publikoen diseinua, kudeaketa eta gauzatzea: Administrazioaren maila ezberdinetan lan egiten duten teknikariak, toki (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak), estatu zein nazioartekoa, edota GKEetan, fundazioetan, entitate pribatu, aurrezki kutxa edo bankuen gizarte lan ekintzetan ere bai.
- Enpresa: giza-baliabideetan profesional gaitua, merkatu azterketak zein zundaketak egitea, baita profesionalen etengabeko prestakuntza gauzatzea eta planifikazioa egitea ere.
- Ikerketa: Erakunde publikoetan ikerketa soziologikoak egiteko profesional gaitua (IKUSPEGI, EUSTAT, CIS, Prospekzio Soziologiko Kabinetea, besteak beste) Unibertsitate esparruan lan egiten duen ikertzaile gaitua.

EZARPEN KRONOLOGIA

1. maila: 2010/11
2. maila: 2011/12
3. maila: 2012/13
4. maila: 2013/14

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Graduaren helburu nagusia da zerga-sistemaren eta administrazio publikoen arloan jantzitako profesionalak sortzea, tokiko, eskualdeko, nazio barruko edo nazioarteko enpresa-erakunde publiko zein pribatuetako zuzendaritza karguak betetzeko eta gestio-, ikuskaritza-, aholkularitza- eta ebaluazio-lanak egiteko gaitasuna izango dutenak.

Graduatuek prestakuntza osoa eta espezializatua izango du bai bere enpresa sortzeko eta bai inoren kontura lan egiteko ere ikuskatzaile, ikuskatzaileorde, zerga-aholkulari, auditore, administrazio publikoetako teknikari, zerga-sailetako zuzendari eta abar, osasun-zerbitzuetan, udaletan, gobernu autonomikoetan, gobernu zentraletan, EBn eta abar.

Ikastaldian barrena ikasleak analisirako, ebaluaziorako eta erabakiak hartzeko gaitasun handia eskuratu beharko du. Aukerak antzeman eta aurreikusi beharko ditu, baliabideak esleitu, informazioa antolatu eta interpretatu, lege-aldaketan ondorioak aztertu eta ulertu, informazio garrantzitsua hautatzen jakin, erabakiak hartu zalantzazko baldintzetan, ezarritako helburuak bete eta emaitzak ebaluatu. Zerga-arauak zorrotasunez eta eragile ekonomikoaren interesen alde aplikatu beharko ditu; baloratu beharko ditu haien ondorio ekonomikoak eta sektore publikoak daukan pisu gero eta handiagoa ekonomian eta jardun ekonomiko eta enpresarial publikoan, bai eta sektore publikoak merkatuak erregulatzen betetzen duen funtzioa ere.

Bestalde, ekonomia ingurune sozial eta historikoaren osagaietako bat baino ez denez, gradu honetan diziplina desberdinetako prestakuntza emango da, ekonomia eta enpresaren arloko edukiez gain zuzenbidea, historia eta soziologia ere landuz.

Graduatua gai izan beharko da taldean lan egiteko, txostenak egin eta aurkezteko, informazio eta komunikazio-teknologiak erabiltzeko, ingurunearen ikuspegi zabala izateko; aktiboa izan beharko da eta sortzailea, lehiakorra, elkarlanean jarduten dakiena, dinamikoa, ekina, parte hartzailea eta begirunetsua.

Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko graduatua gai izan beharko da errealitate ekonomiko eta enpresariala aztertu, ulertu eta ondoren ekiteko; eskuratutako tresnak erabiltzeko, arlo pribatuan nahiz publikoan baliabideak modu eraginkor, bidezko eta jasangarrian gestionatzeko; erakundeek jarduera ekonomikoan, enpresarialean eta sozialean zer leku betetzen duten ulertzeko; administrazio publikoaren eta zerga-sistemaren arlo desberdinetako arazo praktikoak azaldu eta konpontzeko; ekonomia-analisiaren printzipioak aplikatuz eta graduan eskuratutako tresnak erabiliz praktikan arazoak diagnostikatu eta konpontzeko eta erabakiak hartzerakoan tresnak analitikoak erabiltzeko.

SARTZEKO PROFILA

Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua ondo egin nahi duen Batxilergoko edozein ikasleak oinarrizko ezagutzak izan behar ditu Aljebraz, Kalkuluaz, ingelesaz eta gehien erabiltzen diren aplikazio informatikoez. Gainera, honako trebetasun hauek izan behar ditu: mintzaera eta idazkera ona, Matematika, Estatistika eta zenbaketa-tresnak erabiltzeko gaitasuna eta erraztasuna, azterketa-, hausnarketa-, sintesi- eta kritika-gaitasuna, ulertzeko eta abstrakziorako erraztasuna, ikasteko interesa eta ikasteko ohitura onak, tokiko, eskualdeko, nazio barruko edo nazioarteko arazo ekonomiko, sozial eta politikoei buruzko interesa eta errespetuz taldean lan egiteko gogoia.

Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Graduan sartu nahi dutenengandik espero diren gaitasunak honako hauek dira:

- Bere ingurunean erraztasunez komunikatzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aktiboki parte hartzeko jarrera erakustea.
- Bigarren Hezkuntzan lortutako ezagutzak (Matematika, hizkuntzak, Gizarte Zientziak, etab.) eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erraztasunez erabiltzea prestakuntzan emaitza onak lortzeari begira.
- Ideiak aztertu, laburtu eta argudio koherenteak erabiliz iritziak ematea norberaren ezagutzan aurrera egiteko.
- Ingelesez irakurtzea hasiera-hasieratik eskuragarri dagoen informazio guztira heldu ahal izateko.
- Ikasteko diziplina, bakarka eta taldeka lan egiteko ahalmena, komunikatzeko erraztasuna, erantzukizuna eta heldutasuna edukitzea.

Gaitasun horiek, Batxilergoa gainditu ondorengo gaitasunetatik datozenak, ez dira derrigorrez sartzeko baldintzat hartu behar, baina kontuan hartu behar dira unibertsitatera sartu nahi duen edozein ikasle orientatzerako orduan.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Mota	1.	2.a	3.a	4.a	GUZTIRA
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	48				48
Beste jakintza-adarretako oinarrizko irakasgaiak	12				12
Nahitaezkoak		60	42	18	120
Gradu Amaierako Lana				12	12
Kanpoko praktikak*					
Hautazkoak			18	30	48
Guztira	60	60	60	60	240

*Kanpoko praktikak: borondatezkoak dira eta 4. mailan egiten dira.

Oinarrizko eta nahitaezko irakasgai guztiak gaztelaniaz eta euskaraz ematen dira.

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Irakaskuntza bost modulutan antolaturik dago. Lehenengo hiru moduluak seina kreditu izango dituzten irakasgaiak osaturik daude; laugarren modulua, berriz, hautazko irakasgaiak, enpresako praktikek eta aitorpen-kredituek osatzen dute. Azkenik, bosgarren modulua Gradu Amaierako Lanari dagokio.

Hala, graduako ikasketen plangintza honela zehazturik dago:

1. modulua. OINARRIZKO IRAKASGAIK: lehenengo mailako 10 irakasgai, guztiak oinarrizkoak eta derrigorrezkoak.

2. modulua. ENPRESA ANALISIRAKO TRESNAK: enpresaren arloko funtsezko eta nahitaezko 9 irakasgai, Finantza eta Aseguru- eta Graduarekin, Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako Graduarekin eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduarekin partekatuak, bigarren eta hirugarren mailako lehenengo lauhilekoetan emango direnak.

3. modulua. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ETA ZERGA SISTEMAREN ANALISIRAKO OINARRIAK: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako 11 irakasgai espezifiko, nahitaezkoak, bigarren, hirugarren eta laugarren mailatan emango direnak.

4. modulua. ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO HAUTAZKO IBILBIDEAK. Bi espezialitate ditu:

- Administrazio Publikoa
- Zerga Sistema;

Horiez gain, hautazko irakasgai osagarriek, enpresako praktikak eta aitorpen-kredituak biltzen ditu.

5. modulua: GRADU AMAIERAKO LANA: 12 kreditu, gaitasunen ebaluazio orokorrari dagozkionak.

	Irakasgaiak	ECTS	Moduluak
1.a	Ekonomiaren Hastapenak I: Makroekonomiaren Oinarriak	6	Oinarrizko Irakasgaiak
	Matematika I	6	
	Kontabilitaterako Sarrera	6	
	Enpresaren Ekonomia: Sarrera	6	
	Zuzenbiderako Sarrera	6	
	Ekonomiaren Hastapenak II: Makroekonomiaren Oinarriak.	6	
	Matematika II	6	
	Finantza Kontabilitatea	6	
	Enpresaren Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza	6	
	Ekonomiaren Historia	6	
2.a	Kostuen Kontabilitatea	6	Enpresa Analisirako Tresnak
	Merkataritza Zuzendaritza: Sarrera	6	
	Estatistika eta Datuen Analisia	6	
	Finantza Eragiketen Matematika	6	
	Mikroekonomia	6	
	Gastu Publikoko Programak	6	Finantza eta Aseguruen Analisirako Oinarriak
	Finantza Merkatuen Gestioa	6	
	Sektore Publikoaren Historia	6	
	Enpresako Aktiboen Balioespena	6	
	Estatistika eta Ekonometriarako Sarrera	6	
3.a	Kontabilitate Analisia	6	Enpresa Analisirako Tresnak
	Makroekonomia	6	
	Erregimen Fiskala	6	
	Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika	6	
	Administrazio Zuzenbidea	6	Finantza eta Aseguruen Analisirako Oinarriak
	Zergen Ondorio Ekonomikoak	6	
	Informatika	6	
	HAUTAZKOA	6	Especialitateak
	HAUTAZKOA	6	
	HAUTAZKOA	6	
4.a	HAUTAZKOA	6	Finantza eta Aseguruen Analisirako Oinarriak
	HAUTAZKOA	6	
	Deszentralizazioa eta Euskal Sektore Publikoa	6	
	Nazioarteko Fiskalitatea	6	
	Europar Batasuna	6	
	HAUTAZKOAK (edo praktikak)	18	
	Gradu Amaierako Lana	12	

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

UPV/EHUren mugikortasun-programei esker, fakultateak azken mailtako ikasleei beste zenbait unibertsitatetan urtebetez ikasteko 100 bat plaza eskaintzen dizkie.

ERASMUS programak gaur egun Europako 23 unibertsitatetan ikasteko aukera ematen du. Aurtengo ikasturtean gure fakultateko 40 ikasle daude unibertsitate horietan ikasketak egiten. LATINOAMERIKAKo hainbat unibertsitaterekin ere ikasleak trukatzeko programa bat daukagu. Azkenik, SICUE-SENECA programak Espainiako 12 unibertsitatetan 40 bat plaza eskaintzen ditu.

PRAKTIKAK

Praktikak egitea borondatezkoa da Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Graduan. Dena den, fakultateak enpresetan praktikak egiteko programa oso eraginkorra du bere ikasleentzat. Praktika horietan parte hartzen duten ikasleek lan-merkatuan sartzeko balio handiko esperientzia lortzen dute, gaitasun praktikoak eta lan-esperientzia irabazten baitituzte.

Orain arte kanpoko praktikak burutzeko fakultateak egin duen eskaintza ikasleen eskaerari erantzuteko adinakoa izan da, eta etorkizunean ere berdin egiten saiatuko da.

Praktiken programa batez ere azken mailako ikasleentzat da. Ikasleak gehienez 18 kreditu lortu ahal izango ditu praktikak egiteagatik.

GRADUAN ESKURATZEN DIREN GAITASUNAK

Titulazio honen helburua da gure ikasleak prestatzea beren lanbidean jarduteko behar diren gaitasunak lor ditzaten. Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Graduan gaitasun hauek eskuratuko dituzte:

- 1- Ikasleak gai izango dira beren ezaguerak era profesionalean aplikatzeko lanean, eta zerga-sistemaren eta administrazio publikoaren arloan argumentuak eratu eta erabiltzeko eta arazoak konpontzeko behar diren gaitasunak izango dituzte.
2. Ikasleak gai izango dira zerga-sistemaren eta administrazio publikoaren arloko datu garrantzitsuak bildu eta interpretatzeko, hartara gogoeta egin eta iritzia eman ahal izateko gizaritari, zientziei edo etikari loturiko gai garrantzitsuez.
3. Ikasleak gai izango dira ulertzeko eragile ekonomikoen eginkizunak eta erakundeek jardun ekonomikoan eta sozialean daukaten rola maila guztietan (tokiko erakundeetatik hasi eta nazioarteko erakundeetara arte), eta prozesu ekonomikoak baldintzatzen dituzten faktore historiko, sozial eta instituzionalak antzeman eta aztertzeko.
4. Ikasleak gai izango dira eskuratutako ezagutza teoriko eta praktikoak erabiliz arazoak diagnostikatu eta konpontzeko, erabakiak hartzean tresna analitiko egokiez baliatuz.
5. Ikasleak gai izango dira informazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzeko eta arlorako egokiak diren tresna informatikoak erabiltzeko.
6. Ikasleek jakingo dute iturri desberdinetan informazioa bilatzen, identifikatzen, aztertzen eta laburtzen, kritikarako, autokritikarako eta autonomiaz ikasteko gaitasunaz, ekonomia, enpresa, gizarte eta zientziarekin zerikusia duten gai garrantzitsuez arrazoitutako iritzia emateko eta erabaki baliagarriak hartzeko.
7. Ikasleak gai izango dira arlo anitzeko lantaldeetan parte hartzeko, eta egoera bakoitzak eskatzen dituen trebetasunak erabiltzeko: talde-lana, lidergoa, ekimena, sormena edo erabakiak hartzeko ahalmena.
8. Ikasleak gai izatea txostenak egin eta ideiak adierazteko, argiro eta koherentziaz, ekonomia publikoko edozein gairi buruz entzule espezializatu nahiz ez espezializatuei, kasu bakoitzerako behar den hizkuntza-maila erabiliz.
9. Ikasleak gai izatea analisi ekonomikoaren printzipioak ulertzeko baliabideen esleipen eraginkorra egiteari begira, bai arlo pribatuan eta bai publikoan, herri, estatu nahiz nazioarte mailan.

10. Ikasleak gai izatea errealitate ekonomikoaren oinarritzko ezaugarriak ateratzeko eredu matematikoak erabiliz eta ereduon diseinurako faktore nagusiak antzemanez.

11. Ikasleak gai izatea teknika kuantitatiboak erabiltzeko datu ekonomikoak interpretatu eta kuantifikatzean.

12. Ikasleak gai izatea esku-hartze publikorako tresna nagusiak ulertzeko eta politikagomendioak ekonomia positiboaren eta arauzko ekonomiaren arteko gatazkarekin erlazionatzeko.

13. Ikasleak gai izatea ulertzeko zerga-sistemaren oinarritzko printzipioak, sektore publikoaren sarrera-motak eta zerga desberdinen egitura, eta gai izatea haien ondorio ekonomikoak aztertzeko eta jakiteko zelako ekarpena egiten dieten Estatutuko Aurrekontu Orokorrei eta lurralde mailako administrazioei.

14. Ikasleak gai izatea ulertzeko sektore publikoek jardun ekonomikoan eta gizartearen ongizatean daukaten eragina maila guztietan: tokiko erakundeetatik hasi eta nazioarteko erakundeetaraino.

15. Ikasleak gai izatea ikasitako edukiak eta teknikak erabiliz erabakiak hartzeko globalizazioaren, berrikuntza teknologikoaren eta ingurugiroaren arazoaren eraginez etengabe aldatuz doan testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoan.

GRADUATUAREN PROFILA – LANERATZE MAILA

Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko graduatuak funtzio publikora sartzeko era emango dioten ezagutza teoriko praktikoak izango ditu; zerbitzu publikoa betetzeko interesa duena lehiatu ahal izango da erantzukizuneko karguak betetzeko edozein administrazio publikotan. Bestalde, graduatua prestatuta egongo da sektore pribatuan ere lan egiteko, kudeaketa, aholkularitza, kontsultoretza edo ingurune legal, ekonomiko eta soziala sakon ezagutzea eskatzen duen beste edozein lanetan. Ingurune ekonomiko eta soziala analizatu eta ulertzeko gaitasunari esker, bestalde, ikerketan ere jarduteko gai izango da, eta lan egin ahal izango du azterlan-zerbitzuetan, fundazioetan, goi mailako ikasketa-zentroetan eta abar.

Laburbilduz, Zerga Sistemako eta Herri Administrazioiko graduatu guztiak gai dira erantzukizuneko postuak betetzeko honako erakundeetan:

Administrazio publikoan: graduak aukera ematen du nazioartean, estatuan, autonomia erkidegoan nahiz tokian-tokian funtzionario eta erdi-mailako nahiz goi-mailako teknikari izateko ekonomia, ogasun, industria, teknologia, nazioarteko merkataritza eta beste hainbat arlotan. Halaber, Espainiako Bankurako oposaketak eta karrera diplomatikoa egiteko aukera ere ematen du. Gerentea izan daiteke erakunde autonomiadunetan, enpresa-erakunde publikoetan eta fundazio publikoetan.

Enpresa pribatuetan (multinazionaletatik hasi eta enpresa txiki eta ertainetara): enpresa pribatuen eta administrazio publikoen arteko harremanetarako kudeaketa eta aholkularitzalanak, enpresen fiskalitatearekin eta enpresa-, zerga-, lan-aholkularitzarekin eta kontsultoretzarekin zerikusia duten lanpostuak eta abar.

Nazioarteko erakundeetan: Europar Batasuneko erakundeak, Europako Banku Zentrala, Nazio Batuen sistemako ekonomia-erakundeak (Munduko Bankua, NBE, Nazioarteko Diru Funtza (NDF), Garapenerako Amerika arteko Bankua (GAB)...), Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundea (ELGA) eta abar.

Beste erakunde batzuetan: fundazioak, GKEak, eta abar.

Irakaskuntzan: erdi-mailako eta goi-mailako irakaskuntza.

Ikerkuntzan: azterlan-zerbitzuetan, plangintza-bulegoetan, ikergune publiko eta pribatuetan, unibertsitatean.

Bere kontura lan egiteko aukera ere badu.

EZARPENAREN KRONOLOGIA

- 1. maila:** 2010/11;
- 2. maila:** 2011/12;
- 3. maila:** 2012/13;
- 4. maila:** 2013/14

ZUZENBIDEKO-GRADUA

Zuzenbide Fakultatea-Donostia-San Sebastián

Zuzenbide Fakultatea-Bizkaiko Atala

www.zuzenbide.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Zuzenbide Graduako ikasketen helburua da ikasleari Zuzenbideko prestakuntza orokorra ematea zientzia diziplina gisa. Laneko jarduerak egiteko bideratuta dauden ikasketa hauen bidez eskuratutako gaitasunak hainbat arlotan aplikatu daitezke, hala nola irakaskuntzan, zuzenbideko ikerkuntzan, zuzenbide-lanbidearen sektore zabalean, enpresetan eta administrazioan.

Beraz, Zuzenbide Gradudunaren Tituluak gizarte-harremanen arloetan sortu daitezkeen arazo juridikoak konpontzeko gaitasuna emateko xedea du.

SARTZEKO PROFILA

Zuzenbideko ikasketak hasi nahi dituzten pertsonei lana egiteko eta ikasteko gogoak eta analisi kritikorako gaitasuna eskatzen zaizkie. Era berean, Zuzenbideko ikasleak gizarte-harremanetarako trebea izan beharko du eta gizartearen eraldaketa bizkorrek bereganatzen jakin beharko ditu.

Interesgarritzat jotzen dugu, halaber, legelari izateko prestatu nahi duten pertsonak gizarte-gaiekiko sentiberak izatea eta egoera gatazkatsuen konponketan parte hartzeko bokazioa edukitzea. Hain zuzen ere, bitartekaritzarako gaitasuna eta justiziaren berezko sena duten pertsonak oso ongi moldatuko dira balio horiek biltzen dituzten hainbat lanbidetan. Era berean, norberaren autonomia eta ekiteko gaitasuna ezaugarri garrantzitsuak dira zenbait espezialitatetan aritzeko.

Dena den, Gradua amaitzean edozein lanbide aukeratuta ere, zuzenbideko ikasketak egiten hasiko diren pertsonak ahoz nahi idatziz adierazteko gaitasuna izan beharko dute: hizkuntza zuzenbidearen oinarrizko tresnetako bat da. Halaber, garrantzitsua da ikaslea prestatuta egotea informazioaren teknologiek eskura jartzen dizkioten aukerei etekina ateratzeko.

* Sartzeko gaitasunak

1. Ikasteko gaitasuna.
2. Taldean lana egiteko jarrera.
3. Ahoz eta idatziz komunikatzeko trebetasuna.
4. Analisi eta sintesirako gaitasuna.
5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzearen aldeko jarrera izatea.
6. Gizarte- eta ingurumen-gaiekiko sentiberatasuna.
7. Erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bereganatzeko ahalmena.
8. Lidergorako eta gatazkak konpontzeko gaitasuna.

IKASKETEN ANTOLAKUNTZA

Iraupena eta ECTS kredituen kopurua:

Oinarrizko prestakuntza: 66

Nahitaezkoak: 138

Hautazkoak: 18

Kanpoko praktikak: 12

Gradu-amaierako lana: 6

Kredituak guztira: 240

TITULUAREN PROGRAMA

-Irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira. Hainbat irakasgai ingelesez eskaintzeko aukera aurreikusten da.

2010-11 IKASTURTEA: ZUZENBIDE-GRADUA

1. MAILA	1. LAUHILABETEKOA	2. LAUHILABETEKOA
	EKONOMIA 6 ECTS	
	ERROMATAR ZUZENBIDEA 6 ECTS	EUROPAKO ZUZ. 9 ECTS
	ZUZENBIDEAREN HISTORIA 6 ECTS	ZUZENBIDEAREN TEORIA 8 ECTS
	ZUZENBIDE ZIBILA I 6 ECTS	ADMINISTRAZIO-ZUZ. I 6 ECTS
<u>GUZTIRA: 60 ECTS</u>	KONSTITUZIO-ZUZ. I 6 ECTS	KONSTITUZIO-ZUZ. II 7 ECTS

2. MAILA	1. LAUHILABETEKOA	2. LAUHILABETEKOA
	ZUZ. PROZESALA I 6 ECTS	FINANTZA-ZUZ. I 6 ECTS
	NAZIOARTEKO ZUZ. PUBLIKOA I 6 ECTS	NAZIOARTEKO ZUZ. PUBLIKOA II 6 ECTS
	ADMINISTRAZIO-ZUZ. II 6 ECTS	ADMINISTRAZIO-ZUZ. II 6 ECTS
	ZUZENBIDE PENALA I 6 ECTS	ZUZENBIDE PENALA II 6 ECTS
<u>GUZTIRA: 60 ECTS</u>	KONSTITUZIO-ZUZ III 6 ECTS	ZUZENBIDE ZIBILA II 6 ECTS

3. MAILA	1. LAUHILABETEKOA	2. LAUHILABETEKOA
	ZUZENBIDE PENALA III 6 ECTS	
	ZUZENBIDE PROZESALA II 6 ECTS	ZUZENBIDE PROZESALA III 6 ECTS
	LANAREN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ZUZ. I 6 ECTS	LANAREN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ZUZ. II 6 ECTS.
	NAZIOARTEKO ZUZ. PRIB. I 6 ECTS	NAZIOARTEKO ZUZ. PRIB. II 6 ECTS
	ZUZENBIDE ZIBILA III 9 ECTS	
<u>GUZTIRA: 60 ECTS</u>	MERKATARITZA-ZUZENBIDEA I 9 ECTS	

4. MAILA	<u>1. LAUHILABETEKOA</u>	<u>2. LAUHILABETEKOA</u>
	MERKATARITZA-ZUZ. II 9 ECTS	PRACTICUMA 12 ECTS
	ZUZENBIDE ZIBILA IV 7 ECTS	GRADU-AMAIERAKO LANA 6 ECTS
	FINANTZA-ZUZENBIDEA II 8 ECTS	HAUTAZKOA: KONTZIENTZIA ASKATASUNAREN ZUZ. 6 ECTS
	HAUTAZKOA: EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERA 6 ECTS	HAUTAZKOA: ZUZENBIDEAREN HISTORIA- ETA KULTURA-OINARRIAK 6 ECTS
	HAUTAZKOA: ARGUMENTAZIO ETA KOMUNIKAZIO JURIDIKOAREN TEKNIKAK 6 ECTS	HAUTAZKOA: KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ: ARLO JURIDIKOA 6 ECTS
	OPTATIVA: LAN ETA DOKUMENTU JURIDIKOAK EGITEKO TEKNIKAK 6 ECTS	
	HAUTAZKOA: EUSKAL AUTONOMIAREN ZUZENBIDE PUBLIKOA 6 ECTS	
<u>GUZTIRA: 60 ECTS</u> <u>(42 enborreko + 18</u> <u>hautazko)</u>	HAUTAZKOA: EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILA 6 ECTS	

MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Azken bi urteotan hainbat alderdi landu dira truke-programetan parte hartu nahi duten ikasleentzako zerbitzuak hobetzearren.

I. INFORMAZIOA

Informazioa eskuratzeko bidea garrantzitsu bezain oinarrizkoa da, eta, horretarako, leiho edo *banner* bat zabaldu da Fakultatearen web-orrian. Bertan UPV/EHUko ikasleentzat eta hona etorri nahi duten atzerritarrentzat interesgarria izan daitekeen informazio guztia eskuratu daiteke. Leiho horrek ERASMUS izenburua du.

II. HITZARMEN BERRIEN KUDEAKETA

Jakina, atal garrantzitsua izan da, halaber, gure ikasleentzako norakoen plazak areagotzea, eta, horren harira, hitzarmen berriak egiteari ekin zaio. Programei dagozkien ohiko eremuak bereziko ditugu:

II. 1. Hitzarmen berrien kudeaketa, Socrates-Erasmus programan trukeak egiteko.

Hitzarmenak kudeatu dira, besteak beste, Florentzia, Sena, Milango Katolikoa (Italia), Paris-Hegoaldea 11 (Frantzia), Budapest (Hungaria), Krakovia (Polonia) eta Bruselako (Belgika) unibertsitateekin.

II. 2. Hitzarmen berrien kudeaketa SICUE programarako.

Arreta berezia jarri da Espainiako Zuzenbide Fakultate batera joateko interesa duten ikasleek norako gehiago eta baldintza hobekuntza izan ditzaten. Bereziki landu da Katalunia aldea, ikasleek interes handia baitute orain arte behar bezala landu ez den eremu horretan.

Norako berriak sartu dira: Tarragonako Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatea (indarrean jartzeko zain).

II. 3. Hitzarmen berrien kudeaketa, Latinoamerika programan trukeak egiteko.

Aurreko atalean bezalaxe, hitzarmen-zerrenda luzea dago eta hobekuntzak egin dira, gure ikasleentzako norako erakargarriagoak lortzeari dagokionez. Kudeaketa-lanak oso aurreratuak daude gure ikasleek datorren 2009-2010 ikasturtean unibertsitate hauetara joateko aukera izan dezaten: Bahia Blanca, Buenos Aires, Belgrano (Argentina), Txileko Unibertsitate Katolikoa, Mexikoko Unibertsitate Autonomoa eta Mérida-Yucatan Unibertsitatea (Mexiko).

II. 4. Hitzarmen berrien kudeaketa, Beste norakoak programan trukeak egiteko.

Batez ere, Estatu Batuetako norakoak dira. Fakultateak indarrean du hitzarmen bat Austingo Unibertsitatearekin (Texas) eta abian dira San Frantziskoko Golden Gate Unibertsitatearekin (Kalifornia) hitzarmen berria egiteko kudeaketa-lanak. Beharbada, azken hitzarmen hori bera Floridako unibertsitatara zabaldu ahal izango da.

PRAKTIKAK

Zuzenbide Gradu Ikasketen Planak 12 ECTS kreditu egitea aurreikusten du, azken ikasturtearen bigarren seihilekoan egin beharreko Nahitaezko Kanpoko Praktiken bidez. Praktiken laguntzaz, ikasleak Gradu ikasketetan eskuratutako jakintzak eta gaitasunak zuzenbideko errealitatean egiaztatzeko aukera du. Horregatik, egokitzat jotzen da praktiketan matrikulatu nahi duten ikasleek Graduaren lehen hiru maila dagozkien kredituen % 70 gaindituta izatea (126 kreditu).

Praktiketako ikasgaiak, berriz, praktika motaren arabera izango dira. Dena den, funtsean, ikasleek Administrazio Publikoetan edo enpresa pribatuetan egin ahal izango dituzte. Zuzenbide Fakultateak praktiketako hitzarmen-zerrenda luzea du, besteak beste, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, abokatuen bulegoak edo erakunde publikoak biltzen dituen (Enpleguko Zerbitzu Publikoa, Laneko Ikuskaritza, Arartekoa, Diputazioak, Udalak, etab.).

ESKURATUTAKO GAITASUNAK

Zuzenbide Graduaren ikasketen helburua da ikasleari Zuzenbideko prestakuntza orokorra ematea zientzia diziplina gisa. Laneko jarduerak egiteko bideratuta dauden ikasketa hauen bidez eskuratutako gaitasunak hainbat arlotan aplikatu daitezke, hala nola irakaskuntzan, zuzenbideko ikerkuntzan, zuzenbide-lanbidearen sektore zabalean, enpresetan eta administrazioan.

Laburbilduz, helburua da ikasleak honako gaitasun hauek eskuratzea:

-Zuzenbide publiko eta pribatuaren oinarriak edukitzea eta ulertzea, ikaslea bere lanbidean sortu daitezkeen arazo juridikoak konpontzeko gai izan dadin.

-Graduko ikasketak egin bitartean eskuratutako teknikak eta jakintzak modu egokian aplikatzea, arazo juridikoak zuzen konpontzeari begira, besteak beste, erabaki irudimentsuak hartuz eta hainbat egoerari aurre eginez, tolerantzia eta aniztasuna errespetatuz, antolakuntzan laguntzeko gaitasunaz, lan-talde txikitik lana eginez eta plangintzak zehaztuz.

-Araudi aldaketei eta egoera berriei etengabe egokitzeko gaitasuna izatea, ezinbestekoa den konpromiso etikoa eta gizarte, ekonomia- eta ingurumeneko gaiak gogoan izanda. Halaber, kalitate mahiz berrikuntzako alderdiei lehentasuna emango zaie, bereziki IKTen arloari dagokionez.

-Pertsonen arteko eta gizarteko harremanak modu egokian kudeatzea, ahozko eta idatzizko komunikazio-prozesuak modu egokian menderatuz. Izan ere, horren bidez, ikasleak informazioa publiko orokorrari edo espezializatuari emateko ahalmena izango du, argumentatzeko eta arrazoibide kritikoko teknikak erabilia.

-Ikaskuntza-prozesua etengabe eta autonomiaz kudeatzea; hartara, prestakuntza osoa lortuko du, berdintasun eta bazterkeriarik eza printzipioekin koherentea izango dena eta bakearen kultura sustatuko duena. Horrela, arrakastaz egin ahal izango die aurre espezializatzeko eta birziklatzeko ikasketei.

GRADUDUNAREN PROFILA (AMAIERAKO PROFILA)

Zuzenbide-graduari dagozkion lanbide-profilak honako hauek dira:

-Elkargoaren araudiari lotutako lanbideak: abokatua, prokuradorea, notarioa, erregistratzailea.

-Elkargoaren araudiari lotutakoak edo bestelako lanbideak:

Justizia administrazioaren funtzionarioa, epailea, fiskala, epaitegiko idazkaria.

Administrazio publikoetako goi-mailako funtzionarioa: estatuaren abokatua, erakunde publikoetako abokatua, administrazio orokorreko teknikaria, ogasuneko ikuskaria.

Administrazio publikoetako goi-mailako funtzionarioa: estatuko, autonomiako, foruko edo herriko administrazioaren teknikaria.

Nazioarteko erakundearen funtzionarioa: Europar Batasuna, Europako Kontseilua, NBE, NATO, gorputz diplomatikoa.

Enpresa pribatua, aholkularitzak, kudeatze-agentziak, enpresa handiak, ETEak, bankuak.

Publikoak ez diren elkarteak eta erakundeak: sindikatuak, GKEak, tartekaritza-lanak, bitartekaritza eta adiskidetzea, kultura-elkarteak, kirol-elkarteak, alderdi politikoak eta bestelakoak.

Irakaskuntza eta ikerkuntza.

LAN-MUNDUAN SARTZEA

UPV/EHUko tituludunen % 89 lana lortzen dute (LANBIDEren lan-munduan sartzeari buruzko inkestaren datuak). Hazteko joera begi-bistakoa da: urteko lizentziadunen kopurua gehiegizkoa izan den garaitik gatoz. Asetze-garai hori gaindituta, gero eta lan-aukera gehiago daude. Inkestaren beste ondorio baten arabera, zuzenbideko lizentziadunek, oro har, lanpostu egonkorragoak lortzen dituzte UPV/EHUko gainerako lizentziadunek baino. Horrez gain, zuzenbide-lizentziadunek oso soldata onak dituzte.

EZARTZEKO KRONOLOGIA

Graduaren ezarpena orokorra izango da, hau da, 2010-11 ikasturtetik Zuzenbide Gradu berria osatzen duten 4 mailak eskainiko dira. Nolanahi ere, indarrean dagoen araudiaren arabera lizentzia egiten ari diren ikasleen eskubideei ez zaizkie kalterik egingo; hartara, ikasle horiek erabakiko dute, borondatez, Gradu berrira egokitzen diren ala ez.

ERANSKINA: Unibertsitatean sartzeko probaren fase espezifikoko modalitateko gaietan lortutako kalifikazioak haztatzeko parametroak. 2010/11 ikasturtea

	Biologia	Lurraren eta ingurumenaren zientziak	Ikus-entzunezko kultura	Marrazketa artistikoa II	Marrazketa teknikoa II	Diseinua	Enpresaren ekonomia	Fisika	Geografia	Grekoa II	Musikaren eta dantzaren historia	Artearen historia	Latina II
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
Gizarte Antropologia	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
Politika Zientzia eta Gestio Publikoa	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
Ikus-entzunezko Komunikazioa	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
Kriminologia	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
Zuzenbide	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
Ekonomia	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
Lehen Mailako Heziketa	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■